2022-09-16 EGUBAKOITZA / 961. ZENBAKIA / 22. URTEA
**DEBAGOIENEKO DOAKO ALDIZKARIA** GOIENA.EUS TOKIKOM

Zu hemen zaude.

# goiena



# KOOPERATIBEN HAZIA, TAULA GAINEAN

Jose Maria Arizmendiarrietaren bizitza eta ekintzak musikal bihurtu ditu Gontzal Mendibilek: 'Hazia'. Bihar, zapatua, estreinatuko dute, Arrasateko Amaia antzokian / 38

Ezkerretik hasita, Aritz Salamanca, *Hazia* musikaleko koreografo eta dantzaria; Gontzal Mendibil, zuzendaria; Arkaitz Gartziandia, Jose Maria Arizmendiarrietaren paperean; eta Begoña Rodriguez, aktorea. IMANOL SORIANO

**SINADURAK**



AGURNE JULDAIN / **6**


XABIER IGARTUA / **33**


OIANA SANCHEZ / **12**


ANE ZUAZUBISKAR / **48**


+




Manex Alberdi dantzariari elkarrizketa

Emun: 25 urte eraldaketan buru-belarri


**2MÓ 99€**
GRADUATU ERREFLEXUEN AURKAKO LENTEEKIN

*Kontsultatu optikan kanpainaren ezaugarriak.*



Otalora Lizentziaduna, 18
Tel.: 943 79 29 95
**ARRASATE**

Ibargarai, 16
Tel.: 943 76 15 75
**BERGARA**

www.multiopticas.com

**MULTIÓPTICAS**
*50 urte zuen ikusmena zaintzen*



Eguzki plakak, Oñatiko Zubikoa kiroldegiaren teilatuan. MIREIA BIKUÑA

# Debagoieneko agendan dago energia aurreztea

Gasaren eskasiak eraginda, erakundeek zenbait plan argitaratu dituzte azken asteetan energia aurrezteko. Herritarrek, ikastetxeek, enpresek eta zenbait udalek, ordea, klima larrialdia gelditzeko asmoz, aspaldi hartu zituzten neurri bertsuak

**Uxue Igarza Loiola** DEBAGOIENA

Ikasturte berria hasi da Debagoieneko eragileentzat, erakundeentzat eta enpresentzat ere, eta haien agendetan dago energia aurrezteko estrategiak garatzea. Udalak, ikastetxeak eta merkatariak, adibidez, ari dira dagoeneko lanketa egiten.

Eusko Jaurlaritzak Kontingentzia Energetikorako Planaren zirriborroa aurkeztu zuen abuztuaren 12an. Bertan, erakundeei, enpresei eta herritarrei zuzendutako dirulaguntzak eta energia aurrezteko proposamenak jaso zituen, eta, hilaren 1ean, Energiaren Euskal Erakundeko zuzendari nagusi Iñigo Ansolarekin batera, planaren bigarren bertsioa aurkeztu zuen. Hiru eremuri eragiten dio planak: industriari –autokontsumorako eta energia berriztagarriak erabiltzeko gomendioa egiten zaie enpresei–, administrazioari –paper gutxiago erabiltzea da gomendioetako bat– eta herritarrei –kontsumo ohiturak aldatzea, etxetresna elektriko zaharrak ordezkatzea edota etxean isolamendu egokia jartzea dira jasotakoak, besteak beste–. Bestetik, mugikortasun jasangarrirako trantsizioan jartzen du azpimarra, eta horretarako laguntzak abiatzen ari da Jaurlaritza.

Bitartean, abuztuaren 28an, Madrilgo Kongresuak energia aurrezteko dekretua onartu zuen osoko bilkuran. Planaren arabera, berogailua eta aire girotua gehienez 19 eta 27 gradutan jarri behar da, erakunde publikoen egoitzetan, saltokietan, geltokietan eta kultur eremuetan. Arau hori ez dute bete beharko ospitaleek, ikastetxeek, gimnasioek, ile-apaindegiek eta jatetxeetako sukaldeek. Bestetik, erakusleihoetako eta hutsik dauden eraikin publikoetako argiak 22:00etan itzali behar dira.

### Udalak, dekretuaren eraginpean

Arrasateko Udalak adierazi du dekretuak ezarritakoa betetzen ari dela. Bergaran energia mahaia sortuta dago, eta datorren astean bilduko da, besteak beste, dekretua aztertzeko. Horrez gain, Bergara 2030 Bizi Energia Klima eta Energiari buruzko Tokiko Plana dute. Aretxabaletako alkate Unai Elkorok, berriz, "gaia aztertzen" ari direla aurreratu du.

**EREDU ENERGETIKOA ERALDATZEKO LANEAN ARI DIRA BAILARAKO ERAGILEAK ETA ERAKUNDEAK**

Oñatin hasiak dira eraldaketan, azken bi planak iritsi aurretik: "Urteak dira energia efizientziaren aldeko urratsak egiten gabiltzala, kostuak aurreztetik harago, iraunkortasun ikuspegitik: LED argiak jartzea, eraikin berrietan energiarekiko dependentzia gutxitzea, energia efizientziarako eraberritzeak egitea... Dekretuek badute eragina –eraikin publikoei eragiten dielako–, baina hasiak ginen lehenago".

Eta Antzuolan ere bada denbora bat energiaren gaia aztertzen ari direla. Beñardo Kortabarria alkatearen esanetan, kaleko argiteria ikertzen ari dira "merkeago eta energia gutxiago erabiliz" argiztatzeko. Bestetik, energia sortzeko "bide berriak" ere bilatu nahi dituzte; uraren sistemarekin, hain zuzen ere. Horrez gain, D2030 sarearekin batera, energia trantsizioan eragiteko hainbat proiektutan parte hartuko du Antzuolak: esaterako, *Birgaitzen* egitasmoan.

### Ikastetxeetan, plan egokituak

Arizmendi ikastolako Naiara Okina komunikazio arduradunak azaldu du dekretu eta planen berri izan aurretik ere ari zirela lanean energia aurrezteko. 2017an efizientzia energetikoaren azterketa egin zuten, eta, ordutik, hainbat egitasmo abiatu dituzte: "Argiteria LEDera pasatzen ari gara –eta baita argi inteligenteak jartzen ere–, obra berrietan kontuan hartzen da eraikinaren isolamendua eta Ekon enpresarekin proiektu bat abiatzen ari gara". Bestetik, gogora ekarri du Arrasteko Ferixalekuan "aspalditik" daudela eguzki plakak jarrita.

Elgetako Herri Eskolako Libe Iñurrigarro irakasleak ere hurrengo pausoen berri eman du: "*Klik* proiektuarekin hasiko gara orain. Udalak proposatu digu eta Ekon enpresarekin egingo dugu. Datorren astean egingo dugu bilera eragile guztion artean, eta, jakina, ikasleek ere parte hartuko dute".

### Merkatariak ere sarean

Jon Apraiz Arrasateko dendariak herriko merkatarien egoera azaldu du: "Espainiako dekretuak ez digu askorik eragiten; izan ere, alde zaharreko lokaletan ez dago aire girotua jarri beharrik, eta, hotzari dagokionez, pandemian ohitu ginen atea zabalik eta berogailu gabe egotera". Bestetik, erakusleihoei lotuta, adierazi du Arrasaten 22:00etarako itzalita egoten direla argiak, eta, hortaz, ez dutela aldaketarik egin, alde horretatik.

Bukatzeko, Apraizek gaineratu du Arrasateko merkatariak harremanetan daudela eskualdean egiten diren proiektuekin. "Ekiola kooperatiban parte hartzeko interesa dago. Bilerak egin ditugu eta askok eman dugu izena. Planak eta gomendioak iritsi aurretik ere, beti egon da kontzientzia ekologista hori, eta, orain, proiektu berriak ezagutzen ari gara", azaldu du.

### Kontzientzia enpresetan ere

Debagoieneko enpresetan eta kooperatibetan ere lanketa egiten ari dira energia trantsizioaren bueltan. Ulma, Soraluze, Goiener, Ekitermik, H-enea eta beste hainbat ari dira lanean eredu energetikoa eraldatzeko.

Aritz Otxandiano Fagor Taldeko Iraunkortasun arduradunak azpimarratu du kooperatibetan urteak daramatzala energia aurrezteko neurriak hartzen, eta, oraintsu, 100 kW-ko instalazio fotovoltaiko bat egin duela Fagor Automationek Eskoriatzan duen lantegiko teilatuan. "Erakundeek hartu dituzten neurriek ez daukate gurean eragin berezirik; bai, ordea, efizientzia energetikoa bultzatzeko aurretik indarrean zeuden legediek", adierazi du Otxandianok.






# Erdira murriztu dira jaiotzak mende erdian

Duela 50 urte, 900-1.000 jaiotza inguru erregistratzen ziren urtean eskualdean; adibidez, 992 haur jaio ziren 1976an. Baina azken urteetan zenbatekoa gertuago dago 400etik; iaz, esaterako, 410 ume jaio ziren

**Uxue Igarza Loiola** DEBAGOIENA

Gaur egun, Debagoienean jende gehiago hiltzen da jaio baino, eta horrek eragin handia du demografian. Eustat Estatistika Erakundeak aste honetan argitaratu ditu iazko jaiotzen zenbatekoak, eta bai Euskal Autonomia Erkidegoak eta bai eskualdeak azken hamarkadako joerari eutsi diote.

Jaiotza-tasa murriztearen atzean askotariko arrazoiak daudela azaldu du Mikel Leizeaga soziologoak. Alde batetik, egoera ekonomikoan jarri du arreta: "Krisiak ziurgabetasuna dakar, eta familiek ondo pentsatzen dute haurrak izan edo ez. Lan arloko segurtasun faltak ere eragiten du". Bestetik, gerrek ere erabakia baldintzatzen dutela dio soziologoak.

Horrez gain, gizartea "aldatu" egin dela azpimarratu du Leizeagak: "Aisialdian jartzen da arreta; jendeak ez du ardurarik hartu nahi (...) Gizartean hedonismoa eta indibidualismoa gailentzen dira".

Eta garai berriekin eta pentsaera berriekin batera "emakumeen papera" aldatu egin dela gaineratu du adituak. "Lehen ez bezala, orain emakume askok egiten dute lan etxetik kanpo eta horrek egoera aldatzen du". Horrez gain, lan esparruko kristalezko sabaia ere nabarmendu du: "Zenbait arduradunek atzera botatzen dituzte haurdun gera daitezkeen emakumeak".

## Pandemiaren eragina tasan

Azken bi urteetako datuak aztertuta, pandemiak ere eragina izan du jaiotza-tasaren beherakadan. Debagoienean azken 50 urteetako daturik apalena erregistratu zen 2020an: 404 jaiotza. Eta iazkoa ere antzeko zenbatekoa da: 410 haur jaio ziren.

EAEn ere, pandemia hasi zen urtean, jaiotza-tasak %4,5 egin zuen behera.

## Beherakadaren ondorioak

Demografia jaitsierak "aldaketa sakonak" ekarriko dituela adierazi du soziologoak. "Lan munduan jende gutxiago badago, gutxiagok ordainduko dute gizarte segurantza, eta, ondorioz, pentsioak okerragoak izan daitezke. Bestetik, herrialde baten ikuspegitik, zenbat eta herritar gutxiago, orduan eta ahulagoa izango da estatua", azaldu du.

MIGUEL ALTUNA Lanbide Heziketa

LANERAKO FORMAZIOA %100 DIRULAGUNTZAREKIN

LEHENTASUNA: LANGILEEK IZANGO DUTE

FABRIKAZIO MEKANIKOA

| | IKASTAROEN IZENAK | ORDUAK | DATAK |
|---|---|---|---|
| FMEH0034HV | SOLDADURA MIG/MAG | 30 | 2022/10/24-2022/11/10 |
| UF0883 | TXIRBIL-HARROKETA BIDEZ MEKANIZATUTAKO PRODUKTUA EGIAZTATZEA | 30 | 2022/10/03-2022/10/19 |
| FMEH0075OH | EGIAZTAPEN TRIDIMENTSIONALA | 30 | ZEHAZTU GABE |
| UF0878 | TXIRBIL-HARROKETA BIDEZKO MEK. ERAGIKETATAN MAKINAK, TRESNERIA ETA ERREMINTAK PRESTATZEA. KONBENTZIONALA | 80 | 2022/10/24-2022/12/05 |
| UF0879 | TXIRBIL HARROKETA BIDEZ PIEZAK FABRIKATZEKO CNC PROGRAMAK PRESTATZEA | 80 | 2022/11/07-2022/12/22 |
| FMEE0035OH | 3D CAM NX CAM PROGRAMAZIOA | 40 | ZEHAZTU GABE |
| UF0453 | FABRIKAZIO MEKANIKOKO PRODUKTUETARAKO IRUDIKAPEN GRAFIKOA. SOLID WORKS | 40 | ZEHAZTU GABE |
| FMEH0005HV | SOLID WORKS II. MULTZOAK | 30 | ZEHAZTU GABE |
| FMEM0032OH | 3D INPRIMAKETAREKIN FABRIKATZEKO DISEINUA | 15 | 2022/10/03-2022/10/10 |
| **ELEKTRIZITATEA ETA ELEKTRONIKA** | | | |
| ELEE003PO | ELEKTRIZITATEAREN OINARRIZKO OINARRIAK | 60 | 2022/10/17-2022/11/22 |
| UF0885 | ETXEBIZITZA-ERAIKINETAN BEHE-TENTSIOKO INSTALAZIO ELEKTRIKOAK MUNTATZEA ETA MANTENTZEA | 80 | 2022/11/28-2023/01/31 |
| FMEM009PO | ROBOTIKAREN OINARRIAK | 50 | 2022/11/07-2022/12/01 |
| OC21200149 | AUTOMATAK PROGRAMAGARRIAK | 60 | ZEHAZTU GABE |
| **ADMINISTRAZIOA ETA KUDEAKETA** | | | |
| ADGD00070V | EXCEL AURRERATUA | 30 | 2022/11/07-2022/11/22 |
| **LEHENTASUNA: LANGABETUAK / GAITASUN ZIURTAGIRIAK / PRAKTIKAK ENPRESETAN** | | | |
| FMEE0109 | TXIRBIL-HARROKETA BIDEZKO MEKANIZAZIOA | 540 | 2022/10/17-2023/04/27 |
| COML0110 | BILTEGIKO JARDUERA LAGUNGARRIAK | 170 | 2022/11/14-2023/01/26 |

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
Fp EUSKADI
Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzua Servicio Vasco de Empleo
Unión Europea

Agirrebidea,2 - 20570 Bergara (Gipuzkoa)
Tel.: 943 89 92 72 – 688 81 50 70 - ikastaroak@maltuna.eus



Ekimenean inplikatutako erakundeetako ordezkariak, asteleheneko agerraldiaren ostean. J.I.

# Abian da Mondragon City Challenge lehiaketa

Zortzi hilabeteko epean proiektu kooperatibo bat sortu eta garatu beharko dute batxilergoko, heziketa zikloetako eta unibertsitateko ikasleek, taldeka. Bigarren edizioa du lehiaketak, eta munduko edozein tokitako gazteek parte hartu ahalko dute

**Julen Iriondo M. de Zuazo** ARRASATE

Urriaren 18an amaituko da izena emateko epea –ekimenaren webgunean: *www.mondragoncitychallenge.com*–, eta, ordurako, parte hartu nahi duten taldeek –bi eta lau pertsona artekoak– euren proposamena aurkeztu beharko dute, gehienez, hogei lerrotan. Izen-emate epea amaituta, hogei proiektu aukeratuko ditu epaimahaiak, eta horietako taldekideek prestakuntza jasoko dute, proiektuen kalitatea handitzeko. Parte-hartzaileek aurkeztutako ideia garatu beharko dute gero, tutoreen laguntzarekin. 2023ko otsailaren 8a eta martxoaren 8a artean epaimahaiak kategoria bakoitzeko sei talde finalistak aukeratu eta apirilaren 21ean egingo da, Amaia antzokian, Mondragon City Challenge lehiaketaren finala. Finalistek euren proiektuaren defentsa egin beharko dute Amaian.

Ekimenaren lehen edizioan zazpi herrialdetako 84 taldek hartu zuten parte. "Gazteek erakutsi zituzten oso maila altua eta kalitatezko proiektu handiak. Horietako batzuk, gainera, kooperatiba bilakatu dira, eta hori oso berri ona da, eta argi azaleratzen du horrek izan dituela ondorioak, ondorio positibo eta ukigarriak", adierazi zuen Arrasateko alkate Maria Ubarretxenak astelehenean Kulturaten egindako aurkezpenean.

### Sari politak

Eusko Jaurlaritzako Gizarte Ekonomiako zuzendari Jokin Diazek, berriz, adierazi zuen ekonomia soziala eta kooperatibismoa "iraganean eta orainaldian arrakasta izandako eta duen formula" eta "etorkizunerako erreferentea" direla: "Proiektuen ekintzaileetzan modu kolektiboan jarduteak hobeto egokitzeko aukera ematen du energia, ingurumen, digital eta soziosanitario arloetan bizi ditugun aldaketetara. Inork zalantzarik bazuen, azken krisiak erakutsi du etorkizunerako apustua dela".

**MU, MONDRAGON ETA ERAKUNDE PUBLIKO NAGUSIAK DAUDE ANTOLATZAILEEN ARTEAN**

Lehiaketako sariak izango dira Berlinera bidaia 16 eta 18 urte artekoetan eta AEBetara bidaia 19 eta 24 urte artekoetan. Horrez gain, finalista ez diren parte-hartzaileen artean proiektu berritzaileena erearituko dute, 800 eurorekin. Ekimenaren antolatzaileak dira Arrasateko Udala, Eusko Jaurlaritza, Gipuzkoako Foru Aldundia, Euskadiko Kooperatiben Kontseilu Gorena, Euskadiko Kooperatiben Konfederazioa, Mondragon korporazioa eta Mondragon Unibertsitatea, eta laguntzaile ditu Nazioarteko Aliantza Kooperatiboa, ASEkoop, Saiolan, Azaro fundazioa eta Arizmendiarrietaren Lagunak Elkartea.

# Ikasturte berriarekin, bueltan dira pentsiodunen aldarriak

Gutxieneko pentsioa 1.080 eurokoa izatea eta KPIaren igoera "erreala" izatea eskatu dute egindako bilkuretan

**J.I.** ARRASATE

Duela ia bost urte abiarazitako pentsiodunen borrokak ez du etenik, eta Debagoieneko hainbat herritako plazek bilkurak hartu dituzte, berriro ere, udako etenaldiaren ostean. Hilabete guztien KPIaren batez besteko indizea erabili beharrean, ordainsariak KPI "errealaren" arabera eguneratzea nahi dute pentsiodunen elkarteek.

Horretarako, milaka sinadura batu dituzte Euskal Herrian zehar, eta urriaren 15ean Madrilen egingo duten elkarretaratzean Kongresuko talde parlamentario guztiei entregatuko dizkiete. Bestalde, inoiz baino gehiago, gutxieneko pentsioa 1.080 eurokoa izatea ere aldarrikatzen dute.

### Alargunen pentsioak

Gizartea jasaten ari den inflazioarekin, gainera, bizi-kalitatea okertu egin dela salatzen dute; are gehiago, pentsio baxua duten pertsona eta familien kasuan. Esaterako, emakume alargunen pentsioa %100 izan dadin eskatzen dute, egun, batez beste, gizonezkoenarekin alderatuta %30 baxuagoa baita. Beste aldarrikapen batzuen artean da, baita ere, osasun eta zaintza publiko eta kalitatezkoak izatea. Bestalde, iragan astelehenean Arrasateko plazan egin zuten bilkuran Arrasateko lorezainei –greban daude uztailetik– babesa eman zieten pentsiodunek, eta haiek atzorako deitutako manifestaziora joatera animatu zituzten herritarrak.

Arrasaten bakarrik ez, Debagoieneko beste herri batzuetako plazetan ere elkartu ziren pentsiodunak aste hasieran; Antzuolan, Oñatin eta Bergaran egin zituzten bilkurak, esate baterako.



Arrasateko asteleheneko bilkura. IÑIGO BARRENA KORTABARRIA

## Ignaziotar Lurraldeko eskualdeko 'Ezkutuko altxorrak' bisitagai

Mankomunitatearen eskutik, Oñatin XVI. mendeko erretaulak ezagutzeko bisita izango da bihar, zapatua, 11:00etan Turismo Bulegotik abiatuta. Arrikrutzera bi bisita egongo dira: bihar, 10:00etan, euskaraz, eta domekan, ordu berean, gaztelaniaz. Elgetan, Donejakue bideko baselizetara izango da bisita, bihar, 10:00etan, Madalenako ospitaletik abiatuta –hiru ordu–. Ordubete geroago hasiko da *Bergara monumentala* bisita, Laboratoriumen. Arrasateko San Juan Bataiatzailea eliza ezagutzeko bisitak, berriz, domekan izango dira: 11:00etan euskaraz eta 12:15ean gaztelaniaz –plazatik abiatuta–. Azkenik, *Ignaziotar Lurraldea Vasco-Navarro bide berdearen ibilbidetik* izeneko bisita –hiruzpalau ordu– irailaren 25ean egingo dute, 09:00etan, tren geltokitik. Izena: *infoturismo@debagoiena.eus* eta 943-79 64 63.

# Martxan da Itsaraz parke eolikoaren proiektua

Eskoriatza eta Aramaio artean eraiki nahi du Statkraft enpresak parke eolikoa. Dena den, Eskoriatzako alkateak adierazi du ez dutela informaziorik, eta Aramaion gaur elkartuko da Udal Gobernua. Fagorrek, berriz, harremana izan du konpainiarekin

**Amaia Ramirez de Okariz Kortabarria** DEBAGOIENA

Statkraft enpresak Itsaraz parke eolikoa sortzeko asmoa duela iragarri du, Aramaio eta Eskoriatza artean. Energia berriztagarrien ekoizpenean liderretako bat da enpresa norvegiarra, eta, emandako datuen arabera, parkeak 52,8 megawatteko gaitasuna izango luke; horri esker, 44.000 etxe baino gehiago hornitu ahalko lirateke, eta, 2027rako eginda egotea espero da. Baina badirudi informazioa ez dela guztiengana iritsi.

Joserra Zubizarreta Eskoriatzako alkateak jakinarazi duenez, Udalarekin ez da inor harremanetan jarri; ez, behintzat, enpresak berria eman aurretik. "Dakigun gauza bakarra da hedabideetan agertu dena. Ezer gutxi esan dezaket". Aramaioko Udal Gobernua, berriz, gaur batuko da gaia aztertzeko.


Parke eolikoak 44.000 etxe hornitzeko gaitasuna izango luke. STATKRAFT

Hala ere, eskualdean harreman batzuk eginak ditu jada konpainiak, Aritz Otxandiano Fagor taldeko iraunkortasun arduradunak azaldu baitu beraiekin egon direla parke eolikoaren egitasmoan parte hartzeko aukerak aztertzeko. Haren arabera, ez dute asko sakondu, ez dute informazio zehatzik, baina badute prestutasuna "eredu berriak eskaintzen dituen aukerak esploratzeko".

**Herritarrak, antzera**

Herritarrek ere komunikabideetatik izan dute proiektuaren berri. Aizpea Ajuriagerra aramaioarra da horietako bat. "Baserri inguruan bizi naiz, eta ez nago ados etxe ondoan eolikoak jartzearekin; dena apurtzen dute". Haren esanetan, ez da inor harekin harremanetan jarri.

Ordea, badira aldeko iritziak ere, hala nola "aurrerapena" ekar dezaketela ondorioztatuta. "Onerako izango da, mesede egingo digu, eta uste dut jendeak ez duela aurkakorik esango", adierazi du Antonio Largo eskoriatzarrak. Eta ildo beretik eutsi dio Pedro Jose Legorburu herrikideak ere. Haren arabera, "gerora begira" egokia izango da, herritarrek "ez dutelako horrenbeste ordaindu beharko".

**Gatazka sor daiteke**

Statkraft enpresaren arabera, gizarte partaidetzaren alde diharduen lanean, eta, beraz, tokiko komunitate energetikoak bultzatuko dituzte herritarrek energia "kostu baxuagoan" eskuratu dezaten, "ahal dela".

Esanak esan, Zubizarretak azpimarratu du "hipotesi bati buruz" ari direla hitz egiten, eta, beraz, enpresa eurekin harremanetan jarriz gero, orduan baloratuko dutela ea irisgarria den ala ez. Baina uste du gatazka egon daitekeela. "Inork ez du gogoko inguruan horrelako zerbait jartzea, baina argi daukat energetikoki autosufizienteak eta burujabeak izatea inportantea dela; oreka behar da".





ZABALIK

AGURNE JULDAIN

# Arantzazura bueltan

2019an izan zen Arrasate Herriak Arantzazura egindako azken erromesaldia. Egun berezia Arrasate Herriarentzat; nola ez, fededunontzat, bereziki, baina herriarentzat, orokorrean.

Parrokiak antolatutako ekintza da, herriarentzat antolatutako ekintza, fededuna izan edo ez, inongo ezberdintasunik egin gabe.

Aurten, irailaren 11n ospatu dugu eguna. Bertan izan gara zenbait herritar. Berezia izaten da erromesak heltzean bertan Udaleko ordezkariek eta Arantzazuko fraideek egiten diguten ongietorria. Elkarrekin egoteko aukera bikaina.

Aurten mezetan entzundakoak barruak astindu dizkit. Hilabete exkax daramat publikoki politika munduan eta bizitzen ditudanak benetan sinestezinak dira une askotan.

Kritika onargarria da. Noski kritikak onartu behar ditugula gure egunerokotasunean. Nik onartzen ditut, baina onartzen ditut konstruktiboak, ez suntsitzaileak. Kritika horiek errespetuz eta gizarte hobeagoa lortzeko helburuarekin egindakoak izaten badira, zergatik ez? Pertsonari min egiteko bakarrik egindako kritikak ez ditut onartzen.

**EZ DUT USTE INORK GAIZKI EGITEKO HELBURUAREKIN LAN EGITEN DUENIK MUNDU HONETAN**

Ez hori bakarrik. Gaizki egindako zerbaiten aurrean errespetuz egindako kritika baldin bada eta zuzentzeko ideiarekin baldin badator, oso ondo. Baina errespeturik ez eta min egiteko helburuarekin egindako kritikak gaizki egindakoaren aurrean, proposamenik ez dakarren kritika bat, ez dut onartuko.

Egiten den guztia ez dago ondo; ez noski. Baina egiten den guztia gaizki egitea, hori bai meritua!

Zorionekoak gu zuzentzeko aukera dugulako, zorionekoak gu lanean jarraitzeko indarrez beteak gaudelako, zorionekoak gu entzunak eta ikusiak kudeatzen dakigulako!

Ez ahaztu kritikatzen ditugun horiek senide eta lagunak dituztela. Ez ahaztu lanean dauden horiek herriak aukeratu dituela. Ez ahaztu gaur bertan daudenak bihar, agian, ez direla egongo, zu zaudelako.

Errespetuarekin dena da onargarria, noski, baina ez dut uste inork gaizki egiteko helburuarekin lan egiten duenik mundu honetan.

MARRAZKIZ

ALEX UGALDE



GUTUNAK

## Eskerrik asko, Aretxabaleta!

**AGURTZANE ELKORO**
UDA KIROL ELKARTEKO PRESIDENTEA
ARETXABALETA

75 urte betetzen ditu UDA Kirol Elkarteak aurten, eta, urteurrenarekin batera, UDA osatzen dugun guzti-guztiok ilusioz ekin genion urteko egitarau oparoa antolatzeari.

Ez dira gutxi izan urtean zehar aurrera eramandako ekimenak, hala nola dokumentala, Genuine Ligako partiduak, UDA poteak, UDA eguna (Gozategirekin), Ikazkin Trail mendi lasterketa… Azkenengo honek, esaterako, sekulako arrakasta izan du bai herri mailan eta baita Euskal Herri mailan ere. Benetan egun berezia bizi izan genuen, eta aitortu beharra dago herritar guzti-guztion inplikazioak ahalbidetu zuela ekimena behar bezala ospatzea.

Mila esker denoi, bihotz-bihotzez.

Eskerrik asko, Dorleta, Ainara, Iñaki eta Julen, dena mimoz zaintzearren, gure inguruak Euskal Herri guztiari erakustearren. Esker mila boluntario guztiei, banaka-banaka, ibilaldiko izkina bakoitzean zuen indar eta gogoa eskaintzearren. Labur-labur esanda: eskerrik asko, Aretxabaleta!

## Lurrak ez du zuen zikinkeria irensten

**MIKEL ARANTZABAL**
EIBAR

Laranja-azalak, platano-azalak, mukizapiak… zer ez den ikusten mendian. Jendeak uste du mendiek eta basoek dena xurgatzen dutela, hondar organikoak nonahi bota daitezkeela eta egun gutxiren buruan lurrak irentsiko dituela.

Ez dakit pandemiari *esker* den –lehen mendira joaten ez zirenak– edo beti izan den horrela, baina naturak ez ditu horrelakoak merezi.

Eta mendian gurutzatu eta elkar ez agurtzearena… beste baterako utziko dugu.

goiena KOMUNIKAZIO TALDEA
www.goiena.eus

**Argitaratzailea**
Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartea
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

**Lehendakaria**
Monika Belastegi.
**Zuzendari nagusia**
Iban Arantzabal.
**Eduki zuzendaria**
Eneko Azkarate.

**Erredakzio batzordea**
Eneko Azkarate, Monika Belastegi, Mirari Altube.

**Zuzendari komertziala**
Mireia Larrañaga.
**Administrazio zuzendaria**
Agurtzane Gaintzarain.

**Diseinu arduraduna**
Iñaki Iturbe.
**Hizkuntza arduraduna**
Sergio Azkarate.
**Harpidetza eta banaketa arduraduna**
Igone Osinaga.

**Sailetako arduradunak**
Xabier Urzelai (Kirola),
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).
**Maketazioa**
Imanol Soriano,
Aitor Lagoma,
Amaia Martinez de Arenaza.
**Publizitatea**
Mireia Larrañaga, Ziortza Martin, Amaia Mundiñano.

**Administrazioa**
Ane Berezibar, Iratxe Bengoa, Nerea Artola.

**HARPIDETZA**
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
*harpidetza@goiena.eus*

**PUBLIZITATEA**
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
*publi@goiena.eus*
**EGOITZA NAGUSIA**
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp:
688 69 00 07
*berriak@goiena.eus*

**Lege Gordailua:** SS-965/2014
**ISSN:** 2174-369X
**Tirada:** 19.000 ale
**Difusioa:** 18.723 ale

**Inprimategia:**
Zeroa Multimedia

GOIENAk ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK

Arrasateko Udala, Bergarako Udala, Oñatiko Udala, Aretxabaletako Udala, Eskoriatzako Udala, Antzuolako Udala, Aramaioko Udala, Elgetako Udala, Leintz Gatzagako Udala

Gipuzkoako Foru Aldundia

BERBAGAI

# "Suizidioak pertsona zaurgarriengan eragiten du"

**ALEXANDER MUELA** PSIKOLOGIAN DOKTOREA ETA EHU-KO PSIKOLOGIA IRAKASLEA

**Larraitz Zeberio Lekuona** BERGARA

Gazteen suizidioa prebenitzeko terapia bat garatu du EHUko ikertzaile talde batek. Bultzatzaileen artean da Alexander Muela (Bergara, 1974).

**Iaz, 148 suizidio zenbatu ziren Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan. Datu orokorrak dira. Gora edo behera doa intzidentzia?**

Azken urteetako datuak nahiko egonkorrak dira. Horrek ez du esan nahi arazoa mantentzen ez denik. Suizidio bakoitzaren atzean min handia dago. Denon artean dauden estrategiak mantendu eta berriak sortu behar ditugu.

**Suizidioa gai tabua da gizartean. Gaiaz gehiago hitz egiteak lagundu egingo luke?**

Gizarteratu egin behar da suizidioaren gaia. Horrela lortuko duguna da suizidio arriskuan dauden pertsonek laguntza bilatzeko aukerak areagotzea. Ikusten badute gaiari buruz hitz egitea posible dela eta, gainera, posible dela laguntza lortzea, asko aurreratuko genuke. Badaude suizidio jokabideetatik irten diren pertsonak, eta interesgarria litzateke ahotsa ematea, azaldu dezaten zein izan den beraien esperientzia eta nola egin duten arazo horretatik ateratzeko.



Alexander Muela. L.Z.L.

**Gazteen suizidioa prebenitzeko terapia bat garatu duzue.**

Esan behar da terapia honek suizidio jokabideetan jartzen duela fokua; ez dago eginda psikopatologia bat aldatzeko ikuspegiarekin. Jokabide suizidak dituzten gazteei laguntzen diegu sentitzen dutena ulertzen, krisi egoerak identifikatzen, eta azaltzen diegu horietan nola jokatu eta laguntza non bilatu... Txakurrekin egiten ditugu esku-hartzeak, ikusi dugulako txakurrek asko hobetzen dutela erlazio terapeutikoa. Horrek aukera ematen du terapiaren edukiak hobeto barneratzeko. Baina txakurrik gabe ere egin daiteke.

**Zer lantzen duzue esku-hartze horietan?**

Suizidioak eragiten du, batez ere, pertsona zaurgarriengan, eta suizidioaren inguruan mito asko dituzte gazteek. Horiek deuseztatzen saiatzen gara. Suizidio jokabide baten atzean sufrimendua dago beti; ez dago ezer erromantikorik. Arrisku faktoreen inguruan ere hitz egiten dugu –droga kontsumoa, bizitza estiloak, mina kudeatzeko jokabideak...–.

**Gazteen artean suizidio tasak handiak dira?**

Suizidioak, tamalez, 8-9-10 urtetik aurrera gertatzen dira. Gutxi, baina gertatzen dira. Eta 13-14 urtetik aurrera datuak asko areagotzen dira. Gainera, gazteen artean kutsatze-efektua askoz ere nabarmenagoa da. Batek saiakera bat egiten badu edo autolesioak egiten baditu, erraz kutsatzen da. Horregatik, prebentzio-programak egitea garrantzitsua da, eta, ahal dela, 12-13 urterekin egin beharko lirateke.

**Terapiak interesa piztu du atzerrian. Pozik egongo zarete.**

Sekulako poza eta sorpresa izan da. Gehienetan, inportatu egiten ditugu horrelako programak, eta, kasu honetan, kontrakoa izango da. Suizidioak, tamalez, ez du mugarik ezagutzen. Nazioarteko aldizkari batean argitaratu genuen terapiaren berri, eta Eskoziatik zein Israeldik deitu digute programa abiarazteko interesarekin.

**Eta hemen, etxean, nola gabiltza osasun arlo honetan?**

Normalean, halako programak ez daude osasun publikoan txertatuta. Trataera gehiago da ikuspegi psikiatrikotik. Nazioartean egindako ikerketek erakutsi dute, ordea, oinarrizko psikopatologietan soilik zentratzea ez dela nahikoa arazoa zuzentzeko. Gure pazienteek askotan esaten dute ez direla ulertuak sentitzen.

ITURRI ONETIK

## Erreka garbiketa urriaren 15ean

Deba ibaia auzolanean garbitzeko ekimenak egin dituzte udalek eta eragileek azken urteotan. Hain justu ere, 10 urte bete dira hainbat herritan errekak garbitzen hasi zirela. Hori horrela, ekimen bateratua iragarri dute aurtengo urriaren 15erako. Eskualdeko herri guztietan, aldi berean, errekak auzolanean garbitzea da helburua. Laster irekiko dute izen-emate epea. *Debagoienean, auzolanean errekak bizi, ekimena* leloa jarri diote. Goienak eduki bereziak sortuko Deba ibaiaren inguruan.

ALBISTE IZAN ZEN



GOIENA

2006-09-17

## EAren 20. urteurrena ospatu zuten Arrasaten

Alderdia sortu zeneko 20. urteurrena ospatu zuen EAk Arrasaten, Alkartasun Egunean. Uarkapen egin zuten ekitaldi nagusia. Alderdia batuta agertu zen, nahiz eta 2007ko udal eta foru hauteskundeetan EAJrekin batera ez aurkezteko erabakiak alderdi barruan ere kontrako iritziak jaso zituen. Independentzia eta sozialdemokrazia aldarrikatu zituzten Begoña Errazti presidenteak eta gainerako buruek.

HAU BE BADOGU!

## Parke eolikoak eta haien kudeaketa

Norvegiako Statkraft enpresa publikoak Euskal Herrian bi parke eoliko bultzatuko dituela iragarri izanak zeresana eman du –bat, Eskoriatza eta Aramaio artean–. EH Bilduk ez ditu baztertu proiektuak. Mikel Otero *@otero_mikel* legebiltzarkideak esan du: "Klima-aldaketaren ondorioen aroan gaude, eta gure gizarte –eta ekonomia– sarea errealitate berrira egokitu behar dugu".

Erantzunak: *@etxondoko:* "Zergatik Statkraft? zergatik ez Aldundiak berak 90 milioiko inbertsio hori berak egin eta irabazi energetiko guztiak gipuzkoarrentzat?".

D2030: ELKARRIZKETA



Andres Mazkiaran, lantegian. A.M

# "Aztarna ekologikoa uzten jarraitzen dugu, eta hori konpentsatu egin beharko dugu"

**ANDRES MAZKIARAN** SORALUCEKO PRESIDENTEA

Debagoiena 2030 ekimenak bidelagun du Osintxun kokatuta dagoen Soraluce kooperatiba. Elkarrekin eraldaketa sozialean ekarpena egiteko konpromisoa dute

**Miren Arregi** BERGARA

Besteak beste, tokiko garapena eta eraldaketa bultzatzeko ahaleginak eraman du Soraluce enpresa gaur egun dagoen tokira. Andres Mazkiaran da presidentea.

**Soraluce kooperatibak eraldaketa sozialarekin duen harremanaz galdetuko banizu, zer esango zenuke?**

Eraldaketa sozialarekin daukagun konpromisoa bereziki lotzen dugu kalitatezko enpleguaren sorrerarekin. Izan ere, enplegu kooperatibistaren sorrera bera da gure ekarpenik handiena. Hala ere, gizartera beti egin izan ditugu bestelako ekarpenak ere. Esaterako, gu Osintxun kokatuta gaude eta Osintxu auzo degradatu moduan dago izendatuta. Horri buelta bat emateko eta auzoaren eta auzotarren egoera hobetzeko badihardugu bai auzotarrekin eta baita Udalarekin ere proiektuak definitzen.

**Osintxun etxebizitzen eraberritzea bultzatuko duen proiektu bat badu esku artean Debagoiena 2030 ekimenak, Debagoiena Eraberritzen deiturikoa.**

Hala da, eta gu ere horixe sustatzen ari gara. Bilerak antolatzen Suradesarekin eta auzotarrekin... Lantalde polita sortu da eta ari gara helburu batzuen inguruan lanean. Egun batetik bestera ez da auzoa eraldatuko, baina poliki-poliki badihardugu.

**Eraldaketa sozialarekiko konpromisoa zein alorrekin lotutakoa da Soralucen? Euskara, emakumeak, inklusioa, klima...**

Egia da azken urteetan, eta bereziki pandemiatik, oinarrizko beharrekin lotutako proiektuak bultzatzen dihardugula. Garai batean, agian, kirolarekin lotutakoak sustatzen genituen, eta orain, aldaketa bat gertatu da. Caritasekin, elikagaien bankuarekin... dihardugu elkarlanean. Euskara eta berdintasuna ere badaude gure irizpide nagusien artean, baina orain bai egin dugu ongizate sozialaren aldeko lanketa bat.

**Eredu eta balio kooperatiboek zein pisu dute lantaldean?**

Ez da erraza, baina egiten ditugu eredu kooperatiboaren inguruko lanketak eta horiek enpresan txertatzeko ahaleginak. Alde batetik, bazkide direnek badute kooperatiben funtzio sozialaren gaineko formakuntza eta ezagutza bat. Eta saiatzen gara langileen parte-hartzea eskatzen duten proiektuak garatzen. Esaterako, une honetan badugu Itsas Argia izeneko proiektu bat. Horren baitan, datozen urteetarako gure norabidea definitu gura dugu eta helburu moduan jarri dugu 2030. urtea. Proiektu horretan langileen kopuru handi bat dago inplikatuta eta horren baitan kooperatiben historia, bilakaera, sortzaileen konpromisoa eta halako gaiak ere lantzen ditugu.

**Zer-nolako helburuak ditu proiektuak?**

Zerbait transbertsala da. Produktua, merkatua... eta, tartean, ingurunearekiko dugun konpromisoa ere aztertzen dihardugu.

**Zein lanketa egin duzue klimaren arlo horrekin lotuta?**

Ekodiseinuarekin aspaldi hasi ginen lanean eta aspaldi daukagu ISO 14.006 delakoa, Ekodiseinua Kudeatzeko Sistemaren Ziurtagiria. Bestetik, eraikin berria egiten ari gara. Eraikin jasangarria izango da eta datorren martxorako bukatuta izatea nahi genuke. Horren baitan, LEED ziurtagiria eskuratzea da gure helburua, jasangarritasunarekin lotutakoa. Eraikin berriko isolamendua hobea izango da eta eguzki plakak ipiniko ditugu kontsumoa orekatzeko. Horrez gain, Danobat taldearen baitako eraikinetan ere badihardugu eguzki plakak ipintzen. Modu horretara, behar den energiaren %30 inguru eguzki plakek sortua izango da.

**Industriak, orokorrean, zein aukera ditu bere baitan trantsizio ekologiko hori egiteko?**

Urratsak egin beharko dira, zalantzarik ez. Etorriko zaizkigu eskaerak ere; dagoeneko bezero batzuek eskatzen digute gure makinak CO2 neutroak izatea. Horretarako, ekodiseinuan egindako lan guztia ondo datorkigu. Hala ere, aztarna ekologikoa uzten jarraitzen dugu, eta hori konpentsatu egin beharko dugu. Efizientzia energetikoan aurrerapausoak ematea ezinbestekoa da, eta guk horretan aspalditik dihardugu; bereziki, produktuari lotuta. Dena den, uste dut legediak ere zorrotzagoak izatea eskatzen duela gai honek.

**Zein balio ikusten diozu Debagoiena 2030 ekimenari berari?**

Esango nuke D2030 ekimenak bidea erakuts diezagukeela eta bidelagun interesgarria izan daitekeela. Nik uste dut, gainera, proiektuak sortzeko aukera handiak dituela eta guretzat gidari izan daitekeela.

**Baikorra zara etorkizunari begira? Gai izango gara aurrean ditugun erronka potoloei egoki erantzuteko?**

Baikorra naiz, orokorrean, baina gai honekin lotuta zailtasunak handiak direla ikusten dut. Esaterako, tokian eta txikitik eginda lortzen diren inpaktuak txikiak dira, nahiz eta uste dudan ezinbestekoa dela tokitik eragitea. Politikarien esku ere bagaude, euren esku baitago bestelako erabaki batzuk hartzea. Mundu mailako erabakiak izan behar dute. Ukrainako gerraren kontuarekin, Europan ikatza erretzen hasi gara berriz. Begira zein azkar egiten den atzera, aurrera egitea kostatzen denarekin.

**"OINARRIZKO BEHARREKIN LOTUTAKO PROIEKTUAK BULTZATZEN DITUGU"**

**"ERAIKIN BERRIKO ISOLAMENDUA HOBEA IZANGO DA ETA EGUZKI PLAKAK ERE IPINIKO DITUGU"**

# 18. UDAKO ARGAZKIEN GOIENA LEHIAKETA

## egin klik!

**Irailaren 19a, astelehena, da parte hartzeko azken eguna. Animatu zaitez!**

Lehiaketan parte hartzeko bidali zure argazkiak posta elektronikoz ***(argazkiak@goiena.eus)*** edo Whatsapp/Telegram bidez **(688 69 00 07)**. Lehiaketaren oinarriak irakurri eta sariak ezagutzeko, sartu ***Goiena.eus*-en**.

Eta adi egon! **Irailaren 23tik irailaren 28ra Publikoaren Saria** aukeratzeko epea zabalduko dugu.



**Eivissan ilunabarra** | Argazkia: Joseba Gonzalez de Martin (Aretxabaleta)



**Peñiscola** | Argazkia: Irene Ruiz (Bergara)



**Maraseko gatz arana** | Argazkia: Garazi Garitaonaindia (Arrasate)



**Serengeti parke naturalien safarixa** | Argazkia: Iratxe Arrese Unamuno (Eskoriatza)



**Cotella de Palafrugell** | Argazkia: Uxue Larrea Arocena (Elgeta)



**Respomusso, Huescan** | Argazkia: Lurdes Hernando (Antzuola)



**Lezeagako arroka eskalatzen** | Argazkia: Julen Abarretegi Leza (Aramaio)



**Inauza, Huesca** | Argazkia: Joseba Garai (Arrasate)



**Biescas** | Argazkia: Izaskun Arrese (Arrasate)



**Txuri-urdin maitea** | Argazkia: Odei Vazquez (Aretxabaleta)

**Argazki guztiak kanal berezi honetan:** ***https://labur.eus/uda-koargazkiak-2022***

**ANTOLATZAILEA:** goiena KOMUNIKAZIO TALDEA

**LAGUNTZAILEAK:** EROSKI ARRASATE | GURE AMETSA Restaurante · Jatetxea | BERGARA EREIN DA JAN | Halcon BIDAIAK ARRASATE BERGARA



Blanca Jauregi, Maitane Muñoz, Leire San Vicente eta Amaia Arregi, gazteleku berriaren kanpoaldean. E.A.


Txatxilipurdiko langileak eta bazkide boluntarioak, Ozetan (Araba). T.E.

## Hasiera, Garaion Sorgingunean

Txatxilipurdi Elkarteko langileeta eta bazkide boluntarioek elkarrekin hasi dute ikasturte berria, Ozetan. Aurten ere, zutabe dituzten balioen transmisio lanean segiko dute: "Feminismoa, aniztasuna, euskaltzaletasuna, parte-hartzea, inklusioa eta heziketa berdea".

# Gazteleku berria dute nerabeek

Asteon abiatu dute 2022-2023ko ikasturtea ludotekek eta gazte txokoek eta gaur izango da gazteleku berriaren txanda; Nafarroa etorbideko tren geltoki zaharrak zerbitzu hori emango du eta nerabeekin diseinatu gura dituzte gunearen itxura eta antolamendua

**Eneko Azurmendi** ARRASATE

Espazio berri batekin abiatuko dute ikasturtea 12 eta 17 urte arteko nerabeek. Izan ere, Pablo Uranga kaleko gaztelekuak eskaintzen zuen zerbitzua Musakolan eman dute azken urtebetean, baina, aurrerantzean, Nafarroa etorbidean egongo da gaztelekua, tren geltoki zaharrean. Eraikinaren zati bat hartuko dute zerbitzu hori eskaintzeko: beheko solairuko gune bat eta lehenengo solairu osoa.

Edozelan ere, gune berria hutsik dago oraindik eta nerabeekin batera hornitu eta antolatu gura dute. Hori dela eta, gaur eta bihar jardunaldi batzuk egingo dituzte, 18:00etan eta 18:30ean hasita, hurrenez hurren, eta 12 eta 17 urteko nerabeei dei egin diete horietan parte hartzeko. "Nerabeek eurek erabakiko dute espazioa nola apaindu gura duten eta ze antolaketa izango duen. Azken batean, inportantea da haiek gustura egotea eta espazioa haiena sentitzea", azaldu du Maitane Muñozek, Gazteria Saileko zinegotziak. "Udalak azpiegitura eta baliabideak jarri ditu, baina nerabeek egingo dute gainontzekoa".

### Nerabeen beharretara egokituta

Leire San Vicente gazte txoko zerbitzuko koordinatzaileak gaineratu du funtsezkoa dela lan hori elkarlanean egitea. "Urteen poderioz, konturatu gara espazioa ez dela bakarrik dekorazio bat, baizik eta helburuen transmisioa gauzatzeko ere balio duela. Horregatik, nerabeekin diseinatu gura dugu gazteleku berria".

**GAUR, EGUBAKOITZA, 18:00ETAN ABIATUKO DUTE ASANBLADA IREKIA; BIHAR, BERRIZ, 18:30EAN**

Modu horretan, beheko espazioan "elkargune goxo bat" jarriko dute gaur eta bihar, "lasai hitz egiteko aukera" eskainiko duena, San Vicentek azaldu duenez. "Era berean, ping-pong bat ere jarriko dugu, haren bueltan elkarrizketa asko izaten direlako modu informalean eta bitarteko aproposa delako bileretan parte hartzera ohituta ez daudenen ahotsak jasotzeko".

Goiko solairuan, bestalde, eraikinaren planoak jarriko dituzte eta marrazkiak ere bai, balizko gune batzuekin. "Hala, asmoa da nerabeak euren plano propioak sortzen joatea eta espazioa nola jantzi gura duten zehazten joatea. Beraz, jasotzen ditugun plano guztiak aztertu egingo ditugu eta gaztelekua forma hartzen joango da ikasturtea aurrera doan heinean". Horrez gain, mahai-jolasak eta bestelako elementuak ere jarriko dituzte: "Jolasa gure egunerokoan bitarteko garrantzitsu bat delako".

Astean zehar, Musakolako, San Andresko eta Erguingo gazte txokoek ematen diete zerbitzua 12 eta 17 urte arteko nerabeei, martitzenetik egubakoitzera, 17:00etatik 20:00etara. Asteburuetan, berriz, gaztelekua izango dute zabalik, egubakoitzetan 18:00etatik 21:00etara eta zapatuetan eta domeketan 17:00etatik 21:00etara.

### Ludotekak ere martxan dira

3 eta 11 urte artekoei zerbitzua ematen dieten ludotekak, aldiz, astelehenetik egubakoitzera egongo dira zabalik, 17:00etatik 20:00etara, eta horiek ere hiru dira: Usaetxekoa, Santa Marinakoa eta Okendokoa.

Ludoteken kasuan, izena eman behar da zerbitzua jasotzeko. Hala ere, irailean sarrera librea izango da. "Hain zuzen ere, hilabete hau baliatu gura dugu herritarrei zerbitzuaren berri emateko eta, urteroko erabiltzaileez gain, familia berriak ludoteketara erakartzeko", adierazi du Amaia Arregik, ludoteka zerbitzuko koordinatzaileak.

**LUDOTEKA ZERBITZUA DOAKOA IZANGO DA IRAILEAN ETA KALEAN ERE ESKAINIKO DUTE 20AN, 27AN ETA 29AN**

Hori dela eta, hiru egunetan kalera aterako dira: irailaren 20an Santa Marinan egongo dira irailaren 27an Uribarri auzoan eta 29an erdigunean, 17:00etatik 19:00etara. Egun horietan ludotekak itxita egongo dira, zerbitzua kalean eskainiko baitute.

Urritik aurrera, izena eman beharko da zerbitzua jasotzeko, eta bi izen-emate mota egongo dira: hiruhilekoa (10 euro) edo ikasturte osokoa (30 euro).

### Aisialdi hezitzailea ardatz

Ludotekek, gazte txokoek eta gaztelekuak helburu eta planteamendu berberak dituzte. "Guztietan, bilatzen duguna da haurrei eta nerabeei aisialdi hezitzaile bat eskaintzea, noski, ondo pasatuz eta harremanak eginez", dio Blanca Jauregik, Gazteria Saileko teknikariak.

Zerbitzu horien bitartez hainbat balio sustatu gura dituztela gaineratu du: "Errespetua, aniztasuna, autoestimua, baliabide sozialak garatzea eta, oro har, pertsona kritikoak eta aktiboak izatea". Era berean, zeharkako hiru lerro dituztela nabarmendu du: berdintasuna, aniztasuna eta euskara. "Kalitatezko zerbitzua eskaintzea lehenesten dugu, aukera berdintasunarekin, herriko haur eta nerabe guztiendako irisgarria izan dadin".

# Emakume Txokoan, zaku bete saio udazkenean

Hogei hitzaldi, ikastaro eta ekintza antolatu dituzte urritik abendura bitartean Udaleko Berdintasun Sailak eta Emakume Txokoak. Hilaren 29an, ikasturte hasierako ekitaldia egingo dute. Jabetza Eskolako formakuntzetan hilaren 19tik 23ra eman daiteke izena

**Hasier Larrea** ARRASATE

Indarkeria matxistari aurre egin eta hausnarketa feminista sustatzen jarraituko du 2022-2023ko ikasturtean Emakume Txokoak. Dagoeneko hasi dira egoitzan bertan informazio, arreta eta aholkularitza zerbitzua eskaintzen; horren adibide da emakumeei zuzendutako Doako Informazio eta Orientazio Juridikoaren Zerbitzu berritua.

Irailaren 29an, udazkeneko plangintzaren aurkezpen ekitaldia egingo dute, 18:30ean. Bertan Pepa Bojo Ballester psikologo eta sexologoak egingo du berba, *Zer eragin du ahalduntzeak emakumeon bizitzetan?* galderari tiraka; solasaldian, gainera, Beatriz Egizabal Ollokiegi artistak *klownklusio* propioak aterako ditu, umoretik.



Johanna Sanchez eta Esther Lizarralde, egitarauarekin. H.L.

**Ohikoari berria gehitu**

Jabetze Eskolari dagokienez, ikastaro arrakastatsuenak –mindfulnessa, zoru pelbikoa indartzeko ikastaroa, txi kunga...– mantendu egingo dituzte, beste batzuk moldatu –antzerki tailerrak zinema ikuspuntua izango du– eta baita proposamen berriak aurkeztu ere; esaterako, *Zer daki zure gorputzak, (oraindik) zuk ez dakizunik?* eta *Indarkeriarik gabeko komunikazioa eta ahalduntzea* izenburudunak. Besaide inguruetara egingo duten irteerak eta autodefentsa feminista tailerrak ere badute nobedadetik. Feminismoaren ertzei buruz gehiago jakin nahi duenak aukera izango du oinarrizko kontzeptu eta proposamenak modu erraz eta ulergarrian ezagutzeko, baita eztabaidak mahai gaineratzeko ere. Eta kantatu eta dantzatzeko espazioa ere eskainiko du Emakume Txokoak, Ines Osinaga Urizarren eta Itziar Arroyo Puenteren eskutik.

Horiez gain, Jabetze Eskolaren bi ahalduntze-gune berri jarriko dituzte martxan: irakurketa feministen txokoa eta emakume migratuen gunea. "Konfiantzazko giroa eta lanketa sakona egitea" ahalbideratuko duten guneak izango dira, Esther Lizarralde Emakume Txokoko teknikariak eta Johanna Sanchez Berdintasun zinegotziak azaldu bezala.

**"Gonbidatuta zaudete"**

Era berean, ekintzetan parte hartzera animatu dituzte "Emakume Txokoa eta Jabetze Eskola ezagutzen dituztenak, eta orain arte hurbiltzerik izan ez duten emakumeak". Joan den ikasturteko balorazioaz galdetuta, adierazi dute "normalean bezala" orokorrean 130 eta 150 emakume inguruk eman zutela izena saioetan: "Ikastaro batzuetako edukiera bete egin zen".

Udazkeneko egitarau osoaren liburuxka etxez etxe banatu dute astean, eta *arrasate.eus* atarian ere deskarga daiteke. Jabetza Eskolako saioetan datorren astelehenetik aurrera apunta daiteke, egoitzan edo webgunean.

## Ekin Emakumeak-en eskutik, lau ikastaro eta 'coaching' tailerra

"Nork bere buruarekin tartetxo bat hartzea, gozamenerako espazioak garrantzitsuak direla gogoratzea, herriko beste emakume* batzuekin, konfiantzazko gune batean, une goxo bat partekatzea eta gauza berriak esperimentatzea" proposatuko du Ekin Emakumeak elkarteak ikasturte berrian. Horretarako, lau ikastaro –joskintza, ilustrazioa, yin taoa eta yogaterapia– eta zaldiekin *coaching* tailerra antolatu dituzte. "Ez hori bakarrik; aurten, berrikuntza modura, ikasturte osoan zehar, hilero ekintza berezi bat proposatuko diegu Arrasateko emakumeei. Beraz, animatu eta zatoz jakintzak elkarbanatzera, sortzera, zaintzera eta probatzera", adierazi dute Ekinetik.

Jardueretan izena emateko, idatzi *emakumeak@ekinemakumeak.eus* helbidera edo deitu 943 79 83 70 edo 651 70 79 36ra. Tailer bakoitzaren informazio osatua *ekinemakumeak.eus* atarian kontsulta daiteke.








Iazko maiatzean Etxaluze eraikinean egindako saioetako bat. GOIENA

# Dantzaren eta musikaren bitartez sormena garatu

Aniztasun funtzionala dutenei zuzendutako 'Arrasaten bertakoak dantzan' ekimenak, iazko arrakasta ikusita, beste edizio bat izango du, eta dagoeneko eman daiteke izena, irailaren 23ra arte; 'Arrasate.eus'-eko galdetegia bete beharko da horretarako

**Eneko Azurmendi** ARRASATE

Aurten ere, aniztasun funtzionala duten gazteei zuzendutako *Arrasaten bertakoak dantzan* programa jarriko dute martxan Arrasateko Udaleko Gazteria eta Aniztasuna sailek elkarlanean. Iaz moduan, Kala elkarteko Bash taldeak dinamizatuko ditu saioak eta bi egingo dituzte hilabete bakoitzean, zapatuetan. Bi ordukoak izango dira, 11:00etatik 13:00etara, Etxaluzeko Axeri gelan. Gainera, hainbat kolektibo eta sektoretako artistak gonbidatuko dituzte, "ezagutzak partekatu eta gauza berriak ikasteko asmoz".

Bigarren edizio honetan ere helburua ez da aldatu eta gura dutena da parte-hartzaileek dituzten aukerak talentuen bidez eraldatzea, horretarako sormen eta mugimendu espazioak sortuz.

Hori dela eta, askotariko dinamikak erabiliz, aniztasun funtzionala duten pertsonen sormena eta askatasuna bultzatzen dute saio horietan; musikaren laguntzarekin, betiere. "Mugimendua eta gorputz adierazpena dira osagaiak, bakoitzaren beharrak eta nahiak errespetatuz. Hala, jolasaren bidez ikastea eta prozesuan ondo pasatzea da helburua", azaldu dute dinamizatzaileek. "Izan ere, aniztasun funtzionala dutenek ez daukate, oro har, horrelako tailerrik; haurrek eskola kirola duten moduan, esaterako. Horregatik, beharrezkoak dituzte haien beharretara egokitutako dinamika eta saio hauek, sormena lantzeaz gain, gorputz adierazpena ere lantzen baitute".

### Sormena baino askoz gehiago

Horrez gain, zeharka, beste arlo batzuk ere garatzen dituzte, hala nola talde-lana, gazteen ahalduntzea, sozializatzeko espazioak sortzea, lehiakortasuna alde batera utzi eta partaidetza bultzatzea eta abar.

**IRAILAREN 23RA ARTE EMAN DAITEKE IZENA 'ARRASATEN BERTAKOAK DANTZAN' EKIMENEAN**

Dinamizatzaileek onartu dute parte-hartzaileei hasieran kosta egiten zaiela taldean murgiltzea eta taldeko dinamikan sartzea, baina, behin lotsak alde batera utzita, oso pozik joaten direla saioetara. "Era berean, guri ere transmititzen digute haien energia eta indarberrituta itzultzen gara saioetatik", gaineratu dute.

### Izen-ematea zabalik dago

Ateak zabalik dituzte iaz parte hartu zutenez gain parte-hartzaile berriak ere jasotzeko. Hori dela eta, izena ematera animatu gura izan dituzte. Beraz, saioetan parte hartzeko interesa daukatenek Arrasateko udal webgunean daukate horretarako aukera, *https://izenemateak.arrasate.eus/* atalean. Datorren egubakoitza baino lehen egin beharko da hori –irailak 23–.



NIRE USTEZ

**OIANA SANCHEZ**

## 'Who wants to save the queen?'

Isabel II.aren heriotza aurreko asteko albiste izan genuen. Aspalditik osasun arazoak –eta adina– zituela, bere gaztelu baten urrezko ohean eta bere familiaz inguraturik hil da.

Inperialismoaren jarraitzaileak omenaldiak prestatzen ari diren bitartean, auzo behartsu eta xumeetakoek prestatutako hamar eguneko ekitaldia etsipenez hartuko dute.

Herrialde batean monarkia ezarrita egoteak hori bera esan gura du. Goitik hasita katearen azken mailara arte ezberdintasuna pairatzea, alegia. Jaiotzaz euren herriaren gainetiko pribilegioak jasotzea desorekaren abiapuntu argia dugu. Izan ere, berdinak garela esaten duten legeen aurka bortizki doa.

Jakin badakigu Britainiar Inperioaren ibilbidea zein izan den, munduan zehar luzatutako tentakuluen bitartez ezberdintasuna euren mugetatik at eramatea. 70 urtez Isabelek burututako basakeriak harrotasunez eraman ditu.

Galdera erraza da: ez al da ordua erregina ez ezik, erreinaldiak hiltzeko garaia ere izango?

## Euskaraldian izena emateko deialdi berezia entitateentzat

Entitateen izen-ematea azken txanpan sartu da, urri erdira arte edukiko baitute horretarako aukera. Hala, Arrasateko Euskaraldiak bideo bat prestatu du, herriko taberna, denda, enpresa, kirol eta kultur taldeak izena ematera animatzeko. "Prozesua laburra eta erraza da. Sartu *Euskaraldia.eus* helbidera, zure datuak eman eta kito!".

## Pizza tailerra bihar, bertako produktuen azokaren baitan

Pizza tailerra egingo dute bihar Seber Altuben. Ikastaroa 11:00etan izango da, eta 6 urtetik gorako gaztetxoei dago zuzenduta. Bertako eta sasoiko produktuak sustatzen dituen Ortutik Ahora elkartea izango da tailerra emango duena. Aurrez eman behar da izena, 943 25 20 00 telefonora deituta edo *izenemateak.arrasate.eus* helbidean.

## OHARRAK

### Mugikortasun Iraunkorraren Astea

Gaurtik irailaren 22ra Arrasateko ikasle eta irakasle guztiak motordun ibilgailuak alde batera utzi eta eskolara oinez joatera animatu ditu Udalako Ingurumen Eskolak.

### Besaide Oroitzapen Eguna domekan

Euskal Mendizale Federazioaz gain, Elorrioko Udalak eta Erdella Mendizale Taldeak antolatu dute eguna aurten. 11:00etan egingo dute oroimen ekitaldi nagusia. Horrez gain, gogoratu Besaide Mendizale Elkartearen argazki lehiaketan irailaren 20ra arte, martitzena, aurkeztu daitezkeela lanak, *besaide@besaide.eus* helbidera bidalita.

### Avesantes elkartearen margo ikastaroa

Hilaren 23an hasiko dute; informazio gehiago: 685 71 33 66.

### 1964koen kintada, urriaren 15ean, Aramaion

Unzueta jatetxean egingo dute. Interesatuek 65 euro ordaindu ditzatela hemen: ES10 2095 5055 50 9113880736.

### San Andresko parrokian bukatu dituzte lanak

Etzi, domeka, esango dute lehen meza, 10:00etan.


Mendiko txirrindulari bat, Mondranbikeren aurreko aldi batean. GOIENA

# Egindako lana, oroimenean

Arrasate Eskubaloi klubak senior mailako bost kide ohi omendu zituen joan den domekan Pitxi Herrero torneoan: Patxi Garcia –azken bost urteotako entrenatzailea–, Asier Valle eta Iñigo Salterain atezainak, Iker Zubiaurre jokalaria eta Josu Herrero, kategoria guztietatik pasa den jokalaria eta egun klubeko zuzendaritzako kidea.


ARRASATE ESKUBALOI

# Mondranbiken parte hartuko dutenendako bidezidorrak, prest

## 300 mendi-txirrindulari inguruk parte hartuko dute Besaide elkarteak bihar goizerako antolatutako martxan

**Hasier Larrea** ARRASATE

Iaz ohiko parte hartzea erdira mugatu ostean, aurten 300 laguneko partaide kopurua berreskuratuko du Mondranbikek, Arrasateko MTB martxak. Oraindik izenik eman ez duenak sare sozialetan begiratu dezake ea zapatuan, hilak 17, Biterin 09:00etan hasiko den ekitaldian izena emateko aukera duen. Mikel Bergara *Beraka* antolatzaileak azaldu du gutxienez erdi mailako zailtasun teknikoa duen itzulia izango dela: "Aukera ugari eskaintzen ditu, hein batean, Arrasate inguruko mendietako bidexkak mantentzeaz arduratzen den pertsona talde bat dagoelako".

Zehazki, hiru ibilbide egongo dira aukeran: ertaina –32 km–, luzea –38 km– eta *extreme* delakoa –43 km–. Biteri, Garagartza, Arteaga, Kobate, Txukurrilo –ertaina ez–, Udala, Erguingo mojen egoitza, Meatzerreka, Anporreta, Musakolako kiroldegia –anoa postua–, Etxezarreta, Bakue, Zubilaga, Galarrixa –luzea eta ertaina ez– eta Bedoñatik pasako da martxa. Arizmendiarrieta plazan paella-jana egingo dute eguerdian.

# ARTko emakumeek Eibarkoekin jokatuko dute Euskal Ligan

## ART-k errugbian ibilbide luzea duen klubarekin batuko ditu indarrak, eta neurketak Mojategin jokatuko dituzte

**H.L.** ARRASATE

Arrasate Rugby Taldeak kirolean jardun baino zertxobait gehiago egiteko asmoa erakutsi du aurtengo denboraldirako. "Ingurune positibo eta dibertigarrian errugbia praktikatuz gozatzen duten pertsonez osatutako taldeak egitea da gure helburua", adierazi dute klubetik.

Hala, kategoria gehienak hasi dira lanean jadanik. Gizonezkoen lehen taldeko entrenatzailea Julen Barrutia izango da, Ihabar Arriaranen laguntzarekin. Emakumezkoen taldea, ostera, Eibar Errugbi Taldearekin batuko da Euskal Ligako lehen mailan lehiatzeko. Gainera, Mutrikurekin ere egin dute akordioa 18 urtez azpiko kategorian. Hortaz, 18, 16, 14 eta 12 urtez azpikoen bueltan dabiltzanek aukera polita dute jada Mojategira joan eta errugbia probatzeko. Eta berdin inklusiboen, amen edo beteranoen taldeko partaide izan nahi dutenek; horiek geroxeago hasiko dira entrenatzen: urriaren 2an, hain zuzen; igande goizetan izango dira lan-saioak, errugbi eskolakoak bezala.



# Bueltan datoz literatura ardatz duten solasaldiak

Irailaren 19tik 24ra bitartean eman ahalko da izena urritik aurrera Udal Bibliotekan egingo dituzten literatura solasaldietan. Jessica Oleaga izango da aurten ingelesezko saioetako koordinatzailea, Olwen Mearsen ordez. Hiru hizkuntzatan izango dira saioak

**Eneko Azurmendi** ARRASATE

Ingelesezko solasaldietako koordinatzaile aldaketa da aurtengo berrikuntza bakarra; izan ere, Jessica Oleagak izango du aurten ardura hori. "Ez da ingelesa jaiotzez, baina sekulako ilusioarekin esan digu baietz; beraz, guk ere pozik hartu dugu", azaldu du Asun Agirianok, Udal Bibliotekako arduradunak. "Beste herrietan ere baditu taldeak, eta gogoz dago Arrasatekoari ekiteko", gaineratu du.

Euskarazko eta gaztelaniazko saioekin alderatuta, jende gutxiagok hartzen du parte ingelesezkoetan, eta, horregatik, arrasatearrak animatu gura izan ditu Agirianok: "Daudenak oso pozik etortzen dira eta diote asko ikasten dela, luxu hutsa dela; beraz, animatu daitezela".

Gainera, COVID-19aren aurkako neurririk gabe ekingo diote, hasiera batean, ikasturteari. "Iaz eduki genituen zailtasun guztiekin, aurten badirudi normaltasunez hasiko dugula ikasturtea eta horrek mesede egingo digu. Izan ere, orain arte, maskararekin edota online, zailagoa izan da ingelesezko ulermena, esaterako. Aurten, zailtasun horiek gabe, taldea gusturago arituko da".



Itziar Ugarte idazle oñatiarrarekin egindako saioa. ARRASATEKO UDAL BIBLIOTEKA

**UDAL BIBLIOTEKAN ETA 'ARRASATE.EUS' HELBIDEAN EMAN AHALKO DA IZENA, DATORREN ASTEAN**

### Euskarazko zortzi solasaldi

Aurten ere eguenetan egingo dituzte euskarazko solasaldiak, 18:30ean, urriaren 27an hasita, eta Alex Gurrutxaga izango da koordinatzailea. Hilabete bakoitzean saio bat egingo dute eta honako hauek izango dira berbagai izango dituzten liburuak eta idazleak: *Nirliit* (Juliana Leveille-Trudel); *Begiak zabalduko zaizkizue* (Irati Jimenez); *Euri zitalari esker* (Itxaro Borda); *Gerezi garaia* (Mikel Santos Belatz); *Julien Vinsonen hegaldia* (Patxi Zubizarreta); *Gauez harrizko zubiaren azpian* (Leo Perutz); *Kafe tristearen balada* (Carson McCullers) eta *Todo modo* (Leonardo Sciascia). Gainera, Itxaro Borda, behintzat, solasaldian izango da, abenduaren 15ean.

### Gaztelaniazkoetan bi azpitalde

Gaztelaniazko solasaldiei dagokienez, eguaztenetan egingo dituzte, baina bi azpitalde egongo dira, bakoitza koordinatzaile batekin. Luisa Etxenikek literatura europarreko taldea koordinatuko du eta Ane Zapaterok, aldiz, gaztelaniazko literaturako taldea. Hala, bigarren azpitalde horretan, Latinoamerikako bi idazleren liburuak aztertuko dituzte otsaileko eta martxoko saioetan: Leila Guerrieroren *Una historia sencilla* eta Guadalupe Nettelen *La hija única*. Apirilean, Isaac Rosa espainiarraren *Feliz final* liburua izango dute berbagai eta maiatzean, aldiz, Jokin Muñoz nafarraren *Sin tocar el suelo*. "Gainera, idazlea gonbidatzeko asmoa daukagu, eta hori amu polita da irakurleentzat", dio Agirianok.

Luisa Etxenikek koordinatuko duen taldean, berriz, liburu hauen gainean ariko dira: *Tristana* (Benito Perez Galdos); *Las amistades peligrosas* (Choderlos de Laclos); *La isla de Arturo* (Elsa Morante) eta *El hombre es un gran faisán en el mundo* (Herta Müller).

### Ingelesezkoak, martitzenetan

Ingelesezko bost saio egingo dituzte, martitzenetan, honako liburu hauekin: *The Curious Incident of the Dog in the Night-Time* (Mark Haddon); *Persepolis* (Marjane Satrapi); *Big Little Lies* (TV series); *Drive Your Plow Over the Bones of the Dead* (Olga Tokarczuk) eta *Girl with a Pearl Earring* (Tracy Chevalier).

Datorren astean eman ahalko da izena, eta bi bide daude horretarako: Udal Bibliotekan bertan edo *Arrasate.eus* webgunean. "Literaturaz gozatzeko aukera ederrak dira solasaldi hauek, oso aberasgarriak; beraz, animatu", dio Agirianok.

## Aldarrikapenari bide emateko, kultur eskaintza zabala bihar

Aurrera Bolie eguna izango da biharkoa eta kultura eskaintza zabalaren bidez emango diote bide hausnarketa zein aldarrikapen politikoari. Batetik, 18:30ean hasita, Katuen Kontuak kontatuko dituzte Joseba Sarrionandiak eta Ines Osinagak Irati Topalekuan. Poesia errezitaldietan oinarritutako saioa izango da.

Bestetik, musikari dagokionez ere, askotariko eskaintza egongo da Aurrera Bolie egunean. Bazkalostea girotzeko, esaterako, modu akustikoan emanaldia egingo dute Iraitz Agirrek eta Garazi Barrenak, Des-kontrolek, Perlatak, Izadik eta Kontraldek. 16:30ean hasiko dira emanaldi horiek, Biteri plazan. Horrez gain, 22:30ean, hiru talde ariko dira gaztetxeko oholtza gainean: Delirium Tremens, Etxepe eta Gora Etorri. Sarrera bost euro ordaindu beharko da.

## Dantza tradizionalak ikasteko aukera urriaren 3tik aurrera

Aurten ere plazako dantza tradizionalen ikastaroa antolatu du Portaloi elkarteak eta helburua da gaur egun Euskal Herriko plazetan egin ohi diren tradiziozko dantza molde guztiak ezagutu eta praktikatzea, "astero elkarrekin dantzan gozatzeko, baina batez ere gero edozein plazatan dantzara animatzeko", antolatzaileen esanetan. Astelehenetan egingo dituzte saioak, Kulturolan, Patxi Monteroren eskutik. 17:30ean dantza-txokoa egingo dute eta 19:00etan, oinarrizko mailako saioak. Aurten, oinarrizko maila horretan, bikoteka egiteko dantzak ikasiko dituzte: lotuan, soltean, kontradantzak, ingurutxoak eta abar. Dantza-txokoan, berriz, denetarik. Izen-ematea AEDn egin beharko da, 943 77 12 28 telefono zenbakira deituta edo *aed@aedelkartea.eus* helbidera mezu bat idatzita.

## Goikobalu Abesbatzak ateak irekita ditu sasoi berriari ekiteko

Aste honetan abiatu du ikasturte berria Goikobalu Abesbatzak eta, adierazi dutenez, ateak zabalik dituzte jende berriarentzako ere. Informazio gehiagorako, bi telefono zenbaki jarri dituzte herritarren eskura: 685 75 02 22 (Maider) eta 669 83 34 38 (Maialen). Haur Hezkuntzako 4. mailatik gorakoendako eskaintza dute abesbatzan.

## Arrasate Musikalek ekin dio ikasturteari, urteurren borobilean

Aurten "ikasturte berezia" da Arrasate Musikalentzat, 50. urteurrena izanik. Halaber, talde batzuetan izena eman daiteke oraindik. Kultura musikala ere eskainiko dute 18 urtetik gorakoentzat. Idazkaritza irekita egongo da astelehenetik eguenera 10:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 19:00etara eta egubakoitzetan 16:00etatik 19:00etara.



# Santa Kruz apaiza: ihesaldia baino gehiago

1872an atxilotu zuten Santa Kruz apaiza Aramaion; fusilatu aurreko egunean ihes egitea lortu zuen modu harrigarrian. 150 urte bete dira gertakari hartatik, eta Aramaioko Udalak urteurrena baliatu du apaizaren inguruko erakusketa egiteko

**Arantzazu Ezkibel Galdos** ARAMAIO

Aramaioko kartzelatik modu harrigarrian ihes egin eta Izpizte inguruko koba batean gordeta egon zen Manuel Santa Kruz apaiza 1872an. Hain zuzen, 150 urte bete dira aurtengo abuztuan gertakari hartatik. Aramaioko Udalak gertakaria gogora ekarri eta Santa Kruz apaizaren figura ulertzeko erakusketa zabaldu du Sastiñan.

Atzo egin zuten inaugurazio ekitaldia. Manuel Arroyo bildumazale hernialdearra ibili da erakusketa prestatzeko lanetan. Garaiko arropak eta materiala jarri dituzte ikusgai hilaren 20ra arte zabalik egongo den erakusketan.




Sastiñan dago ikusgai erakusketa. A.E.G.

### Testuingurua azaldu

Patxi Salaberri aramaioarrak hitzaldia egin zuen atzo. "Santa Kruz apaizaren inguruko hiruzpalau anekdota ezagutzen ditugu, baina nik nahi dudana da jendeak ulertzea zertan ibili zen eta zer motibazio izan zituen", dio Salaberrik.

Manuel Ignazio Santa Kruz 1842an jaio zen, Elduainen. Oso gazte geratu zen umezurtz, eta, ondorioz, osaba batekin hazi zen eta apaiztu egin zen. 1866an, Hernialdera bidali zuten apaiz lanetara. Handik gutxira, karlismoaren inguruko propaganda aktiboa egiten hasi zen eta arrazoi hori tarteko atxilotu egin zuten 1870ean. Orduko hartan ere ihes egin eta Ipar Euskal Herrira joan zen. Bigarren Karlistaldian Aramaion atxilotu zuten, 1872an, eta fusilatu behar zuten bezperan egin zuen ihes.

Santa Kruz apaizaren egiteko moduez jardun du Salaberrik: "Nolako kontrasteak zituen, ez bakarrik karlisten etsaiekin, baita karlismoaren buruzagi militarrekin. Testuingurua ulertzea nahiko nuke, ez bakarrik irudia".

### Aramaion maitatua

Santa Kruz apaiza ezaguna da, bai, behintzat, izena, haren omenezko plazatxoa dago-eta herrian. "Bestalde, Orixol inguruan Santikurtz baseliza dago. Jende askok uste du Santa Kruz apaizarengatik dela, baina ez da horrela. Ez dute zerikusirik", dio Salaberrik. Horrez gain, Salaberrik dio bere garaian maitatua eta baloratua izan zela Santa Kruz apaiza herrian: "Aramaiora behin baino gehiagotan etorri zen eta ikaragarriko harrera egin izan zitzaion. Kontuan izan bai Gipuzkoa eta baita Aramaio ere karlistak zirela".

Gaur egun, ezaguna dela eta mito moduko bat bilakatu dela dio.

### Dokumentala domekan

Ihesaldiaren 150. urteurrenaren, inguruan beste ekitaldi bat ere antolatu du Udalak. Domekan, kultura etxean, *Apaiz gartzela* ikus-entzunezkoa emango dute, 19:00etan. Oier Arantzabal, Ritxi Lizartza eta David Pallares zuzendariek egindako dokumentala da *Apaiz gartzela*. 1968 eta 1976 urteen artean Zamorako apaizen kartzelan bizi izandakoak gogoratzen ditu lanak; hain zuzen, kartzela hartan preso egondako lau apaiz dira dokumentaleko protagonistak. Madril, Katalunia, Galizia eta Euskal Herriko 53 apaiz egon ziren kartzela hartan, eta oraindik ere ezezaguna den istorioa berreskuratu gura izan dute hiru zuzendariek.

## Egunak eta orduak

Atzo, eguena, inauguratu zuten Santa Kruz apaizaren gaineko erakusketa. Sastiñan dago ikusgai.

**Ordutegia**

- **Irailak 17, zapatua** 12:00etatik 14:00etara.
- **Irailak 18, domeka** 12:00etatik 14:00etara.
- **Irailak 19, astelehena** 18:00etatik 19:30era.
- **Irailak 20, martitzena** 18:00etatik 19:30era.

# Irailaren 24an egingo dute Aitor Aranaren omenezko martxa

20 kilometroko ibilaldia 07:30ean irtengo da eta 12,5 kilometrokoa 08:00etan, biak Goiko tabernatik

**A.E.G.** ARAMAIO

Orixol Mendizale Elkarteak antolatuta, Aitor Aranaren omenezko mendi martxa egingo dute irailaren 24an. Bi ibilbide antolatu dituzte: luzea, 20 kilometrokoa; eta, motza, 12,5 kilometrokoa.

Mendi martxan izena emateko online dagoen galdetegia bete beharko da irailaren 21a baino lehen. Aurrez izena ematen dutenek 5 euro ordaindu beharko dute. Egunean bertan ere egongo da izena emateko aukera, 07:00etatik aurrera, 7 euro ordainduta. Ibilbide luzeak 1.375 metroko desnibel positiboa izango du eta, besteak beste, Anboto (1.331) eta Izpizte (1.057) igoko dituzte. Ibilbide motzak 800 metroko desnibel positiboa izango du eta Izpizte igo beharko dute.

Mendi martxa Goiko taberna ondotik irtengo da: luzea 07:30ean hasiko da eta motza 08:00etan. Aurten, gainera, Santa Kruz apaizak Aramaioko kartzelatik ihes egin zuela 150 urte betetzen direla aprobetxatuz, mendi martxako antolatzaileek keinu txiki bat egin izan nahi diote urteurren borobilari eta ibilaldia Santa Kruz apaiza gordeta egon zen kobazuloaren ingurutik pasako da. Mendizale Elkarteak Aitor Aranaren omenez antolatzen duen 26. mendi ibilaldia izango da aurtengoa.



2021eko mendi martxa. GOIENA

## Lehortea dela-eta ura neurriz erabiltzea eskatu du Udalak

Azken hilabeteetan ez du eurirarik egin, eta lehortea begi bistakoa da bai Aramaion eta baita gainontzeko herrietan ere. Aramaioko Udalak ur hartuneen egoeraren berri eman du, eta horiek sekula baino justuago daudela adierazi. "Etxaguengo, Gantzagako, Oletako eta Ibarrako ur depositoak nahiko egoera onean daude; egoera estuena Arrikoitiko depositoan dago", azaldu dute ohar bidez. Egoera horren harira, eta ura guztion ondasun ezinbestekoa dela azalduz, Udalak eskatu du ura kontuz erabiltzeko eta neurrian erabiltzeko. "Ur kantitate handiak erabiltzeko asmoa duenak udaletxera dei dezala aurrez".

## OHARRAK

### Ur parkea

Ur txorroten parkeak ordutegi berria du: eskola egunetan 16:30etik 19:30era egongo da martxan eta aste bukaeretan, orain arte bezala, 11:00etatik 19:30era.

### Irakurle Kluba

Irailaren 26an hasiko dute Irakurle Klub Feministaren ikasturtea. Hilaren 23rako eman behar izena: *berdintasuna @gorbeialdea.eus*.

### Besaide eguna

Domekan, irailaren 18an, Besaide eguna ospatuko dute, Elorrioko mendizale elkarteak eta Federazioak antolatuta. Oroimen ekitaldia 11:00etan izango da.

# "Erregearengandik dohaintzak lortu zituzten"


Iñaki Urreta, bi liburuak esku artean dituela, liburutegian. MIRARI ALTUBE

**IÑAKI URRETA LETURIONDO** HISTORIALARIA

'La casa de Otalora en el siglo XVI' liburua argitaratu du, lau urteko ikerketa-lana egin ostean, eta bihar, zapatua, aurkeztuko du, Arkupen (12:00)

**Mirari Altube** ARETXABALETA

Geografian eta Historian lizentziatua da Iñaki Urreta Leturiondo (Eibar, 1958) eta 37 urtean irakasle izan da. 2018an erretiroa hartuta, azken lau urteak Otalora familia aztertzen jardun du, eta bihar aurkeztuko du lana, Arkupen (12:00).

**Zer jaso duzu *La casa de Otalora en el siglo XVI* liburuan?**

Otalora familia aztertu dut: sendiaren burua, hau da, jauna, eta haren ondorengoak. XVI. mendean oinarritu dut ikerketa, orduan pilatu zituzten ondasunek azaltzen dutelako familiak izan zuen garrantzia. Liburua osatzeko liburuxka bat ere argitaratu dut, mende horretatik aurrera Aozaratzako dorretxean bizi izandakoen berri jasotzeko.

**Familia garrantzitsua, orduan?**

Hiru familia dira aipatu beharrekoak Aretxabaletan: Galartza, Otalora eta Arratabe. 400 urtean izan ziren herriko nagusiak: lurren jabeak, baserrienak...

**Nondik zetorkien otaloratarrei aberastasun eta botere hori guztia?**

XVI. mendetik, eta ezkontza bati esker. Otalorako nagusia Galartzako alaba batekin ezkondu zen –Galartza eta Aiala familiakoa, goi mailako familia izanik Aiala– eta hark zabaldu zion Errege-Erregina Katolikoen gortera sartzeko bidea. Hain zuzen ere, bikote haren seme Juan Errege-Erregina Katolikoen seme nagusienaren zerbitzari izan zen lehenengo, eta gero, Fernando Katolikoarena; haren pixontzia eramatea zen beraren lana. Hala hasi eta gerra gizona izatera iritsi zen. Fernandok, gainera, bere ezpata oparitu zion. Erregearen alboan egonda beti lortzen ziren mesedeak, eta otaloratarren kasuan ere hala izan zen.

**Juan Otalorakoa izan zen, orduan, gakoa?**

Sekulako dirutza lortu zuen eta dohaintzak ere bai erregearengandik; Gipuzkoako meategi guztien ustiapena eskuratu zuen, esaterako. Arabako emakume aberats batekin ezkondu zen, Maria de Zuazo Gamboa, eta Carlos I. erregeari eskatu zion maiorazkoa sortzeko. Maiorazko barruan sartutako ondasun guztiak kendu ezinak ziren; hau da, ezin ziren ez saldu, ez trukatu, eta erregearen baimenarekin lortzen zituzten nobleek. Hain zuzen ere, jauntxo gisa bizitzeko ahalegin handia egin zuen Juanek, eta horretarako ezinbestekoak ziren maiorazkoa, dorretxea eta kapera bat; Aozaratzako elizan kapera gotikoa eraiki zuen eta han daude lurperatuta hura eta familiakoak.

**"GALARTZAKO ALABA BATEKIN EZKONDU IZANAK ZABALDU ZION ERREGE KATOLIKOEN GORTERAKO BIDEA"**

**Sancho anaiaren semea izan zen haren oinordekoa.**

Bai, haren seme Juan. Baina Sancho bera ere aipatzeko moduko gizona da, Aretxabaletan inoiz egon den politikari garrantzitsuena: legegizona, lau kontseilutako burua eta erregearen albokoa. Juanek ordainduta Sevillan egin zituen ikasketak. Epaile izan zen, Sevillako entzutegiko buru, eta Utrerako emakume aberats batekin ezkondu zen, sekulako ondasunak zituena: dirua, lurrak, baita esklaboak ere. Horrek aitzakia eman dit euskaldunek zelako parte-hartzea izan zuten esklabotzan sakontzeko.

**Kontu horien guztien berri emango duzu bihar?**

Laburpen bat egiten saiatuko naiz. Ez da eleberri bat, poliki irakurri beharreko liburua da. Ohar asko ditu, gainera, eta garrantzitsuak dira horiei kasu egitea, garai hartako testuingurua egituratzen laguntzen dutelako. Aozaratza auzoan gertatutako hori Espainian eta Europan XVI. mendean bizi izan zenaren adibide bat da.

**Lan handia dago liburu horren atzean...**

Bai, lau urteko lana. Egia da orain informazio asko dagoela sarean, eta hori oso garrantzitsua da halako ikerlanetan dihardugunondako. Euskadin, gainera, oso sare garrantzitsua dugu; seguru asko, ez da egongo halakorik Espainia osoan.

## Sanmigeletako kantu afarirako izen-ematea zabalik Arkupen

Loramendi elkarteak irailaren 24an jarriko duen talo-txosnako bi txanda betetzeko jendea behar du

**M.A.** ARETXABALETA

Irailaren 23tik 25era bitartean ospatuko dira aurten San Migel jaiak, eta pandemia aurreko egitarau oso antzekoarekin datoz. Hala, Kultura Sailak antolatutako kantu afarirako izena emateko epea gaur, irailak 16, zabaldu dute; ohi legez, Arkupe kultura etxera joan behar da. Kuadrillaka apuntatuko da eta pertsonako euro bat ordaindu; abesteko liburua banatuko dute orduan.

Kantu afaria hilaren 23an izango da, Herriko Plazan (21:00), eta euria bada, pilotalekuan. 500 tiket jarri dira salgai eta beste ehun salduko dira egunean bertan, eguraldi ona egiten badu.


Herritarrak kantuan, 2019an. A. AGIRIANO

**Taloak egiteko jendea**

Loramendi elkarteak, ostera, irailaren 24an jarriko duen talo-txosnarako jendea behar du. Bi orduko bi txanda izango dira: lehenengoa, 10:30ean, eta bigarrena, 12:30ean.

Parte hartu nahi duena jar dadila harremanetan Loramendiko kideekin, idatzita: *euskara@loramendielkartea.eus;* telefonoz deituta: 685 756 729 edo 943 77 09 70; edo bulegora joanda.

Bestetik, datorren astean egingo dira Beinke-Loramendi dantzaren azken entseguak. Martitzenean eta eguenean izango dira, biak 19:00etan, Kurtzebarri eskolako kantxan.

## Hogei jarduera baino gehiago jarriko dituzte abian kiroldegian

Astelehenean zabalduko dute ikasturtea eta ate irekiak izango dituzte hainbat kirol modalitatek

**M.A.** ARETXABALETA

Ibarra kiroldegiko ikasturtea hainbat berrikuntzarekin dator. Izan ere, hogei jarduerak baino gehiagok osatuko dute aurtengo kirol eskaintza.

Irailaren 19an, astelehenean, jarriko dituzte abian ikastaroak eta plaza libreak dituzten kirol modalitateetan ate irekien jardunaldiak egingo dira. Jarduera horiek probatzeko kiroldegira deitu behar da aurretik, eta plaza erreserbatu: 943 03 98 42.

Berrikuntzen artean dago TRX-ko talde berri bat eratu izana; martitzen eta eguenetan elkartuko da hori, 07:15ean. Gainera, martitzen eta eguen eguerdietan (13:15ean) intentsitate handiko ariketak (HIIT) egiteko aukera egongo da.

**Igeriketa ikastaro gehiago**

Bestalde, haurren igeriketa ikastaroak indartu egin dituzte; hamabi talde izatetik hogei izatera igaro dira, eskari osoari erantzuteko asmoz. Talde egokiak osatzeko asmoz hainbat proba egin dituzte haiek aurreko egunetan.

# Feminismoa liburuen bidez zabaltzea asmo

Irakurketa kluba sortu du Erdu talde feministak. Urriaren 6an izango da lehen saioa, eta Anna Freixas idazlearen 'Yo vieja' da landuko duten liburua. Guztira, bizpahiru saio egingo dituzte, eta eguna gerturatu ahala emango dute horien berri

**Amaia Ramirez de Okariz Kortabarria** ARETXABALETA
Feminismoa herrira zabaltzeko asmoz, irakurketa klub feminista jarri du martxan Erdu talde feministak. Lehen aldiz egingo dute egitasmoa, eta herriko zein inguruetako andreengana iristea dute asmo, Larraitz Arando taldeko kidearen hitzetan. "Soilik emakumeentzat* sortutako espazio bat da, ikuspegi feminista izango duena; hitz egingo dugu, iritziak emango ditugu, hausnartu eta pentsatu".

Horretarako, urriaren 6an egingo dute lehendabiziko saioa, Arkupe kultur etxean, 18:30ean. Euskaraz izango da, baina antolatzaileek jakinarazi dute beste hizkuntza batzuetan komunikatzeko modua ere egongo dela. Batean zein bestean izan, ordea, landu beharreko liburua berbera izango da: Anna Freixas idazle eta unibertsitate irakasle izandakoaren *Yo, vieja* lana. "Oraindik ere badago zer landua zahartzaroaren eta emakumearen inguruan, zer aldatua, eta gustatuko litzaiguke gai horren gainean herriko emakumeek dutena entzutea".

Are, liburua eskuratzeko interesa duen andre orok horretarako aukera du *atxabaltako-feministak@gmail.com* helbidera mezu bat bidalita. Elkar trukatzen ari diren papereko formatuz gain, bada digitala eskuratzeko bidea ere.



Anna Freixas, *Yo, vieja* liburuaren idazlea. GOIENA

### Hurrengo saioak

Orotara, bizpahiru saio egin nahiko lituzketela azaldu du Arandok, horrela adostua dutela, bederen, eta liburu proposamen batzuk ere eginak dituzte. Baina, dena den, horietara joaten den jendearen araberakoa izango da erabakia, eta orduan emango dute datozenen berri. Hala ere, antolatzaileak aurreratu du dokumental bat ikusiko dutela azaroaren 24an. "Etor dadila jendea, tonu lasaian arituko baikara; afari-merienda bat egingo dugu, giro erlaxatu samarrean, ez akademikoan".

### Liburutegian ere bai

Herriko liburutegiak ere literatur taldeak antolatu ditu, euskaraz eta gazteleraz. Hilero elkartzen dira liburu baten inguruan hitz egiteko, eta izena liburutegian eman behar da. Ikasturte honetan, Mikel Antza idazlearena da euskarazko taldearen gidaritza, eta atzo egin zuten lehen saioa, Leslie Feinberg idazleak idatziriko eta Fermin Zabaltzak itzuliko *Mari mutil handi baten blusa* liburua landuta. Datorrena urriaren 6an izango da, eta Idoia Garzesek idatzitako *Mendiko gaitza* da landuko duten lana. Gaztelerazko taldea, berriz, Monika Leivak gidatzen du. Hilaren 21ean egingo dute lehen saioa. Talde guztiak mugatuak dira, eta izena liburutegian eman behar da.




**'YO, VIEJA' LIBURUA**

**SINOPSIA**
Zahartzaroko giza eskubideen, baina, batik bat, emakumeen eskubideen alde jarduten duen liburu bat da hau. Anna Freixas idazleak garrantzitsuak iruditzen zaizkion hiru puntutan jartzen du arreta: askatasuna, justizia eta duintasuna. Era honetan, gogoetarako eta gozamenerako tresna bat izan nahi du.

## Kuku Miku guraso elkarteak bazkidetza kanpaina abiatu du

Hilaren 28ra arte egongo da izena emateko epea, eta batzar bat egingo dute ondoren, ikasturtea zehazteko

**A.R.K.** ARETXABALETA
Ikasturtea hastearekin bat, bazkidetza kanpaina abiatu berri du Kuku Miku guraso elkarteak. Irailaren 28ra arte egongo da izena emateko aukera, eta ostean egingo duten batzarrean erabakiko dute zeintzuk izango diren aurten antolatuko dituzten hitzaldiak, tailerrak eta bestelako ekintzak, hala nola gurasoen proposamenetatik abiatuta, Iratxe Arbulo batzordekideak jakinarazi duenez.

Hain justu, 0 eta 6 urte arteko haurren eta gurasoen topagune izatea helburu duen espazio bat da Kuku Miku, eta, Arbulok azaldu duenez, helburu nagusienetako bat "gurasoei gurasotasunean" laguntzea da, baina, horrez gain, baita izan ditzaketen kezkak argitzea eta umeek jolaserako gune bat izatea ere; betiere, euskara bera horien guztien bideratzaile izanik.



Iaz eginiko ekintza bat. KUKU MIKU

Hala, horren berri gehiago izan nahi duenak hilaren 20an izango du horretarako aukera, ate irekiak egingo baitituzte espazioa bertatik bertara ezagutzeko.

## Euskaraldia antolatzeko lehen bilera egingo dute

Herritarren hizkuntza ohiturak aldatu eta euskararen erabilera handitzeko, 2022ko azaroaren 18tik abenduaren 3ra bitartean egingo da Euskaraldia, *Hitzez ekiteko garaia da* lelopean. Hori aitzakiatzat hartuta, astelehenean egingo dute lehen bilera, udaletxe zaharrean, 18:00etan.

Hain justu, egitasmoaren hirugarren edizioa izango da aurtengoa. Lehena 2018ko neguan egin zen, eta norbanakoengan jarri zen, batik bat, fokua. Bi urte geroago, berriz, bigarrena egin zen, eta, orduan, entitateei ere ariketan parte hartzeko gonbidapena egin zitzaien, eremu gehiagotara zabaltzeko asmoz, besteak beste.

Euskara helburu duen ariketa kolektibo honen antolakuntzan parte hartu nahi duen herritar orok, beraz, horretarako aukera izango du aste hasierarekin batera.

Jon Díaz
Harakina
Durana 15
Tel.: 943 79 71 69
20550 ARETXABALETA

Mobiliario ARENAZA
ALTZARIAK
DISEINUA
APAINKETA
Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

# Dantza, feminismoa eta euskara batuta, oholtzan

Bost aretxabaletarrek osatutako Virgin Mari DJ Set taldeak lau urte daramatza hango eta hemengo txosnaguneak eta gaztetxeak dantzan jarriz eta aldarrikapenak haizatuz, eta bihar, zapatua, Bergarako San Martin jaiak girotzen izango da

**Mirari Altube** ARETXABALETA

Virgin Mari DJ Set taldea hara eta hona dabil azken urteotan. Ainhoa Sanchez, Maider Urrutia, Amaiur Egurrola, Laura Igartua eta Maialen Fernandez daude horren atzean, guztiak Pikarraituz neska gazte taldeko kideak, eta oso gustura agertu dira orain arteko ibilbidearekin.

**Egun Moretik abiatuta**

2018ko Andramaixetan ekin zioten proiektuari: "Egun Morea antolatu genuen urte hartan, emakumeen presentzia oholtza gainean bermatzeko. Egitaraua osatzeko emakume talde baten beharra zegoenez, asanbladan erabaki genuen bertako hainbat neska elkartu eta dantzan egitera igotzea. Guk geuk ere ez genekien zer emango zuen horrek, baina lau bat orduz egon ginen oholtza gainean", adierazi dute. Andramaixak, Andra Mari... Virgin Mari izena hautatu zuten orduan, jaiei keinu eginez "ukitu ezberdina" emanda.

**Dantza eta aldarrikapena**

DJ Set izena hartu arren DJ lan gutxi egiten dutela onartu dute: "Ordenagailuari *Play* eman eta dantzan hasten gara; ordu eta erdi pasatxo irauten duen *show*-a egiten dugu". Aldarrikapenek ere badute lekua oholtzan: "Emanaldiaren erdi inguruan performance bat, ekintza desnormalizatzaile bat, egiten dugu. Borrokan egiteko espazioak ere izaten direlako txosnaguneak eta gaztetxeak".

Musika aukeraketak buruhausteak eman izan dizkiela onartu dute: "Saiatzen gara emakume musikarien kantuak sartzen, abesti feministak, euskaraz... Eta, noski, jendea dantzara animatuko duen musika izan behar du. Hori guztia bateratzea ez da samurra, ezta lehentasunak zehaztea ere".

**PERFORMANCE BAT, EKINTZA DESNORMALIZATZAILE BAT, ERE EGITEN DUTE DANTZEN ARTEAN**

**Eraso matxistak**

Behin oholtza gainean gustura sentituta, Debagoieneko agertokietatik harantzago joan dira: "Euskal Herrira zabaldu dugu gure berri eta Basauri, Algorta eta Sopela aldean ere ibili gara."

Harrera beroa egin izan diete "gehienetan", baina "eraso sexistak eta matxistak" ere jasan behar izan dituzte: "Sopelan, adibidez, oso une latza bizi izan genuen. Hala ere, ez da kasu isolatua, oraindik hamaika zapalkuntza jasan behar izaten ditugu neska eta gaztea izateagatik; begirada eta esamesa lizunak, esaterako. Horrek, baina, ez gaitu ahuldu, ahaldundu baizik, eta gure *show*-arekin jarraituko dugu oholtzak emakumez bete arte". Hurrengo emanaldia bihar, zapatua, dute, Bergaran, sanmartinen bueltan, eta gero, urriaren 15ean, Oñatin.



Amaiur Egurrola, Maialen Fernandez, Laura Igartua, Ainhoa Sanchez eta Maider Urrutia. VIRGIN MARI DJ SET



Asier Kidam Durana kaleko herritarrei magia saioa eskaintzen. MIRARI ALTUBE

## Aste bukaerako emanaldiekin Magia Astea borobilduko dute

Asier Kidam gasteiztarrak gaur egingo du, Arkupen, eta David Blanco ilusionistak bihar, Herriko Plazan

**M.A.** ARETXABALETA

Magia Astea berreskuratu du Kultura Sailak, bi urteko geldialdiaren ondoren. Eguaztenean eman zioten hasiera Gisell, Asier Kidam eta David Blanco magoek, eta oraingoan ere ikusmina sortu dute herritarren artean.

Hain zuzen ere, GSR zaharren egoitzan egin zituzten lehenengo emanaldiak, eta ondoren, kalean izan ziren, tabernetako terrazen bueltan zeuden herritarrei magia-trukoak eskaintzen. Kartak erabili zituzten horretarako, pilotatxoak eta gomak ere bai, eta haiek harrituta jarraitu zituzten magoen eskuen mugimenduak.

**Bihar eta etzi hainbat saio**

Emanaldiak, baina, ez dituzte amaitu. Gaur, egubakoitza, Kidam gasteiztarrak bi tailer gidatuko ditu; 15:00etan, 7 eta 10 urte artekoendako; eta 16:15ean, 10 urtetik aurrerakoendako. Ondoren, 19:00etan, magia saioa egingo du Arkupeko oholtzan.

Zapatuan, ostera, David Blanco ilusionistaren txanda izango da, asteari amaiera emateko; Herriko Plazan egingo du emanaldia, 18:30ean.

## Udal eraikinen garbiketa zerbitzua bi enpresak egingo dute

Azken urteotan udal eraikinen garbiketa-zerbitzuaren ardura izan duen ISS Facility Service SA enpresak jarraituko du, besteak beste, udaletxean, Arkupen eta Kurtzebarri eskolan garbiketa lanak egiten. Ibarra kiroldegiaren ardura ere eman diote, eta orain arte horren ardura izan duen Hemen Garbiketak enpresak futbol zelaia garbituko du.

Hala erabaki zuen udalbatzak, aho batez, irailaren 14an, oporraldiaren ondoren egindako lehenengo ohiko osoko bilkuran. Kontratua urtebeterako egingo diete bi enpresei, hasiera batean, baina bost urtera arte luzatzeko aukerarekin.

## Zabalik dago euskaltegian izena emateko epea

*Euskara niretzat, hiretzat, harentzat, guretzat, zuretzat, zuentzat, haientzat; euskara guztiontzat!* leloa duen kanpaina abian da eta dagoeneko zabaldu dute Leintz Udal Euskaltegian matrikulatzeko epea. 16 urtetik gorako edonork eman dezake izena, euskara ikasi zein A1 mailatik hasi eta C2 maila bitarteko agiri ofizialen bat atera nahi duenak.

Matrikula euskaltegian bertan egin behar da, Nafarroa kalean dagoen egoitzara jota edo 943 79 21 68 telefono zenbakira deituta; ordutegia da astelehenetik ostegunera arte 09:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 19:00etara, eta ostiraletan, goizez.



2019an, Mugikortasun Astearen bueltan, patineteen gaineko ikastaroan batutakoak. IMANOL BELOKI

# 'Konbinatu eta mugitu!', ekintzak gertu dituzte

Irailaren 16tik 23ra bitartean, bizikletan, patinetan eta patinetean egiteko ginkanak, haurrentzako patinaje ikastaroa eta bizikletak konpontzeko tailerra izango dira Eskoriatzako Mugikortasun Astearen baitan antolatu dituzten jarduera nagusiak

**Imanol Beloki Unamuno** ESKORIATZA

Urtero egin ohi den moduan, Europako hainbat herrirekin bat eginez, Mugikortasun Astea ospatuko da Eskoriatzan eta aurten irailaren 16tik 23ra izango da. Europako Batzordeak *Hobeto konektatzen* gaia aukeratu du, eta aurtengo zein datozen urteetarako esaldia *Konbinatu eta mugitu!* izango da.

### Ginkana eta puzgarriak

Horren baitan, hainbat ekintza antolatu dira adin guztientzako. Gaur, irailaren 16a, egubakoitza, bizikleta, patinete edo patinekin egin ahal den ginkana izango da, eta baita *pool party*-a, 12 eta 16 urte bitarteko gaztetxoentzat. "Manuel Muñoz kiroldegiko profesionalen eskutik, ginkanan, herrian zehar ondo mugitzeko probak izango dituzte aurretik parte-hartzaileek, 17:00etan gaztelekutik irtenda. Gero, merienda bat izango da jardueran parte hartzen dutenentzat, eta, ondoren, Manuel Muñoz kiroldegiko igerilekuan jarriko diren puzgarriak izango dituzte gozagarri, 18:30etik aurrera", adierazi du Maider Etxanizek, Eskoriatzako Udaleko Gazteria Saileko teknikariak.

### Patinaje ikastaroa

Mugikortasun Asteko ekintzekin jarraituz, datorren astean, irailaren 20an, martitzena, eta irailaren 22an, eguena, patinaje ikastaroa eskainiko da. 17:30etik 18:30ak arte, 5, 6 eta 7 urteko haurrentzako saioa izango da, eta 18:30etik 19:30era, berriz, 8, 9 eta 10 urteko haurrentzat.

Interesa duenak Manuel Muñoz kiroldegira deitu dezake, 943 71 53 28 telefono zenbakira, edo Eskoriatzako *H@zi* arreta zerbitzura, 943 71 44 07 telefono zenbakira. Bertan parte hartzen dutenek hiru euro ordaindu beharko dute.

**IRAILAREN 23AN, BIZIKLETAK KONPONTZEKO TAILERRA IZANGO DA, HERRIKO PLAZAN**

### Segurtasun neurriekin

Irailaren 23an, gaur zortzi, aldiz, Eskoriatzako Mugikortasun Asteko jarduerei amaiera emango diete, eta, horretarako, patinetan egiteko beste ginkana bat izango da, 18:00etan. Gainera, ordu berean, bizikletaren erabilera sustatzeko eta urtero egiten den ekintza ez galtzeko, bizikletak konpontzeko tailerra ere izango da, Fernando Eskoriatza plazan. Bertan, bizikleten oinarrizko konponketak egiten ikasteko aukera izango dute bertaratzen diren herritarrek.

Antolatzaileek jakinarazi dutenez, gaurko eta irailaren 23ko ginkanetan eta patin ikastaroetan parte hartzeko derrigorrezkoa izango da kaskoa erabiltzea, eta baita patinetarako babesak erabiltzea ere.

## Bi bidaia ezberdin, lehen pertsonan kontatuta

'Ostegun bidaiariak' egitasmoko lehenengo hitzaldia hilaren 22an izango da, Leire Zurutuzaren eskutik

**I.B.** ESKORIATZA

Madagaskarren izan da Leire Zurutuza eskoriatzarra abuztuko oporraldian, Oier Eskibelekin batera. Afrikako irlarik handienean, bertako kultura eta natura ezagutzeko asmoz, hilabeteko bidaiari ekin zioten naobaben eta lemurren lurraldera. Egonaldian, erdigunea, hegoaldea eta ekialdea ikusteko tartea hartu dute, eta baita Baraha irla txikia ere. Bertan bizitakoak kontatuko ditu irailaren 22an, Zaldibar antzokian, 19:00etan.



Leire Madagascar-en. L. ZURUTUZA

### Bigarren kontakizuna, eta azkena

Bigarren kontakizuna, berriz, Jon Errasti eskoriatzarrak egingo du, irailaren 29an, 19:00etan, Zaldibarren. Iaz egindako bidaia da, eta Espainiako iparraldea eta hegoaldea lotzen dituen ibilbide historikoa egin du bizikletan: *Zilarraren bidea*. Erromatarrek Meridatik Astorgara eta handik Gijonera eraikitako galtzadatik igarotzen da bidea. Harekin batera beste bi lagun ere izan ziren, eta, guztira, hamabi etapa egin zituzten: 865 kilometro.

## Leintz Udal Euskaltegia zabalik, matrikula irekita

Euskara ikasi edo hobetu nahi duen edonork Leintz Udal Euskaltegian izena emateko aukera du, matrikula epea zabalik baitago, *Niretzat, hiretzat, harentzat. Para todxs, Euskara guztiontzat!* lelopean.

Euskaltegiak maila eta ordutegi askotariko eskolak eskaintzen ditu. Eskolei dagokienez, bi, hiru, edo lau egun astean, txandakako taldeak eta online. Mailari dagokionez, bestalde, euskalduntze maila guztiak eta hizkuntza eskakizunak eta titulu homologatuak. Hala ere, irailaren 12a ezkero, informazioa lortu edo matrikula egiteko euskaltegiak bulegoa zabalik du Euskal Txokoan: Intxaurtxueta auzoa, 10, behea. Astelehenetik ostegunera 16:00tatik 19:00etara eta egubakoitzetan 09:00etatik 13:00era. Telefonoz ere deitu daiteke, 943 79 21 68 zenbakira.





San Pedro eta Intxaurtxueta auzoetako jaietan buruhandiak atera ziren unea. IÑAKI LIZARRAGA

# Berreskuratu, errotu, eta orain, hobetzeko asmoz

San Pedro eta Intxaurtxueta auzoetako jaiak ospatu zituzten joan den asteburuan, eta ekintzek izan duten harrerarekin pozik agertu dira antolatzaileak. Orain, datozen urtekoak buruan, urtean zehar ere ekintzak antolatzeko prestutasuna agertu dute

**Imanol Beloki Unamuno** ESKORIATZA

Giro bikaina izan da San Pedroko eta Intxaurtxuetako *San Pedro txiki* jaietan. Joan zen eguaztenetik domekara bitartean ekintza ugari izan ziren bertaratuentzat, Angela Fernandez *Angelita*-k auzoko adineko pertsonei aitortza gisa botatako txupinazoaren ostean. Hala, pozik agertu dira antolatzaileak festek emandakoarekin.

Bi auzo horietako bizilagunak aritu dira antolakuntza lanetan, eta festak egitea parte-hartze horri esker izan dela posible adierazi dute San Pedro eta Intxaurtxuetako Jai Batzordeko kideek. "Esan beharra dago azkenengoz egin genituenean jende gehiago izan zela. Baliteke ilusio handiagoa zegoela jaiak berreskuratzeko, eta motibazio horrek denoi eragin zigun. Gainera, zubia ere izan dugula kontuan hartu behar da, baina, hala ere, oso pozik gaude jaiek eman dutenarekin. Bertakoez gain, herrigunetik ere etorri dira herritarrak... Txalotzekoa izan da auzotarren lana", adierazi du Andoni Motok.

Suzko erruberak, haurrentzako ekintzak, Irulitxa txaranga, rap saioa, DJ Motorekin dantzaldia, bazkaria, azoka... orotariko ekintzak izan zituzten, baina azpimarratzekoak izan diren hitzorduak ere nabarmendu ditu Motok.

### Musika emanaldien arrakasta

Herri bazkarian 300 lagun batu ziren Partxis plazan jarritako karpan, eta, horrez gain, egun guztietan izan diren musika saioak batu zituzten jende gehien: "Egubakoitzean, ni egon nintzen musika jartzen karpa barruan, eta aurretik egondako rap kontzertua hasi aurretik beteta zegoen ikus-entzuleekin. Arrakastatsuak izan ziren lehenengo eguneko bi saioak, baina baita gainontzeko egunetan izandako erromeriak...".

**300 LAGUN BATU ZIREN 'PARTXIS PLAZAN' JARRITAKO KARPAN BAZKALTZEKO**

### Aurrera begirakoak pentsatzen

Datorren urteko jaietara begira badituzte dagoeneko ideia batzuk buruan, baina ez dituzte bere horretan utzi nahi, eta urte osoan zehar egingo dute lanketa. Hori horrela, urtean zehar ere ekintza jakin batzuk egiteko gogoz ere badaudela adierazi dute San Pedro eta Intxaurtxuetako Jai Batzordeko kideek. "San Pedroko eta Intxaurtxuetako bizilagunei eta gainontzeko babesleei eskerrak eman beharrean gaude. Beraiengatik atera ditugu aurrera festak; bestela, ezinezkoa izango litzateke. Jaiak berreskuratu genituen, eta orain, ondo errotu behar ditugu. Uste dut hori ere lortu dugula, eta urtez urtez hobetzea izan behar du bideak", adierazi du Motok.

## Beheko Errotan musika eta dantza ikasteko aukera zabala

Musika eskolako ikasturte berria hasita dagoen arren, izen-ematea ez dagoela itxita jakinarazi dute

**I.B.** ESKORIATZA

Beheko Errota musika eskolak urrira arte luzatu du matrikula. Ikasturtea hasi arren, aukera du nahi duenak solfeo saioetan parte hartzeko edo instrumentu bat ikasten hasteko. Hori horrela, musika eskolako ikastaroren batean izena eman nahi duenak edo informazio gehiagorako, 943 71 49 95 telefono zenbakira deitu dezake, bertara joan (Hidalga, 5 behea) edo *musikesko@hotmail.com* helbidera idatzi.

Musikaz gain, euskal dantza saioetan ari direnek ere hasi dituzte ikasturteko lehenengo eskolak, eta ohiko taldeak martxan daude, nahiz eta izena emateko aukera irekita dagoen.

Horrekin batera, iaz Ferixa egunean Fernando Eskoriatza plazan Larrain dantza egiteko antolatutako ikastaroak izandako harrera ikusita, helduentzako euskal dantza saioak ere antolatu dituzte, eta herritarrei gonbidapena egin diete animatu daitezen. Astelehenetan izango dira saioak, 18:30etik 20:00etara, eta irakaslea Oihane Vicente izango da.

## GORA ETA BEHERA




### 'Vending'-a jarri dute Aranburuzabalan

Orotariko produktuekin betetako *vending* makinak jarri ditu Aranburuzabalan partikular batek. Makinen kokapena errazteko, Iban Urreta artistak murala egin du bertan.

**EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI?** *berriak@goiena.eus* edo 688 69 00 07.

## OHARRAK

### Erretiratuei omenaldia

Urriaren 2an egingo zaie erretiratuei omenaldia. Bazkaria egingo da, urtero moduan, eta Manuel Muñoz kiroldegian izango da aurten. Bazkarirako joateko, erretiratuen bulegoan eman behar da izena, eta sei euro ordaindu.

### EskoXtrem proba

Asteon jakinarazi dute antolatzaileek MTB proba urriaren 22an egingo dela. 36 kilometroko ibilbidea edo 25 kilometrokoa egiteko aukera izango dute parte-hartzaileek. Izen-ematea zabalik dago *kirolprobak.com* helbidean. Hala ere, egunean bertan ere aukera izango da izena emateko, 300 plazako muga ez bada gainditzen.

ANDRAMAIXAK 2022 LEINTZ GATZAGAN




Leintz Gatzagako jaietan, pilotalekuan egindako herri-afarian batutakoak. BEÑAT AGIRREURRETA

# 'Tristia ni, tristia ni!, datorren urtera arte, ez dau besterik!'

Leintz Gatzagako Andramari jaietarako udaletxeko balkoian ezarritako Nafarroako bandera erraldoia batuz eta abestuz amaitu zituzten festak herritarrek. Herriaren inplikazioarekin eta bertaratuen erantzunarekin konforme agertu da, gainera, Udala

**Imanol Beloki Unamuno** GATZAGA

Joan den eguaztenean hasi, programazioko orotatiko hitzorduekin disfrutatu eta domekan udaletxeko balkoian kantuan eginez amaitu dituzte Leintz Gatzagako jaiak, Andramaixak. Balorazio ona egin dute udalbatzako kideek, eta, hobetzekoak egon arren, herritarren inplikazioa azpimarratu dute, besteak beste: "Jaiak ondo joan dira, eta egunero izan dugu jendea herrian: bertakoak zein alboko herrietatik etorritakoak. Herritarren inplikazioa oso handia izan da antolatutako ekintza guztietan, eta hori eskertzekoa da", adierazi du Beñat Agirreurretak, Leintz Gatzagako Kultura zinegotziak.

**Herri-afaria, nabarmentzekoa**

Egubakoitz gaueko kontzertuetan jende ugari batu zen arren, eta izan zuten harrera onaz gain, herri afaria izan zela herritarrentzako hitzordu kuttunena esan du Agirreurretak. 60 lagun batu ziren frontoian egindako herri afarian, eta, zenbakiari erreparatu gabe, bertan izan zen giroa nabarmendu du: "Urteetan elkartu gabe, herritarrak batzea eta auzolanean lan egiteko prest daudela ikustea ederra izan da. Egubakoitzean, kontzertuetan batu zen jende gehien Gatzagan, eta ikus-entzuleen zein musikarien jarrera ezin hobea izan zen. Jendea gogoz zegoen, eta gau aparta izan zen. Horrekin batera, egun bererako antolatuta genuen haurrentzako apar-festa egunez aldatu genuen, Gatzagako Gurel guraso elkartekoekin hala adostuta eta apar-festaren arduradunekin hitz eginda. Azkenean, domekarako eguraldi iragarpen hobea zegoenez, azken egunera aldatu genuen".

**GUZTIRA, 60 LAGUN BATU ZIREN JOAN DEN ZAPATUAN PILOTALEKUAN EGINDAKO AFARIAN**

**Balkoiko kantua sare sozialetan**

Gatza City Krew Leintz Gatzagako gazte taldeko zenbait kide udaletxeko balkoira igo ziren domekan, Nafarroako bandera erraldoia kentzeko eta jaiei amaiera emateko. Hala, bide batez, kantuan egiteko aprobetxatu zuten. Horrela amaitu zituzten jaiak, eta abestu zuten unea grabatu eta Instagram sare sozialean partekatu zuten, umorez; datorren urteko jaiak hobeak izango direla esan zuten.



Paulo Azpiazu harria jasotzen. MIREIA BIKUÑA



Jaiki Hadi taldearen erritmoan agurtu zituzten jaiak gatzagarrek. MIREIA BIKUÑA



Otxandiarrak Gatzagara iritsi eta ongietorria egin zieten unea. GOIATZ ARANA



Haurrak gustura aritu ziren apar-festan, jolasean. MIREIA BIKUÑA



Umeen danborradaren bultzatzaile nagusi Pello Garitano, 2019an; gaurko danborradan gogoan izango dute. GOIENA

# Danbor hotsekin gogoratuko dute

Atzoko helduen danborradan Pello Garitanoren omenezko 'danbor txikiak' martxa estreinatu ostean, umeek hartuko dute lekukoa gaur (18:30). Jaietako bigarren asteburua betea dator; adibidez, Xaxauren txosna bueltan da Muniben, inoizko egitarau jostagarrienarekin

**Jokin Bereziartua** BERGARA

2020an eta 2021ean pandemiak eraginda danbor hotsik entzun barik egon ostean, indarberrituta itzuli zen atzo helduen danborrada. Izen propiorik aipatu beharra badago, hori ekainean hil zen Pello Garitano da, oso presente izan zuten. Umeen danborradaren bultzatzaile nagusia izan zen Garitano, eta azken unera arte egon zen danborradaren antolaketari lotua.

Danborradako talde guztiek eta Udalak aho batez erabaki zuten Garitano omentzea; bandako zuzendari Enrike Txurrukak konposatutako *Danbor txikiak* martxa lehen aldiz jo zuten atzo, eta asmoa da martxen zerrendan sartzea. Umeen danborradak hartuko dio lekukoa gaur, betiere, Garitano gogoan, udal biltegitik irtenda (18:30).

**Munibeko gunea ere bueltan**

Xaxauk eguaztenean hasi zuen txosnagunearen muntaketa, Muniben. Egitarau zabala antolatu dute; bereziki, egubakoitzerako eta zapaturako. Kontzertuei dagokienez, gaur, Nhil, Golden Blend eta Lizartxo izango dira protagonista, DJ Xaxaurekin batera. Zapatuan, Kilimak, Birgin Mari eta DJ Hirukiak izango dira Munibeko karpako oholtzara igoko direnak. Kontzertuez harago, jolasek protagonismoa hartuko dute ohiko sanmartinen itzuleran: sokasaltoa, bikote jolasa, marianito festaren osteko oliben hezurren jaurtiketa, bingo jolasa eta azeri jolasa antolatu dituzte, besteak beste. Ondo pasatuko dutela diote: "Gogotsu gaude, bueltan datoz benetako sanmartinak". Zapatuko herri bazkarirako txartel guztiak saldu dituzte: "Bazkariak arrakasta handia izan du, jendeak kanpoan geratu behar izan du". Ondoren, bazkalosteko bingo musikatua ere bueltan dator.

Bestalde, xaxautarrek azpimarratu dute jende gehiago beharko dutela antolakuntzan laguntzeko: "Txosnetako txanda guztiak ezin izan ditugu bete, eta, horregatik, eguenean [atzo] 02:00etarako itxiko ditugu txosnak. Hurrengo jaiak antolatzeko jende gehiago beharko dugu".

**AZOKAREKIN BATERA, BUELTAN DATOZ DANBOR HOTSAK, TXOSNAK ETA OHIKO EKITALDI GUZTIAK**

**Kultura arloko hainbat ekitaldi**

Ez daude sanmartinak ulertzerik kultura ekitaldi barik. Moises Azpiazuren omenezko dantza askatu txapelketa eta bandaren kontzertua, adibidez, jaietako klasikoak dira; aurten, *África* ikuskizunaren bueltako ekitaldiek emango diote ukitu berritua jaietako kultura eskaintzari (Ikus 26 orria).

**Gazta, barazki eta fruta onenak**

Ohiko azokarekin batera itzuli ziren gazta, barazki eta fruta lehiaketak. Idiazabal elkarteko kidez osatutako epaimahaiak hogei gazta ingururen artean sari nagusia Lekarozen bizi den Irati Usandizaga Garitaonandia oñatiarrari eman zion; Infernuko Gasna izeneko gazta egiten du 28 urteko gaztagileak. Bi urte daroatza ogibidean. Pozik zegoen; are gehiago, kontuan hartuta Elgoibarko jaietan eta Uharte Arakilgo Nafarroako txapelketan ere lehen saria lortu zuela: "Ea bolada honek jarraitzen duen; urrian Euskal Herriko eta Ordiziako txapelketetan parte hartuko dugu". Hala ere, uda beroa bezain lehorra azpimarratu du Usandizagak, eta inoiz baino lehenago utzi behar izan ziotela gazte egiteari: "Gazta egiteari abuztu erdialdean utzi genion, eta orain ardiak mendi inguruan dabiltza, lehortearekin sufritzen. Azarorako umeak emango dituztenez, indartsu egoteko aparte eman beharko diegu jaten". Gazta lehiaketan bigarren saria Idiazabalgo Ander Barandiaranen Gaztañaditxulo gaztak irabazi zuen eta hirugarren saria, berriz, Elgoibarko Mausitxa gaztak. Barazki lehiaketako lehen saria Soraluzeko Ezozi Etxebarriak irabazi zuen; bigarren saria Izurtzako Eskubaratzek irabazi zuen; eta hirugarren saria, azkenik, Bergarako Mari Karmen Etxebarriarendako izan zen.

**GAZTA ONENAREN EGILEAREN ARABERA, ARDIAK SUFRITZEN ARI DIRA LEHORTEAREKIN**

Fruta lehiaketan bi sari banatu zituen epaimahaiak: lehen saria, Igorreko Urtza Sarrionandiarendako; eta bigarren saria, Aretxabaletako Luis Lonbiderendako. Azkenik, herriko sari nagusia Bergarako Elkoro baserriko Ane Gorosabel arrasatearrari eman zioten.



*Quejoso* zezena; bihar 09:30 aldera irtengo da San Martin plazara. KAKEL

## Zezen garbi bat plazara, lehen aldiz

Sanmartinetako klasiko bat den sokamuturra berezia izango da bihar, Euskal Herrian lehen aldiz zezenketetarako zezen garbi bat irtengo da-eta San Martin plazara; 09:00etan hasita. "Zezen garbi bat da sekula plazara irten ez dena, eta Comision 22 elkarteari esker eta Udalaren oniritziarekin izango dugu Bergaran Euskal Herriko lehen zezen garbia. Ikusmin handia piztu du zezen munduan ari garenon artean. Badakit zezenzale batzuk etortzekoak direla; *Quejoso* du izena eta Los Maños ganadutegi ezagunetik dator. Ea nolakoa den, errekorteak egiteko besteak baino zintzoagoa den... Erreferentzia ia bakarra haren anaia da, Zaragozako zezenketa baten indultatu zutena. Zezen bati heriotza barkatzea oso ezohikoa da, zezen oso berezia den seinale", dio Bergarako Zezenak ganadutegiko Iñigo Almortzak. Euskal Herriko araudiari jarraiki, gehienez 350 kilo ditu *Quejoso*-k.




Mari Kruz eta Mila Andueza, herenegun, Agustin Ugarte Nazioarteko Lankidetzaren aitortzan. DAVID VICENTE

# Lankidetzan eginiko jardunarengatik aitortza

Agustin Ugarte Nazioarteko Lankidetzaren aitortza jaso dute Mari Kruz eta Mila Anduezak. Gipuzkoako Foru Aldundia da antolatzailea, eta Oscar Romero Solidaritza Batzordean eginiko lana aitortu du. Laguntzen beharra azpimarratu dute ahizpek

**Amaia Ramirez de Okariz Kortabarria** BERGARA

1988an sortu zuten Oscar Romero Solidaritza Batzordea, eta orain artean hari bizia ematen aritu dira Mila eta Mari Kruz Andueza ahizpa bergararrak. Ordutik, baina baita lehenagotik ere, hainbat proiektu solidariotan aritu izan dira lanean Erdialdeko Amerikako herrialde batzuetan, baina, batez ere, El Salvadorren. Tabuca eskualdeko nekazari komunitateak dituzte helmuga nagusi, Mikel anaia bizi den leku berbera, hain zuzen. Bada, urte hauetan guztietan eginiko lana aitortua izan dadin, Agustin Ugarte Nazioarteko Lankidetzarako aitortza jaso berri dute bi ahizpek, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eskutik.

"Ohore handia da guretzako. Urte asko daramatzagu lanean, eta orain arte ez dugu horrelakorik jaso ez udaletatik, ez beste inondik, baina garrantzitsua iruditzen zaigu emandako pausoak bistaratu ahal izateko", azaldu du Mila Anduezak, lan hori guztia boluntarioa dela azpimarratuta. Eta jardun beraren garrantzia izan du gogoan Harkaitz Millan Kultura eta Lankidetza diputatuak ere, hala nola "talde lana" eta "gizarte eraldaketaren alde eginiko ekarpena" aitortu nahian.

**Ibilbide luzea eginda**

Zehazki, 30 urte baino gehiago igaro dira bi ahizpek beraien jardunari ekin ziotenetik batzordean, El Salvadorko egoera "oso txarra" zela ohartuta: "Elizaren barruan geunden antolatuta orduan, taldeetan, eta Gipuzkoan zerbait egin behar genuela otu zitzaigun: hilean behin elkartzen hasi ginen, eta orduan sortu zen batzordearen ideia". Oscar Romero gisa izendatzea erabaki zuten. Salvadortarra zen, apaiz katolikoa, eta "behar gehien zutenekin lan eginikoa", Anduezaren hitzetan, baina 1980an hil zuten.

Jardun horretarako, ordea, bi ahizpei zein gainontzeko batzordekideei "funtsezkoa" iruditzen zitzaien bertatik bertara ezagutzea esku hartu beharreko herrialdeetako egoera, eta, beraien kasuan, El Salvadorren ez ezik, Hondurasen eta Nikaraguan ere egonda daude. Are gehiago, orain ere uste berekoak dira. "Badakigu, gutxi gorabehera, nolakoa den hango egoera, eta, ahal den heinean, pixkanaka lagundu beharra dago".

Horretarako, batzuetan, etxeak egiten lagundu dute, edo eskolak, errepideak eta zubiak; beste batzuetan, berriz, baratzeak eta emakumeentzako tailerrak. Dena den, Anduezak argi utzi nahi izan du hitza bertako herritarrena dela, eta ez batzordearena. "Proiektu denak dira beraiengandik sortuak, beraiek eskatuak, eta beraiek zehazten dute nola egin behar den ere; gure eginkizuna, azken batean, horiek hemendik bultzatzeko baliabideak lortzea da".

**Laguntzen beharra**

Izan ere, proiektu bat abiatu ahal izateko, ideiez gain, ohikoenean, dirua ere behar izaten da. Bada, hori erdiesteko, Anduezak azaldu du Eusko Jaurlaritzara jo ohi dutela, baina baita Nafarroako Gobernura, Gipuzkoako Foru Aldundira eta lurralde bereko udaletara ere. Azaldu duenez, Debagoienan parte hartu ohi duten udalak Arrasate, Bergara, Aretxabaleta eta Eskoriatzakoak dira, eta baita Bideberri mankomunitatea ere. "Aspalditik hartzen dute parte, eta oso gustura gaude; aurten ere aurkeztu ditugu hainbat proiektu, baina aurrerago jakingo dugu zer gertatzen den".

Laguntzaren beharraren garrantzian egin baitu azpimarra Anduezak. "Behar asko zegoen lehen eremu horietan, eta, orain, gero eta gehiago; bada, laguntzak jarraitu egin behar du, eta, ahal baldin bada, gero eta gehiago lortu". Hain justu, hori bera izan dute aldarri bi ahizpek aitortza jasotzeko orduan ere, ohikoak diren laguntzaileei urtean emandako zenbatekoa handitzea eskatzearekin batera: "Ahal izanez gero, behintzat".

Horrez gain, herritarrei ere dei egin diete horrelako egitasmoetan parte hartzera, lana boluntarioa izanik, horretarako "prest" dagoen jendea "gero eta gutxiago" dela gaineratuta.

**EL SALVADORKO NEKAZARI EREMU BATEAN HARTU DUTE, BATIK BAT, ESKU AHIZPEK**

## Artea eta zientzia batuko dituzte Laboratoriumeko tailer batean

Intsektuak aztertu, eta ilustrazio zientifikoa landuko dute urriaren 1ean eta 2an. Izena museoan eman behar da

**A.R.K.** BERGARA

Ilustrazio zientifikoa landuko dute *Bergara Artea eta Zientzia uztartuz* tailerrean urriaren 1ean eta 2an, Laboratoriumen. 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara izango da zapatuko saioa eta goizez, berriz, domekakoa.

Intsektuak aztertuko dituzte, entomologoak eta artistak izango balira bezala, eta arte ederretako teknikak erabiliko dituzte horretarako; baita ilustrazio zientifikoa lantzeko kontzeptuak ikasi ere. Horretarako, Carles Puches eta NorArte izango dira irakasle, eta online parte hartzeko aukera ere egongo da.

Tailerraren antolatzaileek, beraz, gerturatzeko gonbidapena egin dute: "Marraztea eta natura erretratatzea gustuko baduzu, ederki gozatuko dugu ikastaro honekin".

Izena emateko, museora deitu daiteke, edo, bestela, bertara joan. 12 eurokoa da kostua, eta helduei zuzenduta dago.

## Itxita egongo da Agorrosin gaurtik domekara arte

Bergarako Udalak jakinarazi duenez, Agorrosingo instalazioetan garbiketa-lanak egiten ari dira, eta, beraz, gaurtik domekara bitartera arte itxita egongo da, kanpoko igerilekua gaur zabalik egongo den arren. Horren ostean, astelehenean hasiko dira 2022-2023ko ikasturteko jarduerekin, eta oraindik ere badago izena emateko aukera.

## Lanhitz dirulaguntzak eska daitezke udaletxean

Enpresetan euskara sustatzeko dirulaguntza da Lanhitz, eta Bergarako Udalak deialdi horren berri emango die herriko enpresei. Hain justu, Eusko Jaurlaritzak ematen du, eta, aurten, ekintza solteetarako laguntzak ere eskatu ahalko dira; esaterako, euskara ikasteko edo Euskaraldirako. Irailaren 30ean amaitzen da eskaera epea.

# "Guztion ardura da euskara hitzez zaintzea"

**ANDREA GONZALEZ** EUSKARALDIRAKO DINAMIZATZAILEA

Gazte bergarararrak gogotsu hartu da erronka; lehen hitzordua irailaren 27ko bilera irekia izango da (18:30), ekimenerako propio hartu duten Barrenkaleko lokalean

**Jokin Bereziartua** BERGARA

*Hitzez ekiteko garaia* izango da Euskaraldiaren hirugarren ediziorako leloa, 2022ko azaroaren 18tik abenduaren 2ra bitartean egingo dena. Irailaren 28an irekiko da norbanakoendako izen-ematea, baina batzordeak jarrita daude martxan. Hori da Bergarako kasua; izan ere, batzordea "buru-belarri" ari da lanean, hirugarren ediziorako dinamizatzaile Andrea Gonzalezek (Bergara, 1999) azaldu duenez. Kazetaritza ikasketak amaitu ditu, eta orain, Ekitaldien Antolaketa eta Kudeaketa ikasten dihardu lanean dabilen bitartean. Hain zuzen ere, *ahobizi* eta *belarriprest* berriak erakarri eta ariguneak sortzeko erronkari heldu dio; hau da, Euskaraldia dinamizatzeko helburuari. Bestalde, aisialdian sare sozialetan asko ibili ohi dela dio; bereziki, Youtuberako eta Instagramerako euskarazko edukiak sortzen.



Andrea Gonzalez, Euskaraldiaren lokal berriaren atarian, asteon. BERGARAKO EUSKARALDIA

**"EKINTZA PLANA HERRITARREKIN BATERA ZEHAZTU NAHI DUGU, HILAREN 22KO BILERA IREKIAN"**

**Zein izango da zure lana Euskaraldiaren edizio berrira begira?**

Bergarako Euskaraldia dinamizatzea eta hori gauzatzeko behar diren guztiak egitea; hau da, entitateek eta norbanakoek hirugarren edizio honetan parte har dezaten askotariko lanak egingo ditut. Euskaraldia iritsi bitartean, ariketa gauzatzen den bitartean eta azken edizioaren balorazioa egin arte burututako ekintzen eta urratsen jarraipen-txostena osatuko dut eta sare sozialen kudeaketaz ere arduratuko naiz.

**Zeintzuk dira hirugarren ediziora begirako nobedade aipagarrienak?**

Norbanakoei dagokienez, hirugarren edizio honetan, lehenengoz Euskaraldian parte hartuko dutenek bakarrik eman beharko dute izena. Aurreko bi edizioetan parte hartutakoek parte hartzea berretsi beharko dute. Entitateen kasuan ere berdin egingo da, aurrez parte hartutakoek parte hartzea berretsi beharko dute, baina, kasu honetan, ariguneetako kideek ere norbanako bezala izena eman dezakete zuzenean.

**Ze puntutan dago batzordea?**

Bergarako batzordea buru-belarri ari da Euskaraldia ahalik eta emankorrena izateko, eta, horretarako, zenbait lantalde sortuko ditugu; betiere, herritarren laguntzarekin. Batzordera batzeko deialdietara edo bilera irekietara etorri eta Euskaraldiaren prestaketan laguntzeko prestutasuna adieraztearekin nahikoa izango litzateke.

**Zehaztu duzue ekitaldi publikorik edo bilera irekirik?**

Ekitaldi publikorik ez dugu zehaztu, ekintza-plana herritarrekin batera zehaztu nahi dugulako. Horretarako, irailaren 27rako bilera irekia deitu dugu Euskaraldiko lokalean, 18:30ean.

**Lokala aipatu duzu. Non dago? Eta zertarako baliatuko duzue?**

Barrenkaleko 35. zenbakian daukagu lokala, Egino Mallea plazatik du sarrera. Herri erdian dago, guztion eskura. Lokala bulego bezala erabiltzeaz gain, zalantzak argitzeko, bilerak egiteko, txapak eskuratzeko eta *merchandising*-a probatu eta ikusteko baliatuko dugu.

**Uste duzu herritarrek badakitela hirugarren aldia badatorrela?**

Lokala ireki dugunez, jendeak bertan mugimendua dagoela ikusi du eta, kuriositatez bada ere, jende asko zer ireki dugun ikustera pasatu da; beraz, Euskaraldia gerturatzen ari dela konturatuko zirelakoan nago!

**Nola bizi duzu euskararen egoera?**

Bergaran eta edozein lekutan euskararen osasuna zaindu egin behar dugula oso argi daukat. Guztion hizkuntza denez, guztion ardura da. Aurreko edizioko leloaz baliatuta, esango nuke euskaraz gehiago, gehiagorekin eta gehiagotan egin beharko genukeela, eta aurten, hitzez ekingo diogu euskara ondo zaintzeko erronkari. Horretarako, irailaren 27an Barrenkaleko 36. zenbakira etorri, 18:30ean!

## Gazte ekintzaileak elkartu nahi ditu Miguel Altunak hilaren 28an

Ideia berriak eta berritzaileak dituzten gazteendako goiz osoko saioa antolatu dute; irabazlearendako, 1.000 euro

**J.B.** BERGARA

Ekintzaileei zuzendutako *EKI-Nola Etorkizuna zure eskuetan* jardunaldia bigarren urtez egingo da Miguel Altuna Lanbide Heziketa Zentroan. Ekainean egitekoa zen jardunaldia irailaren 28an egingo da. Miguel Altuna Lanbide Heziketak, Bergarako Udalak eta Enpresarek antolatu dituzte elkarlanean, Debagoieneko Mankomunitatearen eta Tknikaren laguntzarekin. Izen-ematea irailaren 22ra arte egongo da zabalik; Miguel Altunan eman behar da izena. Tazebaez aholkularitza taldeak gidatuko du jardunaldia.

**Ekintzaileen arteko harremanak**

Ideia berriak eta berritzaileak dituzten gazteendako jardunaldia da hilaren 28koa; autoenpleguaren inguruan "sentiberatze lanketa" eginez, enpresen eta ekintzaileen arteko harremana sortu, elkar ezagutza sustatu, eta negozio ideia berritzaileak partekatu eta landu nahi dira.

Udal Gobernuaren arabera, Bergarak beti izan du "ekintzailetzarako grina. Ekimen honekin izaera hori indartu eta sustatu nahi da, gazteei enpresetan txertatzeko bidea egiten laguntzeaz gainera".

**Ideia irabazleari 1.000 euro**

Jardunaldiari hasiera emango diote Udaleko jarduneko alkate Ainhoa Letek, Miguel Altunako zuzendari Joxu Aranak eta jardunaldiaren gidari Tazebaez enpresako ordezkariek (08:00). Gero, 08:10etik 08:50era, Zerbimek, Garau eta Skura Mobile enpresetako ekintzaileek euren proiektuak azalduko dituzte bost minututan eta ondoren ordu erdiko mahai-ingurua egingo dute.

08:50etik 09:00etara hiru erronkak azalduko dituzte Tazebaez enpresakoek, honako ordutegi honekin: ideien sailkapena eta aukeraketa (09:30-10:00); negozio ereduaren aurkezpena (10:00-10:15); negozio ereduaren eta *buyer* pertsonaren lanketa (10:15-11:15); atsedenaldia (11:15-11:45); prototipoen lanketa (11:45-12:30); *pitching*-aren azalpena (12:30-12:45); *pitching*-aren prestakuntza (12:45-13:15); aurkezpenak (13:15-14:00); sari banaketa (14:00-14:15); enpresa bati omenaldia (14:15-14:30); eta jardunaldiaren itxiera (14:30). Ideia irabazleari 1.000 euroko saria emango diote.

## OHARRAK

### BAZ: zaurgarriendako laguntza eskaera

Bulego telematikoan tramitatu ahalko da zaurgarritasun egoeran daudenei zuzendutako 200 euroko laguntza, irailaren 30era arte. Argibide gehiago: *www.bergara.eus*.

### Hitzaldia: adimen gaitasun handiko umeak

Amaia Agirianok *Adimen gaitasun handiko haurrak* izeneko hitzaldia egingo du irailaren 22an Seminarioan (18:00). Zaintza zerbitzua egongo da; *gazteria@bergara.eus* helbidera idatzi behar da, hilaren 19ko 20:00ak baino lehen. Hezkuntza Mahaiaren lanaren barruan kokatzen da saioa.

### Aidau haurren zerbitzua: ate irekiak

Irailean zehar ate irekiak egingo dituzte Oxirondon. Irailaren 21ean, 23an, 28an eta 30ean, askotariko ekintzak egingo dituzte, 17:30etik 19:30era. Ekintza horietan parte hartzeko ez dago Aidau haurren zerbitzuan izena emanda egon behar, zerbitzua bera probatzea delako helburu nagusia. Hala ere, edukiera mugatua denez, komeni da aldez aurretik abisatzea: 683 38 38 16.

### Kontzertua Mariaren Lagundiko elizan

Etzi, domeka, Musbika taldeak kontzertua emango du, 19:00etan.

# "Abantaila da zelai berean entrenatu eta jokatzea"

**IKER RUIZ DE LARRAMENDI** BKE-KO ENTRENATZAILE BERRIA

Hamabi urte ostean, bergarar batek zuzentzen du BKE futboleko lehen taldea, Iker Ruiz de Larramendik; adierazi duenez, "oso erraz" eman zion baiezkoa eskaintzari

**Idoia Aranbarri Arzuaga** BERGARA

Udan hartu zuen Iker Ruiz de Larramendik Bergarako Ohorezko Erregional Mailako entrenatzaile kargua. Taldea oso ondo ezagutzen du, BKEeko jokalari izan baita hainbat urtez, baita beste mailetako entrenatzaile ere. Gogotsu dago Agorrosingo belarra zapaltzeko. Kargu-hartzeaz, 2022-2023 denboraldiaz eta zapatuko derbiaz aritu da, besteak beste, GOIENArekin.



Iker Ruiz de Larramendi, Agorrosinen. I.R.

**Hamabi urteren ostean, bergarar bat Bergarako lehen taldeko entrenatzaile. Erraz esan zenuen baietz?**

Duela hiruzpalau urtera arte, bigarren taldeko jokalaria nintzen, eta, aldi berean, entrenatzaile izana naiz infantiletan eta alebinetan. COVID-19aren ostean, entrenatzailea falta zen bigarren taldean, eta hor hasi nintzen. Bizpahiru urteren ondoren, aukera hau sortu da eta oso erraza izan da baiezkoa ematea. Azkenean, jokalari bezala ez dut lortu lehenengo taldera heltzerik.

**Lantaldean ere bergararrez inguratuta zaude.**

Unai Irizarrek, Jon Loidik, Aitor Elorriagak eta laurok osatzen dugu entrenatzaile figurako lantalde hori; guztiok herrikoak. Miguel Basterra da atezainen prestatzailea, hura ere bergararra. Maria Mendia fisioterapeuta, aldiz, beasaindarra da. Hala ere, orokorrean, denok gara herrikoak eta ezagunak. Nire iritziz, talde ezin hobea daukat.

**Denboraldiaurrean taldea ezagutzeko aukera izan duzu. Nolako taldea da aurtengoa?**

Egia esatekotan, denak ezagutzen ditut. Batzuekin txikitatik jokatu izan dut: batzuk nire adinekoak dira eta gainerako ia denak nirekin egon dira bigarren taldean edo maila baxuagokoetan. Fitxaketa berriak ezagutu behar izan ditut. Nik neukan ezagutza horrekin joan gara taldea osatzen, belaunaldi berriak taldean sartzen. Gehiago izan da jokalariek gu eta gure ideiak ezagutzea.

**Nolako denboraldiaurrea izan da?**

Ez da erraza denboraldiaurre oso bat egitea Bergara bezalako herri batean. Abuztuan jendeak bere oporraldia aprobetxatzen du, eta kanpoan egoten da. Beraz, denboraldiaurrearekin uztailean hasi ginen. Bi aste egin genituen, eta orduan, hogeita hamarretik gora jokalari izan genituen: lehen taldekoak, bigarren taldekoak eta gazte batzuk. Gero, hogeita bosteko zerrenda batekin hasi ginen, poliki-poliki taldea osatze aldera. Fisikoki, agian, ez da nahikoa izan %100era gerturatzeko, baina joko eta ideia aldetik, lagunartekoak ondo aprobetxatu ditugu.

**Aurreko urtean zazpigarren postuan amaitu zuen taldeak. Aurtengo helburuak zeintzuk dira?**

Sailkapenari baino gehiago, proiektuari begiratzen diogu; hau da, Bergarak daukan proiektuari. Azken finean, joan den urtean bigarren taldea eta gazteak mailaz igo ziren, eta, ondorioz, badakigu belaunaldi berriak indartsu datozela. Beraz, bi erronka nagusi ditugu. Alde batetik, belaunaldi on horiei lekua egiten joatea eta lehenengo taldean urte batzuk daramatzaten horiekin talde indartsua sortzea; beste alde batetik, joan den urteko bigarren itzuli on horri eta eduki zuten jokatzeko modu horri jarraipena ematea. Bi helburu oinarri hartuta, mugarik ez dugu jartzen. Ahalik eta goren geratzea, baina sailkapenerako helburu zehatzik gabe. Ikusten joango gara, eta kategoriak jarriko gaitu gure lekuan.

**Agorrosingo obrak urriaren erdialderako amaitzea aurreikusten dute. Gogotsu zaudete berdegune berria zapaltzeko?**

Ni neu bai. Ipintzan entrenatzen ohituta nago, eta ederra izango da Agorrosinen entrenatzaile izatea. Taldeari begira, dimentsioak-eta handiagoak izango direnez, daukagun ideia horretarako egokiagoa izango da Agorrosin. Desiratzen gaude. Ez dakit noiz hasi ahalko garen entrenatzen eta jokatzen bertan.

**Ipintzako belar artifizialean entrenatu eta Agorrosingo zelai naturalean jokatzen zenuten. Laster, dena leku berean egingo duzue. Eraginik izango al du taldearen jokoan?**

Gure zelaia izango den horretan entrenatzen hasten garenean, pentsatzen dut alde onak nabarituko direla. Azkenean, leku berean entrenatzea eta jokatzea abantaila da. Orain arte ez da hala izan, baina iruditzen zait zelai naturala izate hori aprobetxatu dugula. Hemendik aurrera, ezberdina eta positiboa izango da.

**Hurrengo partida, zapatuan, 16:00etan, Mondraren aurkako derbia Ipintzan.**

Taldea oso ilusionatuta eta gogotsu ikusten dut. Nahiz eta Agorrosin oraindik amaituta ez egon, taldeak gogo handia dauka lehiatzeko. Asteburuan ikusi zen Zarautzen zelako partida egin genuen, nahiz eta galdu. Oso pozik geratu ginen egindako lanarekin. Derbiak beti dira derbi. Lehia guztietan nahi izaten dugu hiru puntuak eskuratu; derbian, ordea, oraindik eta gehiago. Denboraldi honetan etxean jokatzen dugun lehen aldia da eta lagunak, ezagunak, familiakoak eta taldea bera gogotsu daude. Gainera, sanmartinak izanda, giroa egotea espero dugu; baita jendea Ipintzara animatzera etortzea ere. Badakigu Mondra konpetitiboa dela, baina denboraldiko lehenengo hiru puntu horien bila goaz. Duela bi asteko lagunartekoa oso lehiatua izan zen. Ez zuen ematen denboraldiaurreko partida zenik. Bi taldeak irabaztera aterako gara, eta benetako derbia izango da.

**"LEHIAKORRA DA MONDRA, BAINA HIRU PUNTUEN BILA GOAZ; BENETAKO DERBIA IZANGO DA"**

## Bergara Hiria, donostiarrentzat

Aurrez aurre aritu ziren Donostiako IDK Euskotren eta Zamorako Zaramat taldeak joan den egubakoitzean jokatu zen Bergara Hiria torneoaren laugarren edizioan. Gipuzkoarrak nagusitu ziren, hiru puntuko aldearekin (53-50). Amaierara arte norgehiagoka parekatua izan bazen ere, laurden guztietan nagusi izan ziren donostiarrak.



XABI URZELAI

## Pili Arinen luzaketa saioak Agorrosinen urritik aurrera

Bi urteko etenaldiaren ostean, Pili Arin urritik aurrera berriro hasiko da luzaketa saioak eskaintzen. Astelehenetik egubakoitzera izango dira, urte osoan –abuztua barne– Agorrosin kiroldegiko luzaketa gelan, goizeko bederatzietatik aurrera. Jarduera doakoa da, eta kiroldegiko bazkide izan behar da parte hartzeko.



Lizarran egin zuten *África, las dos orillas* musikalaren aurrestreinaldia, maiatzaren 14an. V.M.

# Musikala, dantza eta banda sanmartinetan

Urriaren 1ean eta 2an egingo dute Seminarixoan 'África' musikala, baina domekan emanaldiaren pasarteak interpretatuko dituzte 40 lagunek herriko kaleetan; horretaz gain, dantza askatu txapelketa eta bandaren emanaldiak ere izango dira asteburuan

**Idoia Aranbarri Arzuaga** BERGARA
San Martin jaietan murgilduta jarraitzen du Bergarak, eta gaurtik domekara ere beste hainbat ekitaldiz gozatzeko aukera izango dute bertaratzen direnek.

Horietako bat izango da *África, las dos orillas* musikalaren zati ikusgarrienak herriko kaleetan zehar aurkeztea, domekan, 18:30etik aurrera. Hamabost minutuko hainbat pasadizo aukeratu dituzte, eta hauxe adierazi du Valen Moñux eszena zuzendariak: "Lizarran egindako aurrestreinaldia oso ondo joan zen, eta ikusita ikuskizunak pasarte eta koreografia oso koloretsuak eta indartsuak dituela eta oso egokia dela kalean ere erakusteko, pentsatu dugu musikalaren aurrerapen bat egitea San Martin jaietan herriko hainbat puntutan". Oraindik ibilbidea guztiz zehaztu gabe daukate, baina, Moñuxek aurreratu duenez, gutxi gorabehera, gune hauek igaroko dituzte: Espoloia, plaza, Arrurriaga, Mazterreka, Simon Arrieta, Fraizkozuri eta Irala. Guztira, kale agerraldian berrogei lagunek hartuko dute parte: "Afrikar jatorriko bost dantzarik, 30 bat kantarik eta sei musikarik".

Pandemia dela-eta hainbat aldiz atzeratu den arren, urriaren 1ean (19:00etan zein 22:30ean) eta 2an (19:00etan) taularatuko dute ikuskizuna, Seminarixoan, Bergarako Musika Eskolako ikasleek, artista gonbidatuek eta dantzariek. Dagoeneko sarrerak eskuragarri daude *seminarixoa.eus* webgunean zein aretoko leihatilan –eguazten arratsaldeetan–. Estreinaldia gazteleraz izango da. Dena den, lantaldeak euskarazko emanaldia ere prestatuko du; 2023rako aurreikusten dute.

**Dantza askatu txapelketa**

Bikote Nagusien 37. Dantza Txapelketa jokatuko da bihar, arratsaldeko zortzietan hasita, Seminarixoan. Guztira, zortzi bikotek hartuko dute parte; horietatik zazpi gipuzkoarrak dira eta bestea, berriz, gipuzkoar-bizkaitarra.

Bikote bergararra Saioa Galarragak eta Julen Murgiondok osatzen dute, eta faboritoen artean daude. Udan txapelketa asko jokatzen dira eta, esaterako, Elgoibarko San Bartolome jaietako txapelketa irabazi zuten. Ordutik beste pare bat jokatu dituzte, eta bigarren eta hirugarren postuetan sailkatu dira. Dena den, gogotsu daude herriko hitzordurako: "Herriko txapelketa beti izaten da berezia. Presioa handiagoa da, baina gozatu ere asko egiten da. Aurten, gainera, nahiko ondo gabiltza. Denbora gutxiago izan dugu entseatzeko, baina uda ondo doa". Uda borobiltzeko, etxean irabaztea falta zaie.

Bergarakoekin batera bikote hauek hartuko dute parte: Alaia Amubieta eta Amets Amubieta (Azpeitia), Nahia Urkizu eta Ione Aranberri (Azpeitia-Itziar), Elaia Elorza eta German Aranburu (Azpeitia), Maren Galvez eta Gorka Granado (Lezo-Sopela), Nora Aizpuru eta Iker Zabala (Azpeitia), Leire Urrestilla eta Iker Urrestilla (Zestoa) eta Ane Jaunarena eta Endika Osa (Lezo).

Hiru sari egongo dira jokoan. Txapeldunek Udalak emandako garaikurra, txapela eta zapia eta 200 euro irabaziko dituzte; bigarren eta hirugarren postua eskuratzen dutenek, berriz, 170 euro eta 180 euro, hurrenez hurren.

**Bandaren emanaldia**

Atzoko danborradaren ostean, berriro aterako da kalea girotzera Bergarako Musika Banda. Lehendabizi, 11:30ean, kalejira egingo dute herrian barrena, eta ondoren, eguraldi iragarpena ikusita, Udal Pilotalekuan izango da emanaldia, 12:30ean.

Kontzertua abesti berri bezain berezi batekin hasiko da; zehazki, *Danbor txikiak* piezarekin. Bart gauean estreinatu dute helduen danborradan Pello Garitanori eskainitako martxa; Enrike Txurruka bandako zuzendariak konposatua. Pieza berriaz gain, Juan Crisostomo de Arriagaren *Nada y mucho*, Miguel Gonzalez Bastidaren *Nagasaki*, Jacob de Haanen *Virginia* eta Antonio Carlos Jonbimen *The girls of Jobim* joko dituzte.

**ORDU LAURDENEKO PASADIZOAK INTERPRETATUKO DITUZTE BERGARAKO KALEETAN ZEHAR**

## Sorkuntza artistiko ikastaroa Amaia Santamariaren eskutik

Hainbat teknika landuko dira urritik ekainera bitartean, ostiral arratsaldero; dagoeneko izena eman daiteke

**I.A.A.** BERGARA
Laugarren urtez, *Sorkuntza artistikoa* izeneko kurtsoa antolatu du Amaia Santamaria sortzaile eta Hezkuntza Artistikoko irakasle bergararrak. Urritik ekainera bitartean izango da ikastaroa, egubakoitz arratsaldero, hiru orduz, Bearten. Margolaritza, argazkigintza, irudigintza, eskultura eta collagea lantzen dira bertan.

Santamariak azaldu duenez, bi hilabetean behin teknika aldatzen du, baina "denak konexioa izaten saiatzen naiz. Diziplina amaitzen dugunean, teknika berrian integratzen saiatzen gara". Ariketa bat planteatzen du, eta "hortik tiraka norberak esperimentatzen du".

Hark azaldu duenez, "12-13 urtetik gorakoentzat da, goitik ez dago mugarik", eta aurretik ezagutzak dituztenak nahiz teknikarik ez dutenak dira ongietorriak. Behin eta berriz azpimarratu du helburua norbera teknikarekin "eroso" egotea dela: "Errekurtsoak ematen ditut; norberak deskubritu behar du zer gustatzen zaion, zerk motibatzen duen, zer interesatzen zaion... Modu asko daude gauzak sortzeko. Garrantzitsuena bakoitzak nahi duen moduan egitea da. Denok gara kapaz espero ez ditugun gauzak sortzeko".



Sorkuntza artistiko eskola bat. A.S.

Dagoeneko izen-ematea zabalik dago. Interesa duen orok Santamariarekin jarri behar du harremanetan, 690 25 14 50 zenbakira deituta. Prezioa hileko 40 eurokoa da.

UEFA women's CHAMPIONS LEAGUE

# Realaren eta Bayernen arteko partidarako sarrerak **futbol zelaiko tokirik onenean**

UEFA women's CHAMPIONS LEAGUE




Hartu parte zozketan!

**GOIENAKIDEENTZAKO ESKAINTZA**

Emakumezkoen Txapeldunen Ligako Reala-Bayern partida beste modu batera ikusteko aukera bikaina duzue eskura zuk eta zuk aukeratutako beste lagun batek: Reale Arena futbol zelaiko tokirik onenetik. Irailaren 20an, martitzena, 19:00etan.



- Eserlekuak Premium gunean
- Catering zerbitzua
- Aldageletako tunelean jokalariak ikusteko aukera



- Ikus-entzunezko erabilerak
- Atentzio eta zerbitzu pertsonalizatua
- 353 metro karratuko gunea

**Ezin errazagoa da zozketan parte hartzea!**

**1.** Aplikazioa deskargatu.

**2.** Zozketak atalean sartu eta parte hartu.

**Gertu.** Zorte on!

goiena kide

***Okm:*** *batzen gaituen distantzia*

www.goiena.eus/kideak



Sara Arietaleaniz eta Oier Peñagarikano, Arrolako kideak. M.A

# Urriaren 8an ospatuko dute Arrola Eguna

Oraingo eta lehengo Arrola-kideek elkarrekin ospatuko dute Arrola Eguna urriaren 8an, zapatua. Herriko mendizaleendako egun osoko egitaraua gertu dute jada. Herri bazkarirako txartelak ere salgai jarriko dituzte Kalebarrenen ondorengo egunetan

**Maider Arregi** ANTZUOLA
Urriaren 8rako, zapatua, egun osorako jai-egitaraua antolatu du Arrola Mendizale Elkarteak. Aste barruan, ordea, Arrola Eguneko festa girotzen hasiko direla kontatu du Oier Peñagarikano Arrolako kideak: "Aste horretako martitzenean hasiko gara ekintzekin. Hala, mendian segurtasuna eta lehen sorospena lantzeko ikastaroa egingo dugu. Mendi gidari batzuek emango dute ikastaroa".

Hala, urriaren 8an, 08:30ean, mendi irteera egingo dute Arrolara. Salda eta txorizoa banatuko dizkiete Lizargaraten. 13:00etan, berriz, bertso poteoa egingo dute herrian zehar, eta 14:30ean herri bazkaria eskolako patioan. Arrolak ondorengo egunetan sarrerak salgai jarriko ditu, 20 euroren truke, Kalebarrenen jarriko duen postuan. "Bazkalostean, jolasak eta ekitaldi txiki bat egingo ditugu, eta arratsaldea bertsolariek girotuko dute. 21:30ean, aldiz, Musu-truk taldearekin erromeria izango da Kalebarrenen".

Arrola Egunaren helburuetako bat orain artean lanean jardun dutenei aitortza egitea da; baita belaunaldi gazteei bidea zabaltzea ere. "Arrolak historikoki izan du askotariko adin tarteetako herritarrak batzeko gaitasuna. Hala, badaukagu urriaren 8an hori ikustarazteko nahia ere, eta, modu horretan, lehen, orain eta etorriko direnak batzeko gogoa dugu; mendian ibiltzen diren oro elkartuta, alegia".

### 50. urteurreneko balorazioa

Urtarrilean abiatu zuen 50. urteurreneko ospakizuna Arrolak. "Urte oso polita izaten ari da; herritarrek parte hartu dute antolatutako ekintzetan eta kamisetak agortu diren artean erostera ere animatu dira. Balorazio positiboa egiten dugu, noski. 2024ko urtarrilera arte urteurrenarekin lotuta etorriko dira negu sasoirako lotzen gabiltzan ekintza gehiago ere".

**ARROLAREN ARGAZKI LEHIAKETAN IZENA EMATEKO AUKERA HILAREN 20RA ARTE DUTE ANTZUOLARREK**

### Pirinioetara irteera

Gaurtik domekara bitartean, Arrolako kideek Garmo Negro eta Ibones Azulesera irteera egingo dute. "Asmoa da zapatuan Garmo Negro igotzea eta domekan Ibones Azules".

Asteburu osoko irteera aprobetxatuta, Arrolaren kamiseta jantzita udako argazki lehiaketan parte hartzera animatu nahi ditu herritarrak Sara Arietaleaniz Arrolako presidenteak: "Harrera ona izaten ari da lehiaketa; bereziki, Instagram bidezko bidea erabili dute. Hilaren 20ra arte parte har dezakete herritarrek eta asteburuko irteera ere aprobetxatu dezakete".

## Bide Berdeko lanen zain jarritzen dute antzuolarrek

Aldundiak dio lanak esleitu zaizkion enpresari izapide administratibo bat egitea falta zaiola obrak hasteko

**M.A.** ANTZUOLA
Trenbide zaharraren egoera, Antzuola parean, ez da egokiena, eta obrak egiteko zain daude herritarrak. Uztailaren 7an, beste lur-jausi bat gertatu zen Galartza baserri inguruan dagoen tunelaren alboan eta ordutik bere horretan jarraitzen du eremuak. Ez da bide horretako lur-jausi bakarra, gainera. Gainera, itxita dago Jauregiko tunela 2019ko Santa Luzia egunetik.



Galartza inguruko lur-jausia. L.Z.

### Obrak "hastear" dira

Gipuzkoako Diputazioko Mugikortasun Sailak GOIENAri jakinarazi dio izapide administratibo bat egitea falta zaiola lanak esleitu zaizkion enpresari. "Prozesu administratiboa amaitzeko tramite bat betetzea falta zaio enpresari; behin tramiteak amaituta, obrak hasiko dituzte, eta Antzuolako Bide Berdean dauden bi lur-jausiak konponduko dituzte".

Hala, ia 200.000 euroko diru-lerroa dago izendatuta bai Jauregiko tunela konpontzeko, eta baita Galartza baserriaren inguruan dagoen lur-jausi berria konpontzeko ere.

### Antzuolan euskara zenbat erabiltzen den neurtu dute

2021ean, Soziolinguistika Klusterrak ikerketa egin zuen, Antzuolako euskararen erabilera neurtzeko. Orain, ikerketa horren emaitzak jakinaraziko dizkiete herritarrei. Hala, hilaren 20an, martitzena, aurkeztuko dute ikerketa, 18:30ean, Torresoroa aretoan. Eta, ondoren, 19:15ean, Patxi Saizen kantaldia izango da.

### 'Izurdeen aurreko bizitza' eleberria aztergai liburutegian

Antzuolako irakurketa kluba martxa onean doa; beste topaketa bat egingo dute irailaren 22an, eguena. Hala, euskarazko irakurle taldea 18:30ean elkartuko da, udal liburutegian. Oraingo saioan, hain zuzen, Kirmen Uribe idazlearen *Izurdeen aurreko bizitza* eleberri arrakastatsuaren inguruan jardungo dute, Alaine Agirre idazlearen gidaritzapean.

## OHARRAK

### 'Yogipuinak'

Yoga eta ipuin saioa eskainiko du Maite Arresek: *Yogipuinak*. Hain zuzen ere, 5 urtetik gorako haurrendako da, 17:00etan, Olaran etxean.

### Odol emateko aukera

Hilaren 20an, Olaranen odola emateko urteko azken aukera, 16:30ean. Goizean eskatu beharko da txanda: 943 00 78 85.

### Bigarren eskuko azoka

Hilaren 24an, zapatua, egingo dute bigarren eskuko arropa azoka eta haurrendako jostailuen truke azoka 11:00etatik 20:00era Zurrategin –euria bada, eskolako patioan–.

# "Oso garrantzitsua dira diziplina eta motibazioa"

**AITOR AIERBE** AKE-KO ENTRENATZAILEA

Erregional preferenteko entrenatzaile berria da 32 urteko Aitor Aierbe azpeitiarra. "Motibazioz eta gogoz" jokatzea dute xede; domekan UDAren aurka jokatuko dute

**Maider Arregi** ANTZUOLA

Erronka berriari aurre egiteko "prest eta gogotsu" dago Aitor Aierbe AKEko lehen taldeko entrenatzaile berria. Entrenatzaile eskarmentuduna da, ordea, eta zortzi bat urtez Lagun Onak taldeko entrenatzaile aritu da, hainbat mailatan; iaz, gainera, talde azpeitiarra ohorezko mailara igotzea ere lortu zuten.

**Ondo etorri, Aitor! Nola jaso zenuen entrenatzaile izateko proposamena?**
Oso ondo; futbolean jarraitzeko gogoz nengoen eta onartu egin nuen Antzuolaren proposamena. Hasiera batean, Lagun Onak-en jarraitzeko aukera izango nuela uste nuen, baina nahiko berandu abisatu zidaten ez nuela jarraitzerik izango. Gerora, beste aukera batzuk ere izan nituen, baina, hainbat arrazoirengatik, ez nituen onartu, eta orduan iritsi zitzaidan Antzuolako eskaintza, eta onartu egin nuen.

**Iaz, sufrituta, mailari eustea lortu zuen Antzuolak.**
Taldeko jokalarien artean ilusioa egon badago, eta egunerokotasunean jarrera egokia izaten bada eta entrenamenduetan lan egiten bada, horri emango diot nik balioa. Erronka da, baina diziplina eta entrenamenduetan saiatzea ezinbestekoa da.



Aitor Aierbe, Eztalan. A.A.

## "ERASOAN ETA DEFENTSAN INDARTSU JARDUTEA IZANGO DA GURE ASMOA DOMEKAKO DERBIAN"

**Zein helburu dituzu hastear den denboraldi honetarako?**
Partiduetan dena ematea; batzuetan, gauzak alde aterako zaizkigu, beste batzuetan, berriz, aurka... Baina kontzientzia lasai izango dugu dena ematen baldin badugu. Horretaz aparte, gure helburuen artean ere badago herritarrak futbol zelaira etor daitezen sustatzea eta animatzea. Baita, era berean, giro ona sortzea ere.

**Eta lehen partidua, derbia Ibarran.**
Bai, domekan, 16:30ean. Partidu gogorra izango da; izan ere, UDAk talde ona izango duelakoan nago. Gazteak Euskal Ligan ditu, eta talde ona izango dute, ziurrenik. Denboraldi-aurre ona egin dute, gainera. Erasoan eta defentsan indartsu jardutea izango da gure asmoa.

## Motibazio handiko talde gaztea

Talde gaztea du Antzuolak eta oraindik ere elkar ezagutzen ari direla aitortu du Aitor Aierbe entrenatzaileak: "Denboraldi-aurrea geroago hasi genuen eta oraindik taldea ezagutzen ari gara"; izan ere, beteranoek taldea utzi dute, eta orain, gazte mailatik igo diren taldekide berriek ere osatzen dute taldea. Helburua lehiakorrak izatea da.



Jokalariak astelehenekoentrenamenduan, Eztalan. AITOR AIERBE




HASIER LARREA

## Auto klasikoak Buztinzurin

Ikusmin handia sortu zuen domekan Buztinzuriko jaien baitan egindako ibilgailu klasikoen topaketak. Guztira, askotariko modeloetako 25 autok parte hartu zuten, eta Buztinzuri kalea kolorez jantzi zuten. Hamaika zaldiko Citroen autoari saria eman zioten, aurkeztu zen ibilgailurik zaharrena izateagatik, hain justu ere.

## Ur txorroak itxita daude

Pixkanaka-pixkanaka amaitzen doa Debagoienean ere bainu denboraldiaren sasoia; hala, Antzuolan ere domekaz geroztik itxita daude Sagasti auzoko ur-jolas parkeko txorrotak. Bero galantari aurre egiteko azken hilabeteetan aisialdirako gune aparta izan dute herriko neska-mutikoek, ezbairik gabe, eta gozatu ederra hartu dute.



MAIDER ARREGI

MUJIKA HARATEGIA
Berezitasunak: Etxean hazitako zekorrak eta oilaskoak
Kalebarren 1
ANTZUOLA
Tel.: 943 76 64 34

LARREA
TABERNA
Kalebarren 17
ANTZUOLA

# Herriko ekoizleek hartuko dute plaza bihar

Baserritarren eta artisauen azoka, Intxortako igoera eta tirolina daude iragarrita 10:30etik 13:30ak aldera arte. Hamabost bat postuk osatuko dute azoka. Gehienak herriko ekoizleek ipiniko dituzte. Bi dira kanpotik etorriko direnak

**Larraitz Zeberio Lekuona** ELGETA
Sesto, Zabaleta eta San Antonio baserrietako barazkiak izango dira bihar goizean herriko ekoizleen eta artisauen azokan. Baita ere, Zezeagako ogia, Olatza baserriko eztia, Baobeer garagardo artisaua eta Herri Eskolako zein baratze parkeko ortuetako produktuak. Urtero moduan marokoar gozoak dastatzeko eta erosketa aukera ere izango da –bi postu–, eta horrekin batera Lorena Ibeasen eta Pili Arinen artisautza lanak. Kanpotik etorriko diren ekoizleak dira Elgetako kontsumo taldeko hornitzaile diren Iñigo Gabilondo –Bergarako Zearreta baserrikoa– zein Antzuolako Amatxo gaztak, eta Karlos Heriz berakatz produktuekin.

Ez da baserriko lanetarako uda ona izan honakoa. "Egon den lehorteagatik urte txarra izan da orokorrean", azaldu du Baserritarren batzordeko buru Sebastian Arantzabalek. "Tomatea bezalako produktu batzuk ondo joan dira, baina gainerakoekin gehienetan arazoak izan dira, eta gutxiago ekoiztu da".


Azoka eguna, pandemia aurretik, Elgetan. ARTXIBOA

**BERTAKO ETA GARAIKO PRODUKTUAK ESKAINIKO DITUZTE EKOIZLEEK**

### Tirolina umeendako

Udaletxeko armarriaren azpian dagoen leihotik ikurrina dagoen plazako izkinaraino hegan egiteko aukera izango dute bihar neska-mutikoek. Azoka zabalik dagoen bitartean egongo da erabilgarri tirolina. Aurretik ere hirutan egonda dago udazkeneko azokan; 2018an, 2019an, eta iaz. Harrera ona izaten du.

### Intxortako igoera

Herri mailako erronka polita izaten da Intxortako igoera eta aurten ere ikustekoa izango da. Eleder Lozanok eta Argider Txurrukak dituzte markarik onenak. Lozanok kale egingo du bihar; izan ere, Atxondoko Sorginen Lasterketan parte hartzekoa da. Txurrukak badu parte hartzeko asmoa, baina osasunez pattal dabilela aurreratu du. Hutsik egingo ez dutenak Egizabaldarrak dira. Irteera puntuan izango dira bai Iñaki, bai Martin eta bai Pablo.

## Berriz ere azkarrenen bila

Zapatuan jokoan izango da, berriz ere, Intxortako igoera. 25. edizioa izango da aurtengoa, eta 11:00etan abiatuko da. Izen-ematea 10:20ean zabalduko dute, plazan. Ohikoa den moduan, hiru lasterketa jokatuko dira; 16 urtetik gorakoena, 12-16 urte artekoena eta 12 urtetik beherakoena. Iaz, Egizabal anaiak izan ziren jaun eta jabe.


2019ko parte hartzaileak alkatearekin batera. ARTXIBOA

# Euskara bultzatzeko ekimenak ere, ikasturtea abiatzen

Elgetan Berbetan ekimenean zein Hitzez Pitz irakurketa taldean izena emateko epea zabalik da

**L.Z.L.** ELGETA
2015ean sortu zen herrian Elgetan Berbetan mintzapraktika egitasmoa. Ordutik, askotariko taldeak egon dira eta zortzigarren ikasturtea izango den honetan helburua berbera da: herritarren artean euskaraz egiteko ohitura zabaltzea. Horretarako, etxetik gertu euskara ikasi nahi duen jendeaz gain, euskaraz hitz egitea sustatu gura duen jendea ere deituta dago parte hartzera. Nahikoa da astean ordubeteko konpromisoa hartzea. Hori eskatzen da.

Hitzez Pitz irakurketa taldearekin ere laster hasiko dira udal liburutegian. Mailakatutako eta irakurketa errazeko euskarazko liburuak hartzen dituzte oinarri. Nork bere etxean irakurtzen ditu eta irakurritakoaren gaineko solasaldia egiten da hamabostean behineko saioetan.

Batean zein bestean parte hartzeko liburutegira jo behar da. Harremanetan jartzeko beste bide hauek ere zabalik daude: *berbetan@elgeta.eus*, *elgetakoliburutegia@elgeta.eus*, 688 72 96 03 –Whatsapp zein Telegram–.


ELGETAKO LUDOTEKA

## Hasi da ikasturtea ludotekan ere

Astelehenean zabaldu zituen ateak ludoteka zerbitzuak, eta, eguraldia lagun, ur jolasekin gozatu ederra hartu zuten neska-mutikoek. Zazpi erabiltzailerekin abiarazi du kurtsoa ludotekak, eta ikasturte osorako erabiltzaileak dira. Izen-emateak zabalik jarraitzen du. Hileko zein eguneko bonuak ere badaude aurten.

## Bisita gidatua Donejakue bideko baselizak ezagutzeko

Ezkutuko Altxorrak programaren iraileko egitarauaren baitan, Donejakue bideko Elgetako baselizak ezagutzeko aukera izango da bihar. Bisita gidatua egingo du Nerea Villak, 10:00etan Elgetako Mendizaleen plazatik abiatuta. Interesatuek *infoturismo@debagoiena.eus* helbidean edo 943 79 64 63 telefono zenbakian eman behar dute izena.

## OHARRAK

### Mendi irteera

Kantsatzekek antolatuta, domekan irteera Maizara.

### Garbigune ibiltaria

Salbador kalean egongo da, eguaztenean, 10:00etatik 21:00etara.

### Boluntario eske

Urriaren 9ko antzezturiko bisita gidaturako jendea behar da. Deitu Nerea Villari.

# Elgetan ere Euskaraldia prestatzen hasita daude

2018an eta 2020an bezala, 'belarriprest' eta 'ahobizi' portaerak hartzeko dei egin du Elgetako Euskaraldia batzordeak. Eguaztenean egin zuten uda osteko lehenengo batzarra eta hilaren 24ko argazkian parte hartzeko gonbidapena egin dute



'Ahobizi' eta 'belarriprest' Elgetan. L.Z.L.

**Larraitz Zeberio Lekuona** ELGETA

Berritzailea izan zen 2018ko Euskaraldia, eta mundu mailako pandemia baten erdian egin zen 2020koa. Ahozko hizkuntza-ohituretan eragitea helburu duen ariketa sozialaren hirugarren aldia ate joka dator, eta bi hilabete besterik ez da falta; izan ere, azaroaren 18tik abenduaren 2ra bitartean egingo da. *Hitzez ekiteko garaia* lelopean izango da.

Elgetako Euskaraldia batzordeak eguaztenean egin zuen udako etenaldiaren osteko lehenengo batzarra. Orain bai, martxa hartu beharra dago, eta, hasteko eta behin, bi deialdi zehatz egin dituzte: lehenengo, Euskaraldian izena ematea garrantzitsua dela azpimarratzeko herri mailako talde argazkia ateratzea proposatu dute. Hilaren 24an izango da, 19:15ean, Mendizaleen Plazan. "Nahi genuke jende multzoa pilatzea argazkian. Beraz, apuntatu agendan", azaldu dute. Batzordetik gaineratu dute Goibeko Euskaltzaleen Topagunetik, eta jai giroa sortzeko, tortilla lehiaketa antolatu dutela. "Egun horretan bertan egingo dute, 18.00etan hasita. Argazkia aterako da, epaimahaiko kideek saritua erabakitzen duten bitartean".

Argazkia atera eta lau egunera, hilaren 28an, zabalduko da norbanakoen izen-ematea Euskaraldirako. *Ahobizi* edo *belarriprest* izatea daude aukeran.

### Rolak ondo ulertu

Euskara ulertzen duten 16 urtetik gorako hiztunendako ariketa da Euskaraldia. Rolei dagokienez, gakoa jokaeran dago, ez gaitasunean. Antolakuntza orokorretik jakinarazi dute Euskaraldian lehen aldiz parte hartuko dutenek soilik eman behar dutela izena hirugarren edizio honetan. Hau da, aurreko edizioetan izena emandakoek mezu bat jasoko dute, eta parte-hartzea berrestearekin nahikoa izango da haiendako.

Garrantzitsua da jakitea txapak aurten berriak izango direla. "Diseinua aldatu egin da eta aurtengoak koloretakoak izango dira". Urriaren 24ko astean helduko dira txapa berriak herrira eta orduan zehaztuko du Euskaraldia batzordeak noiz eta non egingo den banaketa; betiere, urriaren 24a eta azaroaren 17a bitartean.

2018ko Euskaraldian 220 *ahobizi* eta 42 *belarriprest* izan ziren Elgetan. Pandemia sasoian egindako 2020ko Euskaraldian, berriz, 173 *ahobizi* eta 27 *belarriprest*.

### Ariguneak indartu

Norbanakoen izen-ematea hilaren 28an zabalduko da, baina ariguneak eratu nahi dituzten entitateendako maiatzaren 16ko astean ireki zen. Elgetako Euskaraldia batzordea asteotan jarriko da harremanetan aurreko Euskaraldian izena eman zuten Elgetako hemeretzi entitateekin. Idatzi bat helduko zaie ariketa sozialean berriz ere izena emateko zer egin behar duten azalduz.

Elgetako Euskaraldia batzordetik gogorarazi dute ariguneak euskaraz lasai aritzeko guneak direla, *belarriprest*-ez eta *ahobizi*-z osatuak. Bi arigune mota daude: taldeek sortutakoak edo entitateak eta herritarrak harremanetan egoteko espazioetan edo dinamiketan sortzen direnak.

**TALDE ARGAZKIA HILAREN 24AN EGINGO DUTE ETA HURRENGO BATZARRA HILAREN 28AN**

### Ikusgarritasuna kalean

Ariketa ondo egitea garrantzitsua da, eta euskarak kaleko presentzia berreskuratzea ere bai. Hori horrela, Euskaraldia batzordea kaleko ekintzak prestatzen ari da. Euskaraldiko materiala eta Euskaraldiko banderak erosteko aukera izango da herrian, eta antolatu ahala ezagutzera emango diren ekintzak ere izango dira.

### Hurrengo batzar irekia

Hilaren 24ko kale agerraldiaren ostean elkartuko da berriz Elgetako Euskaraldia batzordea antolaketa lanetan aurrera egiteko. Batzar irekia izango da, 18:30ean, Ozkarbi elkartean.

## Bazkari ezin bereziagoa

Atzo, 80 urtetik gorako 32 elgetar elkartu zituen Xalbadorpe erretiratuen elkarteak Ozkarbi elkartean. Meza entzun eta bazkaria egin zuten. Halaxe egiten zuten pandemia aurretik ere. Zalantzarik gabe, albiste ederra da 80 urtetik gorakoen bazkaria bueltan izatea. Bi urtetik behin egitera bueltatzea da Xalbadorpeko zuzendaritzako kideen asmoa.



L.Z.L.

# Ikasturterako eskaintza prest du Pake Lekuk

Egindako ikastaroek, hitzaldiek eta irteerek harrera ona izan dutela ikusita, urrian hasiko duten ikasturte berriko eskaintzak sartu dituzte. Hain zuzen ere, egingo dituzten tailerretako izen-emateak, esaterako, zabalik daude dagoeneko

**Oihana Elortza Gorostiza** OÑATI

Oñati eta Euskal Herria hobeto ezagutzeko irteerak, hitzaldiak, tailerrak eta kanpoko egonaldiak antolatuko ditu, besteak beste, Pake Lekuk ikasturte berrian. Azken hilabeteetako ekintzen balorazioa eginez aurkeztu dute astean ikasturte berriko plangintza, proposamenak jaso eta bazkideei eskaini, parte hartzera animatuz. Irailaren 1ean, 1.216 bazkide zituen Pake Lekuk.



Pake Lekuko egoitzan bertan dute ikasturte berriko informazio guztia. OIHANA ELORTZA

### Irteera eta hitzaldi gehiago

Harrera ona izan dute, esaterako, Oñatin bertan eta Euskal Herrira egindako irteerek, eta, beraz, horrelako gehiago antolatuko dituzte datozen hilabeteetan. Irteera bakoitzaren amaieran hurrengoa aukeratzeko eskatzen zaie joandakoei, eta ekarpen hori egitea animatu dituzte bazkideak zuzendaritzako kideek, lagungarria zaielako txangoa prestatzeko. Berdin hitzaldiekin: gaiak proposatzera eta eurek ere eskaintzera animatu dituzte.

### Artxibora eguenean

Herrian egingo duten hurrengo irteera Gipuzkoako Probintziako Artxibo Historikora izango da. Eguenean, hilak 22, 11:00etan. Astelehenean, Oñatiko, Valladolideko eta Sevillako artxiboei buruz jardungo du Jose Antonio Azpiazuk, eta Elkanori buruz berba egin. Pake Lekun izango da, 17:00etan, bisitaren osagarri.

## Wikipedia, tailerretako eskaintzan

Era askotariko tailerrak eskaintzen jarraitzeko asmoa ere badu Pake Lekuko zuzendaritzak, eta hamabost bat, behintzat, izango dituzte aukeran bazkideek. Marrazketa, dantza, orratz-lanak, bitxiak, memoria lantzekoa, ingelesa, yoga eta euskal literatura zein mintzapraktika dira, adibidez, horietako batzuk.

Wikipedia da beste aukeretako bat. Azken ikasturte honetan Jose Anjel Urkia animatu da, Iñaxio Irizarren laguntzarekin, Wikipedia ezagutzeko eta hori osatzeko. Ordenagailua erosi eta sekulako emaitzak lortu ditu: 250 argitalpen inguru, gehienak perretxikoen ingurukoak, baina baita hegaztiei, pertsonei, sugeei eta landareei buruzkoak ere. Ikasturte berrian ere ikastaro honetan interesatuak egotea da zuzendaritzaren nahia.




Iñaxio Irizar eta Jose Anjel Urkia, Wikipediako irakaslea eta ikaslea. I.B.

### Abesbatza eta antzerkia

Deialdi berezia egin dute, bestalde, abesbatzako eta antzerkiko taldeetan izena emateko, talde biak indartzeko helburuarekin.

## Gizarte gaiak, Atzeko kalean

Bidebarrietan dauden Gizarte Zerbitzuetako bulegoak eraberritu egin behar dituzte, eta, bitartean, Atzeko kaleko 6. zenbakian egongo dira, Ramon Irizarko parkean, astelehenetik aurrera. 09:00etatik 14:00etara egongo dira zabalik, eguaztenetan izan ezik; itxita egongo dira egun horretan. Txandak hartzeko bideak: 943 03 77 00 edo *ongizatea@onati.eus.*



AMAIA TXINTXURRETA

## GORA ETA BEHERA



### Garagaltzako ispilua, konponduta

Santipillau baserri gaineko ispilua konponduta dagoela ikusten da argazkian. "Abuztuaren amaieran konpondu zuten", baieztatu du udal ordezkari batek.

**EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI?** *berriak@goiena.eus* edo 688 69 00 07.

## Beatriz Artolazabal sailburua dator eguaztenean Oñatira

Eusko Jaurlaritzako Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburu Beatriz Artolazabal Albeniz dator Oñatira eguaztenean hitzaldia egitera, Oñatiko EAJ alderdiak gonbidatuta.

Lourdes Idoiaga alkate ohi jeltzaleak egingo du aurkezpena eta bi gai nagusi izango ditu berbagai Artolazabalek: "Euskadiko etorkizuneko politikak eta gizarte-zerbitzuak, batetik, eta Euskadi Lagunkoia programa, adinekoen parte-hartzearekin egindako lankidetzazko gobernantza eredua".

Hitzaldia eguaztenean da, 19:00etan, Santa Anan, eta EAJk antolatu duen hitzaldi ziklo bati emango dio hasiera.

## OHARRAK

### Euskaraldiko bilera

Azaroaren 18tik abenduaren 2ra egingo den Euskaraldia egitasmoa prestatzeko bilera irekia egingo da eguaztenean, hilak 21, 18:30ean, Euskaldun Berria gelan.

### Txandaren azoka

Udaberriko eta udako produktuak prezio berezietan eskainiko ditu Txandak gaur, egubakoitza, eta bihar, saltoki atarietara aterata.

### San Martingo jaiak

Jaiak ospatuko dituzte, gaur eta bihar, San Martin auzoan, 19:00etan hasita. Unidad Alavesa, Braulio eta Penny Fleck, gaurko taldeak.


Lehen Lerroa taldeko kideak Eltzian duten lokalean entseatzen astean. K.I.

# Irudi bila dabil Zai Zoi Bele musika kolektiboa

Logotipoa behar du Eltzian egoitza duen herriko Zai Zoi Bele musika kolektiboak eta lehiaketa bidez egitea pentsatu du, herritarren botoekin aukeratuz irudia. Errosarixo biharamunean txosnagunean egingo den 'Dibertsioak' saioan erakutsiko dute

**Oihana Elortza Gorostiza** OÑATI
Elkartearen irudia izango den logotipoa egin gura du herriko Zai Zoi Bele musika kolektiboak, eta lehiaketa bidez egitea pentsatu du. Hilaren 27ra arte egongo da aukera lanak aurkezteko, eta ikusgai jarriko dituzte gero, jendeak iritzia, botoa, eman dezan.

**Irailaren 27a, aurkezteko epea**
Eltzian entseatzen duten herriko musika taldeek osatzen dute Zai Zoi Bele musika taldea, eta, logorik ez dutela konturatuta, bila hasi dira. Diote edozein formatutan –JPG, PDF zein esku– egindako lanak onartuko dituztela. Jartzen duten baldintza bakarra da taldearen izena agertzea: Zai Zoi Bele. Gainerako elementu guztiak –tamaina, kolorea, letra tipoa, marrazkia...– erabat libreak dira.

Irailaren 27a da ideiak bidaltzeko azken eguna. Posta elektronikoz *zaizoibele.logo@gmail.com* helbidera bidalita edo Irizar estankoan zein administrazioan entregatu daitezke. Jasotzen dituzten proposamen guztiak lehengo Kirrin dendaren erakusleihoan jarriko dituzte ikusgai, herritarrek euren gustukoa aukeratzeko. QR kode bidez eman ahal izango da botoa. Irailaren 28tik urriaren 2ra arte egongo dira ikusgai eta egun horretan, Errosarixo domekan, Atzeko kalean iluntzean egingo den kontzertuan egingo dute sari banaketa. Hiru sari emango dituzte: 150, 100 eta 50 eurokoak.

**29 musika taldek osatzen dute**
Egun, 29 musika taldek osatzen dute Zai Zoi Bele kolektiboa, eta itxarote-zerrendan dago 30. taldea. Eltzian dauden hamar lokaletan egiten dituzte entseguak eta tokia eta ordutegia egokitzean sartuko da talde berria; orain arte hurbildutako talde edo norbanako guztiek izan dute tokia.

Zortzi lagunek osatzen dute bi urtean behin berritzen den zuzendaritza taldea, baina guztien artean kudeatzen dituzte entsegu lokalak eta ordutegiak. 2016ko martxoan erregistratu zuten izena, eta 122 musikari inguru daude kolektiboan. Kolektiboaren irudia lortu gura dute orain, webgunean, sare sozialetan eta bidaltzen dituzten mezuetan erabiltzeko.

**Dibertsioetarako prestatzen**
Herriko jai nagusien barruan, Errosarixo biharamun egunean txosnagunean egiten den *Dibertsioak* emanaldian ere ikusgai jarriko dute logoa. Indartsu datorren hitzordua, nonbait, hamahiru bat talde buru-belarri ari dira-eta dagoeneko kontzertu horietan joko dituzten kantuak entseatzen.

**28TIK URRIAREN 2RA KIRRIN-EKO ERAKUSLEIHOAN EGONGO DIRA LANAK, BOZKATZEKO**


Haur dantzariak herriko kaleetan barrena 2018an. GOIENA

## 700 lagunek hartuko dute parte etziko Haur Dantzarien Egunean

Bezperan, zapatuan, Urbeltz-en 'Martin Zalakain' dantza ikuskizuna egongo da kiroldegiko frontoian

**O.E.G.** OÑATI
Dantzarik faltako ez den asteburuan, Haur Dantzarien Eguna egingo da domekan. 50.a, mugarria Oñatz dantza taldearendako. Mila dantzari baino gehiago etorri ziren lehen aldian, 1970ean, dantza tradizionalak loraldia bizi zuen sasoian. Handik sortu zen dantza taldea Oñatin, umeekin hasita.

Hamabi dantza talde etorriko dira aurten, bailarakoak tartean; 700 pertsona inguru, guztira. Etxeetan ordez, herriko hamahiru elkartetan bazkalduko dute aurten umeek, alkate txikiren agurraren eta kaleetan dantza egin ondoren. Arratsaldeko alardea 17:15ean hasiko da.

**'Martin Zalakain'**
Zapatuan, berriz, Juan Antonio Urbeltzek sortutako *Martin Zalakain* ikuskizuna taularatuko dute Zubikoa kiroldegiko pilotalekuan, 19:30ean. Ordu eta erdiko ikuskizunean, Euskal Herriko zortzi dantza taldetako kideek dantzaren bidez antzeztuko dute 1908. urtean Pio Barojak idatzi zuen eleberria. Sarrerak ohiko tokietan eros daitezke aurrez.


NIRE USTEZ
**XABIER IGARTUA**

## Fokua

Oñatiko mendi martxaren asteburua aprobetxatuz, herriko mendi kuttuna den Aloñako gailurra erreparatzen hasiko naiz. Erabat ezberdin ikusten da herriko plazatik edo Araotzetik begiratuta. Perspektiba kontuak nonbait.

Azkenaldian, albistegietan behin eta berriz aipatzen dabiltza erregaien eta argindarraren garestitzea. Boterearen arrimuan dabiltzan komunikabideek –ia guztiak– behin eta berriz Ukrainako gerran jarri ohi dute fokua bizitzaren garestitzearen atzean dagoena arrazoitu nahian. Gutxitan, gutxiegitan ikusten da, argindarraren garestitzea edo kWh kostu eguneratua aipatu ondoren, Iberdrola izaten dabilen irabaziei buruzko datua. Erregaien igoeraren berri omen ostean ere, inoiz gutxitan irakurri, entzun edo ikusi dut Repsol izaten ari den irabazien inguruko edota beraien administrazio kontseiluetako kideek jaso dituzten mozkin banaketari buruzko argibiderik. Errusia bai, askotan aipatzen da Errusia, baina nago fokua nahita okertu digutela.

Perspektiba kontuak.



Danel Casais helmugan, 2020ko gazte mailko Mikel Deunaren Sarian. GOIENA

# Oñati sariak hiru herritar izango ditu lehian

Danel Casais (Laboral Kutxa), Unai Cueva (Grupo Eulen-Nuuk) eta Aimar Eorstarbe (Baque Team) izango dira bihar, zapatua, goizeko hamarretan, Unibertsitate etorbideko irteeran; hirurentzat lehen aldia izango lasterketa horretan, 23 urtez azpiko mailan

**Iñigo Barrena Kortabarria** OÑATI

Danel Casaisek badaki zer den garaipena dastatzea Unibertsitateko etorbideko helmugan, 2020an txapeldun izan baitzen gazte mailako lasterketan. Aurten, ordea, lehen aldia izango du 23 urtez azpiko mailan. Denboraldiko azken txanpan sartuta, urte laburra izan du Laboral Kutxako txirrindulariak, lesioen ondorioz.

Uztailera arte ezin izan zen lehiatu; hasiera gogorra izan zen arren, gutxinaka bere maila onena aurkitzen ari da: "Hasieran, kostatu egin zitzaidan sentsazioak aurkitzea, igartzen zen tropeleko kideak askoz hobeto zeudela erritmo aldetik, baina azken asteetan lanean ari naiz nire mailarik onena emateko". Biharko lasterketara begira ibilbidea ez dela harentzat aproposa dio, baina, etxeko lasterketa izanik, "dena ematera" irtengo dela eta posible bada duela bi urteko garaipena errepikatzen saiatu.

**Etxeko lasterketa kuttuna**

Unai Cuevarentzat ere lasterketa berezia da Oñati saria, jende ezagunaren aurrean lehiatzeak ez duelako motibaziorik eskatzen eta beste xarma bat duelako. Eulen-Nuukekoarentzat ere ez da denboraldi erraza izan: "Denboraldi hasieran praktiketan ibili nintzen eta zaila zen entrenamenduekin uztartzea. Behin hori bukatuta, sentsazioak hartzen joan naiz eta urte txukuna izan dut".

Cueva Vuelta Hispanian izango da hilaren 24tik 28ra eta biharkoa proba moduan erabiliko du itzulira begira nola iristen den ikusteko: "Itzulietan egun bakarreko lasterketetan baino hobeto moldatzen naiz, baina biharko ibilbidea aproposa da itzulira nola iritsiko naizen ikusteko".

**115 KILOMETROKO IBILBIDEAN, ARREGI IGO BEHARKO DUTE HELMUGARA IRITSI AURRETIK**

**Azken lasterketa berezia**

Baque Teameko Aimar Erostarbe izango da hirugarren oñatiarra lehiatzen. Hark ere badaki zer den gazte mailan lasterketa honetan lehiatzea, 2020. eta 2021. urteetan aritu zelako, eta bietan bosgarren postua eskuratu. 23 urtez azpikoetara salto eginda, aurtengo denboraldia "nahiko ondo" joan dela dio, nahiz eta, Erostarberentzat ere urte hasiera ez den erraza izan eskolak eta entrenamenduak partekatzeko orduan. Udan izan ditu bere sentsazio onenak, eta Baque Teamekoarentzat denboraldiko azken lasterketa izango da biharkoa; nekatuta iritsi arren, argi ditu zeintzuk diren azken lasterketako helburuak: "Lehiakorrak izatea, sortzen diren ihesaldietan egotea eta goiko postuen lehian aritzea gustatuko litzaiguke".

## Pilota txapelketak azken txanpan sartuta daude

San Miguel torneoaren barruan finalerdiak ari dira jokatzen eta herriko pilota txapelketan final laurdenak

**I.B.K.** OÑATI

San Migel torneoan, Manex Balerdi antzuolarra finalaurrekoetara iritsi da Aitor Altuna tolosarra bikote duela. Balerdiren finalerdia hilaren 23an izango da, Oñatiko Zubikoa pilotalekuan. Beste hiru debagoiendar ere aritu dira txapelketan: Peru Etxegarai eta Iñigo Erle oñatiarrak eta Ander Etxaniz bergararra. Hirurak, ordea, final laurdenetan gelditu ziren. Iñigo Erleren kasuan, ezin izan du joan den urtekoa errepikatu, txapeldun izan baitzen.

Sanmigeletakoa ez da, hala ere, herrian jokatzen ari den pilota txapelketa bakarra. Herriko pilota txapelketan, hain zuzen, final laurdenetan murgilduta dihardute. Gaur arratsalderako, emakumeen Ados Pilota elkartearen Plazaz Plaza ekimenaren baitan, jaialdia antolatu du Udalak eta horien aurretik txapelketa bi jokatuko dira, gizonezkoen final laurden bat eta emakumezkoen finalerdi bat. Beste finalerdiak hilaren 23an jokatuko dira eta final handia 30ean, plazako frontoian.



IÑIGO BARRENA KORTABARRIA

## Azkoagaingo lanak, bide onean

Asteartean hasi ziren belarra jartzeko lanak. Udan zehar geldi egon dira lan horiek eta horrek aurreikusitako epeak ez betetzea ekarri du. Belarra eremu guztian jarri bitartean beharrezkoa da eguraldi txarrik ez egitea, honek denbora gehiagoz luzatuko lituzkeelako lanak. Urriaren hasierarako Azkoagain erabiltzeko moduan egotea espero da.

### Zubikoa kiroldegiko gune hezea, itxita datorren astean

Urteroko derrigorrezko garbiketa lanak egin behar dituzte igerilekuetan, eta baita sauna hezean eta lehorrean ere. Hori dela eta, bi zerbitzu hauek itxita egongo dira kiroldegiko erabiltzaileentzat. Lanak hurrengo astean hasiko dituzte eta hilaren 19tik 23ra bitartean ezin izango dira aipatutako bi zerbitzu horiek erabili.

### Ur ekintzetan izena emateko epea zabalik dago dagoeneko

Umeendako igeriketa ikastaroetan eta nagusiendako antolatutako ur ekintzetan talde berriak sortu dituzte. Plazak mugatuak dira eta izen ematearen hurrenkeran onartuko dituzte. Umeendako ikastaroak aste barruan zein asteburuan izango dira. Izena emateko epea zabalik dago eta kiroldegiko harreran eman beharko da irailean.

# HEMEN DA BERRIZ!

DANBAKA MUSIKA LEHIAKETA

5. ALDIA

- Bergarako Seminarixoan jokatuko da urritik urtarrilera arte.
- Zuzeneko kontzertuak, talde bakoitzaren ordu erdiko emanaldiarekin.
- Debagoieneko musikari eta taldeendako.
  Kideetako batek, gutxienez, Debagoienean erroldatuta egon beharko du.
- Hiru abesti aurkeztu beharko dira, horietako bat gutxienez originala.
- Hasiberriendako zein aspalditik musikan dabiltzanendako.
- Berdin da taldeak diskoa duen edo ez.
- Jotzen duten talde guztiek jasoko dute soinu-grabazioa
  pistak nahastu ostean eta bideoan.
- **Izen-ematea zabalik irailaren 18ra arte: *www.danbaka.eus***

ANTOLATZAILEA

goiena KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEA

Bergarako Udala



Ainara Urrutia, zapatuan, Durana kaleko zuzenean helmuga gurutzatzeko puntuan; 2.06.03ko denbora egin zuen. IMANOL SORIANO




Urrutia, ezkerretik bigarrena, Louzango podiumeko bigarren koskan. EMF

# "Konturatu barik iritsi naiz hona, eta gozatzen nabil izugarri"

**AINARA URRUTIA** IKAZKIN TRAIL LASTERKETAKO LEHEN IRABAZLEA

**MENDI LASTERKETAK** Lehenengo mendi lasterketa 2019an egin zuen aretxabaletarrak; aurten, Munduko Kopako hiru proba hamar onenen artean egin ditu selekzioarekin

**Xabier Urzelai** ARETXABALETA

Ainara Urrutiak (Aretxabaleta, 1981) lehenengo postuan gurutzatu zuen, zapatuan, Ikazkin Trail lasterketa. Ez da aurten esku hartuko duen hitzordu handiena, baina horrek ez dio garaipenari garrantzirik kentzen: "Aitortuko dizut bezperan urduri nengoela. Ingurukoek esaten dizute lasterketa irabazi behar duzula, eta, nahi gabe, presio hori sumatu egiten da". Aretxabaletakoa herri mailako lasterketak Munduko Kopako probekin tartekatzen dabil, eta hor bai, hor ezuste bat baino gehiago eman du.

**Zer-nolako lasterketa da Ikazkin Trail?**

Niri asko gustatu zitzaidan proba, eta, gainera, etxekoa izanda beti da berezia. Aurpegi ezagunak ibilbidean, helmuga alabekin gurutzatu ahal izatea... Oso berezia izan zen. Hori bai, lasterketaz gozatzeko ondo entrenatuta joatea komeni da, Kurtzebarrirako igoera gogorra da eta indarrak neurtu behar dira, bestela luzea egiten da eta. 21 kilometro ez da txantxetan hartzekoa, Arrasate-Udalatx bezain gogorra da lasterketa hau. Eta niri, esaterako, azken kilometroetan Urkulutik eta Otala Zelairaino luzea egin zitzaidan. Hor korrika egiteko indarra behar da hanketan, eta zenbat geratzen den jakiteak ere ez du laguntzen... Kar-kar-kar.

**Maiatzean *Harmailatik* saioan izan zineten Ainara Uribarri eta biok. Orduan aipatu zenuen lehenengoz hartu behar zenuela parte Munduko Kopako lasterketa batean, eta orain, buru-belarri ari zara baita nazioartean ere.**

Ezustea izan da, egia esan; urte hasieran ez nekien zer zen Munduko Kopa, pentsa... Euskal selekziotik Matheysins-eko lasterketara [Skyrace des Matheysins, Frantziako Alpeak] joateko proposamena egin zidaten eta nazioarteko lasterkariekin lehian espero ez nuen lasterketa egin nuen [laugarren sailkatu zen]. Hori ikusita, Munduko Kopa barruan nire ezaugarrietara egokitzen ziren probak begiratzen hasi ginen, eta horrela etorri ziren Suitzan [Matterhorn Ultraks] eta Portugalen [Louzan Skyrace] lehiatzeko aukerak [Suitzan zazpigarren izan zen, eta irailaren 5ean, Louzanen, bigarren]. Hiru horietan postu onak egin ditugunez, urriaren 8an Munduko Kopako finala izango den Gorbeiako Suzien probarako sailkatu naiz. Lasterketa hori Kanadan edo Txinan izan zitekeen, baina, zorionez, aurtengo edizioa Euskal Herrian egingo dute; sekulako giroa egongo da, ederra izango da.

**Oso emaitza onak dira horiek. Bereziki, Portugalen podiumera igotzea... Azken esprintean Noemi Vachon frantziarra azkarragoa izan zen. Amorrua eman zizun?**

Ez, benetan, oso pozik amaitu nuen lasterketa. Egun osoan elkarrekin joan ginen, nik bi eroriko izan nituen, hura ere erori egin zen... Segundo batzuetako aldeagatik irabazi zidan, azkarragoa izan zen. Baina banekien oso lasterketa ona egin nuela, eta oso pozik geratu nintzen.

**"URTE HASIERAN EZ NEKIEN MUNDUKO KOPA ZER ZEN, ETA ORAIN LEHIATZEN NABIL"**

**Mendiko lasterketetan ez duzu ohiko bidea egin, 40 urterekin hasi zara nazioartean nabarmentzen...**

Bai, halaxe da, eta ez da aurreikusitako gauza bat izan, gainera. Baina olatura igo naiz eta izugarri gozatzen nabil. Etxean behar dudan babesa daukat, selekzioan oso jende ona daukat inguruan eta hilabete hauetan izugarri ikasten nabil... Bai teknikariengandik, baita selekzioko kideengandik ere, ikasi eta ikasi ari naiz. Akaso, iritsi berria naizenez, burua ere freskoago daukat; hau da, ez nago lasterketekin saturatuta.

**Hasi berritan gazteek egiten dituzten hanka-sartzeak egitea falta zaizu?**

Baliteke, baina abantaila hori izan dut hasieratik asko dakien jendea izan dudala ondoan. Elikaduran, entrenamenduetan, lasterketetan eman beharreko pausoetan... Ondoan daukadan jendeak, bai selekzioko teknikariek, bai lasterkariek... izugarri irakatsi didate.

**Heldutasunak patxada handiagoa ematen du?**

Baietz uste dut. Gauza bakoitzak daukan garrantzia hobeto neurtzen duzu... Akaso, egiten ari naizen honekin gaztetan baino gehiago gozatzen nabil. Ez dakit zenbat iraungo duen, baina momentuaz gozatu nahi dut. Eta gero gerokoak.

**"IKAZKIN TRAIL IRABAZTEA BEREZIA IZAN DA, ALABEKIN HELMUGA GURUTZATZEA..."**

# Euskal Kopako partidua azterketa da ligarako

**SASKIBALOIA** Euskal Kopako kanporaketa partidua jokatuko dute Mondragon Unibertsitateko neskek domekan, 18:00etan. Gasteizko Araski taldea izango dute aurrean; hain zuzen, ligako lehen jardunaldian izango duten kontrarioa

**Xabier Urzelai** ARRASATE

Urriko lehenengo asteburuan hasiko dute Lehenengo Nazional mailara igo berri diren Mondragon Unibertsitateko neskek liga. Eta, lehen jardunaldirako baliagarria izan daitekeen azterketa izango dute domekan (18:00, Iturripe) Araskiren kontra. Euskal Kopako partidua izango da domekakoa, kanporaketa eran jokatuko dute eta arrasatearrek euren maila orain momentuan zein den ikusi ahal izango dute: "Kasualitatez, Araskikoen kontra hasiko dugu liga, eta bai, domekako partidua erreferentzia moduan balekoa izan daiteke. Egia da denboraldi hasierako partiduak arraroak izaten direla, emaitzak ez direla oso koherenteak izaten, baina Araski iazko liga txapelduna da, eta non gauden erakusteko balioko digu partidu horrek", adierazi du Iñaki Ogara *Arri* entrenatzaileak.



Mondragon Unibertsitatekoak ligako azken partiduan, Iturripen. GOIENA

### 'Feeling' onarekin dabiltza

Denboraldiaurrean egindako lanarekin pozik dago entrenatzaile arabarra: "*Feeling* onarekin gabiltza, denboraldiaurrean lau partidu jokatu ditugu eta hiru irabazi. Santanderren jokatutako lehenengo lagunartekoa irabazi egin genuen, eta Barakaldon jokatutako beste hiru partiduetako bi ere irabazi egin genituen. Uda osteko aste hauek gogorrak izaten dira, baina taldekideak lan handia egiten dabiltza eta sentsazio onak ditugu ligara begira".

**DENBORALDIAURREAN MOREEK EGINDAKO LANAREKIN POZIK DAGO 'ARRI' ENTRENATZAILEA**

Esan moduan, Euskal Kopa izango da, domekan, moreendako hurrengo azterketa: "Aurten emakumezkoen torneoa partidu bakarrera da, horrenbestez, ezingo dugu akatsik egin. Zozketa bidez egokitu zaigu gure etxean jokatzea, Iturripen, eta ea Araski moduko talde baten kontra jokatuta ere aurrera egiteko kapaz garen. Egia da norgehiagoka galdu gero aukera txiki bat egongo litzatekeela Kopan jarraitzeko. Izan ere, multzo bakoitia denez, bigarren aukera bat izan dezakegu".



Bergararen eta Mondraren arteko derbi bateko artxiboko irudi bat. GOIENA

## Liga hasiera zuzentzeko, derbia dute Bergarak eta Mondrak

**FUTBOLA** Lehenengo jardunaldian galdu egin zuten bi taldeek; zapatuan Ipintzan izango da partidua (16:00)

**X.U.** ARRASATE

Ligako bigarren jardunaldian, Bergarak eta Mondrak derbia jokatuko dute. Bi taldeak liga hasiera zuzentzeko gogoz egongo dira, joan den astean bai mahoneroek eta baita zuri-moreek galdu egin zuten eta. Arrasatekoek 1-2 Lagun Onaken kontra Mojategin eta Bergararrek 1-0 Zarautzen. Hala, norgehiagokaren berezitasunetako bat izango da joko-lekua, Agorrosingo zelai naturalean beharrean –obrak ez dituzte amaitu oraindik– Ipintzako zelai artifizialean jokatuko dute eta (zapatua, 16:00, Ipintza). Hala, zelai horretako neurrietara ondoen egokitzen denak asko izango du irabazita.

### Aloña Mendik, Eztalan

Aloña Mendi izan da liga ondo hasi duen ordezkaria, joan den astean Aretxabaletaren kontrako lehian nahiz eta markagailuan atzetik joan txantxikuak norgehiagoka irabazteko kapaz izan ziren eta (1-2). Domekan, berriz, oñatiarrek Hernaniren kontra jokatuko dute eta horiendako ere partidu bitxia izango da, Azkoagainen lanetan dihardutenez, partidua Eztalan –Antzuolan– jokatuko dute eta (16:30). Azkenik, Aretxabaletak ere liga ondo hasi duen Lagun Onaken zelaian jokatuko du, domekan (16:00, Garmendipe).

### Emakumezkoak ere bai

Emakumezkoen ohorezko erregional mailan, berriz, asteburuan hasiko dute liga eta aurten ere Bergarak eta Leintz Arizmendik ordezkatuko dute ibarra kategoria horretan. Hala, asteburuan biek jokatuko dute etxean: bergararrek Lesakan zapatuan (16:00) eta Arizmendikoek ere zapatuan, Urnietan (15:30).

## Euskal Kopako finala, Iturripen

Urriaren 1ean eta 2an jokatuko dituzte EBA mailako Euskal Kopako finalak, eta, Ointxe! klubak aurreratu duenez, Arrasateko taldeak hartuko du final horiek antolatzeko ardura.

### Hasiera txarra

Bada, MUk ez du kopa ondo hasi. Moreek Easoren kontra galdu egin dute lehen jardunaldian (77-69).



MUkoak eta Easokoak, Euskal Kopan Iturripen (2020). GOIENA

## Brontzea Calbanok

Asteburuan Italian (Pescara) jokatu duten 23 urtez azpiko Union Mediterranea txapelketan brontzezko domina irabazi du Andoni Calbano bergararrak. Real Sociedad taldeko atletak 4x100 metroko txandakako lasterketan hartu zuen esku, Espainiako selekzioarekin. Ekainean, Espainiako txapelketan ere brontzea irabazi zuen.



RFEA

# 'Hazia' ikuskizuna estreinatzeko dena gertu

Arizmendiarrietaren Lagunak Elkarteak eta Gontzal Mendibil musikariak sortu duten eta Jose Maria Arizmendiarrieta oinarri duen musikala Amaia antzokian eskainiko dute bihar (20:00) eta etzi (19:00); 'Arrasate.eus'-en eta leihatilan daude sarrerak salgai

**Aitziber Aranburuzabala** ARRASATE

2019an jaso zuten Arizmendiarrietaren Lagunak Elkartekoek Gontzal Mendibilen eskutik Mondragon korporazioko enpresa kooperatiboen sustatzailearen bizitza oinarri duen musikala egiteko proposamena, eta, ideia "asko" gustatu zitzaienez, baiezkoa eman eta segituan hasi ziren ikuskizuna gauzatzeko lanetan. Hiru urte sorkuntza-lanetan jardun ondoren, egindako lanaren emaitza jendaurrean aurkezteko unea iritsi da, eta Amaia antzokian egingo dituzte estreinako bi emanaldiak.

Arizmendiarrietaren eta haren gertukoen azalean sartuta, hamaika musikari, sei kantari eta hamasei antzezle eta dantzari izango dira taularen gainean.



*Hazia* ikuskizuneko lantaldeko kideak atzo, eguena, Amaia antzokian. IMANOL SORIANO

**"Modernoa eta laikoa"**

Arizmendiarrietaren mezuak jaso ditu Mendibilek; poesia bihurtu eta ondoren musikatuz, hemeretzi kantu berri sortu ditu. Hori horrela, musikalak kantu bidez eta bestelako diziplina artistikoen bidez azalduko du nor zen Mondragoneko kooperatiba sortzailea eta zer egin zuen. Gontzal Mendibil eta Arkaitz Gartziandia aktorea izango dira kontakizunaren narratzaileak. "Markinako Barinaga auzoan hasiko da kontakizuna, hura jaio zen lekuan. 1941ean iritsi zen Arrasatera, eta bertan bizi izan zituen hainbat pasadizo interesgarri kontatuko ditugu", adierazi du Zeanuriko eskarmentu handiko musikariak.

Publiko zabalarentzako dela gaineratu du Gartziandiak: "Ez da helduentzako proiektua bakarrik. Lantalde gaztea osatu du Gontzalek, Arizmendiarrietak adierazten zuen mezuak gaurkotasun handia du, eta musika ere interesgarria da. Sekulako eredua da niretzako Arizmendiarrieta, eta asko ari naiz ikasten pertsonaia honekin, uste dut nire garapenerako kristoren *coach*-a dudala".

**Diskoa eskuragarri dago**

Antzokietan eskaintzeko bezperan, dagoeneko diskoan bilduta dituzte ikuskizuneko piezak. Asteburuan Amaia antzokian eskuratzeko aukera izango da, hamabost eurotan, eta, bestela, eskaria egin daiteke, 659 97 18 05 telefonora deituta edo *maxmaproducciones@gmail.com* helbidera idatzita.

## Lantalde artistikoa eta teknikoa

- **Gidoia, kantuen sorkuntza eta ikuskizuna** Gontzal Mendibil.
- **Zuzendaritza eszenikoa** Gontzal Mendibil eta Maxima Gutierrez.
- **Moldaketa programazioak** Jose Luis Canal.
- **Antzezle narratzailea** Arkaitz Gartziandia.
- **Abeslari narratzailea** Gontzal Mendibil.
- **Antzezleak eta kantariak** Ainhoa Tabuyo (Ama Tomasa), Txomin Maidagan, (Arizmendiarrieta txikiaren aita), Diana Irazabal (Pureza), Begoña Rodriguez (Maria Lourdes), Maddi Otamendi (Eulogi), Benito Patxeko (Don Camilo), Udara Zubillaga, Eneko Asiain, Xanti Korkostegi, Oier Zapiain, Ander Lacalle, Ander Ayerza, Samuel Gibert (Usatorre), Alberto Mendigutxia (Larrañaga), Alfonso Diez (Gorroñogoitia), Antton Fernandez (Ortubay), Aritz Salamanca (Ormaetxea) eta Adriano Herreros (Maixua).
- **Musikariak** Jose Luis Canal, Angel Unzu, Iñaki Dieguez, Raul Vera, Rober Caballero, Igor Telletxea, Iker Telleria, Jurdana Otxoa, Maddi Arana, Maider Zapiain eta Joe Gonzalez.
- **Abesbatzak** Easo abesbatza, Easo Eskolania eta Goikobalu abesbatza.
- **Koreografia** Ohika dantza, Aritz Salamanca (zuzendaria).
- **Dantzariak** Aritz Salamanca, Nerea Arregi, Katerin Artola, Sua Enparantza, Mattin Etxebeste, Antton Fernandez, Aitor Garcia, Jone Mendiluce, Mederi Orbiso, Iker Sanz eta Ane Urruzola.
- **Diseinua eta irudien edukia** Margarita Artiles.
- **Soinua** Angel Katarain.
- **Argiztapenaren diseinua** Iban Zubeldia.
- **Jantziteria** Begoña Rodriguez, Maxi Gutierrez eta Lourdes Lezo.
- **Ekoizpenaren zuzendaritza** Maxima Gutierrez.
- **Koprodukzioa** ALE-MAXMA produkzioak.

## Emanaldi gehiago egingo dituzte

Asteburuan Amaia antzokian estreinatu ondoren, Euskal Herriko beste antzoki batzuetan eskaintzeko asmoa adierazi dute ekimenaren bultzatzaileek. "Oraingoz, lau antzokitan ditugu lotuta, baina Goierri aldean, Markinan eta Baionan aurkezteko asmotan ere bagaude. Iragarritako emanaldietarako sarrerak dagoeneko eskuragarri daude".

- **Bilboko Arriaga antzokian** Urriaren 1ean.
- **Iruñeko Baluarte aretoan** Urriaren 29an.
- **Donostiako Kursaal aretoan** Azaroaren 26an.
- **Gasteizko Printzipal antzokian** Abenduaren 17an.

BERGARAKO SANMARTINAK
GOIENA TELEBISTA, 'JAIAK'
MARTITZENEAN, IRAILAREN 20AN, 21:30EAN ETA 23:30EAN
BABESLEA:
DESKARGATU GOIENA APP BERRIA!
goiena
Zu hemen zaude.





Neomak taldea bihar, zapatua, izango da Errekan Gora jaialdian. NEOMAK

# Hamalaugarren Errekan Gora jaialdia asteburuan

Atxorrotx Kultura Elkarteak –Udalaren eta herriko beste eragileen laguntzarekin– antolatzen duen musika jaialdian askotariko sei kontzertu izango dira gaur hasi eta domeka bitartean; aurreko aldietan moduan, emanaldi guztiak doan izango dira

**Aitziber Aranburuzabala** ESKORIATZA

Zazpi trikitilari eta pandero-jolek –tartean hiru arrasatear– osatzen duten Neomak taldeak eguenean argitaratu eta atzo Errenteriako Atlantikaldia jaialdian aurkeztu zuen estreinako diskoa Errekan Gora jaialdian ere zuzenean entzuteko aukera izango da. "Zazpi kantu ditu apirilean Haritz Harreguyren Usurbilgo Higain estudioan grabatu genuen bildumak. Oraingoz, kontzertuetan izango da eskuragarri eta Eskoriatzara ere eramango ditugu ale batzuk. Laster dendetan ere izango da. Gogotsu gaude Eskoriatzako biharko emanaldirako", dio taldeko kide Leire Etxezarretak.

**Emakume musikari asko**

Aurreko aldietan moduan, askotariko formatu eta estiloekin osatu dute egitaraua. "Esparru asko ukitu barik geratu diren arren, publiko zabalarentzako ahalik eta eskaintza oparoena egiten saiatu gara. Hori horrela, rockzale zaharrek osatutako Anari eta The Riff Truckers eta rock arloan hori ere baina proposamen modernoagoa den Liher laukotea izango ditugu, batetik, eta, eskualdeko musikariei tokia eginez, jazz doinuei eta pandero eta trikiti doinuei ere tokia egin diegu. Sumatu izan dugun hutsunea betetzeko asmoz, *foodtruck* bat ere izango oraingoan", azaldu dute antolatzaileek.

## Egitaraua

**Irailak 16, egubakoitza**
- **22:30** Liher, plazan.

**Irailak 17, zapatua**
- **13:00** Anari, plazan.
- **19:30** Kinbonbo Brass Band, kaleetan zehar.
- **22:30** Neomak, plazan.

**Irailak 18, domeka**
- **13:00** Erromintxelak, Gernika plazan.
- **19:30** The Riff Truckers, plazan.

Kontzertuak doan dira.

# Etzi bukatuko da Danbaka lehiaketan izena emateko epea

Sariketarako izen-emate orria eta bestelako informazio gehiago 'Danbaka.eus' atarian daude eskuragarri

**Aitziber Aranburuzabala** BERGARA

Goiena Komunikazio Taldeak, Bergarako Udalaren laguntzarekin, urriaren 14an Seminarixoa aretoan abiatuko du bosgarren Danbaka musika lehiaketa eta dagoeneko ari dira eskualdeko musikarien parte hartzeko proposamenak jasotzen. "Domekan jakingo dugu zenbat bakarlari eta talde izango diren guztira parte hartzen, baina, gaur-gaurkoz, bermatu dezakegu Danbakako DNAn dagoen estilo askotarikoa eta eskualdeko herri gehienen ordezkaritza", azaldu du Danbako koordinatzaile Jokin Bereziartuak.

**'Danbaka.eus' ataria**

Formazio berri zein eskarmentua dutenendako sariketa da –Debagoienean erroldatuta egon behar du gutxienez kideetako batek–. Parte hartu nahi dutenek domekara arte –irailaren 18a– bitartean dute izena eman eta hiru abesti bidaltzeko epea zabalik *Danbaka.eus* atarian.

Goienakideen txokoa
IRAILEKO SARIAK
Liburu-irakurgailua
'Kobo clara' e-book-a
Parte hartzeko sariaren izena: ebook
EROSKI ARRASATE
Sarrerak
ARRIKRUTZ oñatiko kobak
Arrikrutz kobak bisitatzeko, sarrerak.
Parte hartzeko sariaren izena: Arrikrutz
www.harremandenda.org
Otarrea
Bidezko merkataritzako produktuak.
Parte hartzeko sariaren izena: Otarrea
PARTE HARTZEKO:
Posta elektronikoz: goienakide@goiena.eus Whatsapp: GOIENAKIDE "sariaren izena" [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.
"goiena app"-a / zozketa atalean.
Realaren eta Bayernen arteko partidarako sarrerak futbol zelaiko tokirik onenean
Women's CHAMPIONS LEAGUE
GOIENAKIDEENTZAKO ESKAINTZA
Emakumezkoen Txapeldunen Ligako Reala–Bayern partida beste modu batera ikusteko aukera bikaina duzue eskura zuk eta zuk aukeratutako beste lagun batek:
Reale Arena futbol zelaiko tokirik onenetik.
Irailaren 20an, martitzena, 19:00etan.
Irabazi tarta goxo bat
GOXO-GOXUA GOZOTEGIARI ESKER TARTA BAT
Begiratu Puntua aldizkariko Otorduan atala eta hartu parte!
Parte hartzeko azken eguna: irailak 20.
943 25 05 05
goienakide@goiena.eus
'Goiena app'-a / zozketa atalean.
GOIENAKIDE Jatetxea [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.
Puntua aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartel digitalaren abantailez gozatzeko...
BAZKIDETZA KUOTA: 30 €
Deitu: 943 25 05 05 • goienakide@goiena.eus
DESKARGATU GOIENA APP BERRIA!
goiena kide
Okm: batzen gaituen distantzia.

# "Ainhoarekin identifikatuta sentitzeak lana erraztu dit"



Maria Cruickshank. 'BLACK IS BELTZA'

**MARIA CRUICKSHANK** AKTOREA

Oñatiarrak jarri dio ahotsa 'Black is beltza II: Ainhoa' filmeko protagonistari. Hilaren 23an estreinatuko dute, Belodromoan; 30ean, berriz, zinema areto komertzialetan

**Hasier Larrea** DEBAGOIENA

Maria Cruickshank aktorea (Oñati, 1989) Zinemaldiko alfonbra gorritik igaroko da datozen egunetan, jaialdi horretan proiektatuko baita lehenengoz Fermin Muguruzaren *Black is beltza II: Ainhoa* pelikula. Estreinaldi handietarako sail herrikoien aretoan, hau da, Belodromoan, sarrera guztiak –3.000 denera– agortu dira marrazki bizidunez osatutako ikus-entzunezkoa primizian ikusteko.

**2018an kaleratutako *Black is beltza*-n Ainhoaren ama, Amanda, izan zinen. Oraingoan, berriz, Ainhoa bera. Nolatan?**

Ferminek zuzendutako aurreko pelikulan paper txiki bat egin nuen, esan bezala, Manex protagonistaren bikotekidea, Amanda, interpretatuz. Orduan ezagutu nuen lantalde osoa, eta duela bi urte eta erdi inguru berriro deitu zidan Ferminek, esateko nigan pentsatu zuela bigarren filmerako, gidoia bidaliko zidala eta irakurtzeko. Berehala erantzun nion baiezko borobila. Istorioak sekulako indarra dauka eta Ferminekin oso gustura aritzen naiz lanean: pertsona zein lankide ona eta gertukoa da. Ainhoa moduko pertsonaia bati ahotsa jartzea sekulako aukera polita izan da niretzat.

**Ainhoa bera al da bi pelikulen arteko lotura?**

Hala da. Lehenengo filma 60ko eta 70eko hamarkadan kokatzen zen, garai hartan jaio zen Ainhoa, haren amaren heriotza krudela tarteko. Oraingo hau 80ko hamarkadan dago girotuta. Kuban bizi da Ainhoa, baina Euskal Herrira abiatuko da sustraien bila, aita Manex, esan gabe doanez, euskalduna baita. Hari zer gertatu zitzaion jakin nahi du. Iruñean dagoela, *Egin* egunkarian lan egiten duen Josune –Itziar Ituño– ezagutuko du. Lagunak egin eta abenturatan hasiko dira segituan: Libanora, Marseillara, Afganistanera... joango dira bidaian, eta, noski, gauza piloa gertatuko zaizkie.

**Nola sentitu zara hura interpretatzeko garaian?**

Eroso. Polita izan da Ainhoak eta biok amankomunean gauza asko ditugula ikustea; hura euskalduna eta kubatarra da, eta ni euskalduna, baina nire aita Karibeko irla batekoa da. Izaerari dagokionez, fikziozko pertsonaiak egia bilatzeko eta justizia egiteko nahia du, oso borrokalaria da, ez dauka beldurrik eta beti doa aurrera. Ni neu ere halakoa naiz; beraz, ez zitzaidan ezer kostatu Ainhoaren azalean sartzeak. Oso erraz fusionatu naiz. Ainhoak dio: "Beltza naiz eta harro nago!". Eta nik ere berdin pentsatzen dut. Ezberdintasun txiki batzuk egongo dira, baina, oro har, nahiko identifikatuta sentitzen naiz harekin.

**"FILMEKO ATZERRIKO KANTUEK ASKO TXUNDITU NAUTE"**

**"FERMINEK ENERGIA TRANSMITITZEN DU, ESKERTZEKOA DA"**

**"AINHOA HARRO DAGO BELTZA IZATEAZ, BAITA NI ERE!"**

**Ez zara presionatuta sentitu momenturen batean?**

Justu kontrakoa! Ia esaldiro genbiltzan barrezka, nahiz eta gauza serioa izan. Ferminekin horrela izan ohi da, haren energiak kutsatu egiten zaitu, eta broma giroa nagusitzen da beti.

**Marrazki bizidun bati ahotsa jartzen zer moduz?**

Ahotsa jartzea aktorearen eginbeharretako bat izaten da; film bat bikoizten bada, sarri jatorrizko aktoreak berak jartzen du ahotsa bikoizketan, edo grabaketako esaldiren bat gaizki badago, post-produkzioan zuzendu daiteke audioa bakarrik grabatuta. Baina marrazki bizidunetako lehen esperientzia *Black is beltza*-n izan zen. Oraingoan, askoz testu gehiago izan dut, jakina.

**Halako proiektu baten grabaketa prozesua desberdina al da?**



Grabaketa estudioan, zuzendaritza taldearekin. 'BLACK IS BELTZA'



Ainhoa, pelikulako protagonista, portuan. 'BLACK IS BELTZA'

Bai, arrazoi askogatik. Hasteko, saiakera piloa egin behar izan ditugu: hasierakoak marrazkirik gabe, gero marrazkiekin... Bidaia luzea izan da, noizean behin gelditzen ginen aurrera egiteko. Ahotsa Elkar estudioan grabatu dugu, Donostian. Aktoreok banaka joaten ginen grabaketak egitera. Elkarrizketa baldin banuen beste pertsonaia batekin, batzuetan ez zegoen bestearen jatorrizko audiorik, eta, baldin bazegoen, ba, hori entzunda grabatzen nuen. Aktoreok, gehienez ere, estudioan gurutzatzen ginen, eta kito.

**Aktore ezagunek hezur-haragitzen dituzte pertsonaiak.**

Asko aurrez ezagutzen nituen: Itziar Ituño, Mikel Losada, Eneko Sagardoi, Miren Gaztañaga, Jon Plazaola, Ramon Agirre... Badaude batzuk ez nituenak ezagutzen; Darko Peric eta Antonio de la Torre, adibidez.

**Lehen filmeko ezaugarriak mantentzen al dira?**

Akustika trama gertatzen den tokiari lotuta dago erabat. Tokiko hizkuntzek eta musika taldeek presentzia nabarmena dute. Banda euskaldunen artean, Kortatu, RIP, Mikel Laboa, Barricada... eta halakoen kantuak entzungo dira. Ni neu, berriz, kanpoko musikak txunditu nau; Libanokoak, besteak beste.

**Hizkuntzekin baduzu bitxikeria kurioso bat, behintzat.**

Ingelesezko esaldiak interpretatzerakoan nire aitaren laguntza izan dut estudioan. Entzuten zuen nolako azentua jartzen nuen eta hobeto ahoskatzeko gomendioak ematen zizkidan.

**Ikusi al duzu filma?**

Pieza laburrak bakarrik. Horrekin nahikoa dut jakiteko sekulako itxura izango duela azken emaitzak. Polita da ikustea nola muntatzen den hau dena. Hasieran, gidoiaz gain, ez zegoen ezer, ezta Ainhoaren irudirik. Bat-batean, ikusten duzunean ahotsaren, irudiaren eta musikaren arteko batasuna, sekulako indarra hartzen du denak.

**Eta bestela, ze puntutan dago Maria Cruickshank?**

Urte hauetan amatasunean murgildu naiz, bereziki. Batzuetan, lanarekin uztartu nezakeen; *Go!azen* grabatzerakoan, kasu. Proiektu politak ari dira sartzen azkenaldian, ikusiko dituzue!

# 'Karmele', Asier Altuna lantzen ari den filma

Zinemagile bergararra Zinemaldiko 'Spanish screenings' foroan egongo da, 2024an grabatu nahi duen obrarako "banatzaile internazionala lortzeko asmoz". 36ko gerran eta 40ko hamarkadan girotutako gidoia ondu du, Ondarroako erizain bati buruzkoa

**H.L.** DEBAGOIENA

Azken bost urteotan zuzendu dituen hiru pelikulak –*Agur Etxebeste, Arzak since 1897, Handalea*– "enkarguz" egin ditu Txintxua Films ekoiztetxeko Asier Altunak; beraz, badu gogoa harengandik sortutako ikus-entzunezko proiektu bat aurrera ateratzeko. Kirmen Uribe idazlearen *Elkarrekin esnatzeko ordua* eleberrian aurkitu du *Karmele* idazteko heldulekua: "Kirmenek berak kontatu zizkidan 1936an Ondarroatik alde egin zuen Urresti familiaren gorabeherak. Frantzian eta Venezuelan erbesteratu ziren, berriz Euskal Herrira itzuli aurretik. Hemen, Francoren aurkako ekintza klandestinoetan hartuko du parte; sendi horretako Karmeleren istorioak erakarri ninduen, mugimendu handiko eta bukaera dramatikoko bizitza izan baitzuen". Protagonista Bilboko tronpeta-jole sonatu batekin maiteminduko da Parisen; beraz, filma "bidaia musikal bat izango da, tokian tokiko erritmoz blai, epikaz betea eta oso gurea".

## Finantzaketa fasean

Gastibeltzak taldearekin koproduzituko du filma Txintxuak, eta Altunak aipatu du ekoizteko "zaila" izango dela. Hortaz, ahalik eta dirulaguntza gehien lortzeko lanean dihardute: "Eusko Jaurlaritzako, Akitaniako eta hedabide ugaritako deialdietan eman dugu izena, Zinemaldian *Spanish screenings* foroan aurkeztuko gara banatzaile internazionalekin harremanak egiteko, eta Berlinale jaialdira joateko asmoa ere badugu".

## Txintxua, lehian

Aurten, Altunak ez du filmik aurkeztuko Zinemaldian; bai, ordea, hura kide den ekoiztetxeak. Zuzendari berrien sailean, Maria Elorza gasteiztarrak *opera prima* aurkeztuko du: *A los libros y a las mujeres canto*.


DEBAGOIENEKO
PROFESIONAL LIBERALAK

ABOKATUAK

BERNARDINO MAIZTEGI
BERGARA / Irizar 5
Tel.: 943 76 10 81

BEGOÑA LASAGABASTER
ARRASATE / Iturriotz 15, 1 A
Tel.: 943 79 98 86 / Faxa: 943 77 01 08
blasaga@conet.es

RAFAEL ARANBURU
BERGARA / Irizar 5
Tel.: 943 76 10 81

AHOLKULARITZAK

ANDRA MARI AHOLKULARITZA
ARETXABALETA / Araba ibilbidea 20, behea
Tel./Faxa: 943 79 29 26
andrama@arrakis.es

ALBERDI ASESOREAK
BERGARA / Matxiategi 36
Tel.: 943 76 90 83

ARKITEKTOAK

BIARK ARKITEKTOAK
ARRASATE / Usaetxe plaza 1, behea
Tel.: 943 79 80 33
www.biark.net

LARRAITZ VALENCIA AZKARGORTA
Arkitektoa eta tradesperson formazioa
Tel.: 636 89 92 11
larraitz.arkiestudioa@gmail.com

ETXE ADMINISTRAZIOAK

URIBESALGO ADMINISTRAZIOAK
ARRASATE / Pablo Uranga 3, behea
Tel.: 943 79 51 25
uribesalgo@uribesalgo.es

Iragarkia jarri nahi baduzu, deitu **943 25 05 05** zenbakira.

ESKER ONA



**Ignacio Etxebarria Jauregi**

'Txato'

2022ko irailaren 13an hil zen, 73 urte zituela.

*Ez zaitugu inoiz ahaztuko.*

—

Haren emaztea: Kontxi Zelaia Zumelaga. Seme-alabak: Haizea eta Ibon Igarzabal eta Jonan. Biloba: Gaba. Anaia: Jose Mari eta Malen Larrañaga. Ezkon anai-arrebak: M. Jose, Jose Mari eta Guadalupe Miranda, M. Asun eta Imanol. Ilobak: Joseba, Martin eta Itziar Leturia, Elias, Daniel eta Garazi.
Lehengusu-lehengusinek eta gainerako ahaideek jasotako dolumin eta maitasun keinu guztiak eskertu nahi dizkizuete.

Oñatin, 2022ko irailaren 16an.

OROIGARRIA



**Ignacio Etxebarria Jauregi**

'Txato'

2022ko irailaren 13an hil zen, 73 urte zituela.

*Eskerrik asko eman dizkiguzun irribarre,*
*txiste eta momentu on guztiengatik.*
*Gure bihotz eta oroitzapenetan egongo zara betirako.*

Ona tabernako langile ohiak.
Oñatin, 2022ko irailaren 16an.

OROIGARRIA



**Ignacio Etxebarria Jauregi**

'Txato'

2022ko irailaren 13an hil zen, Oñatin, 73 urte zituela.

*Agur lagun, adiskide*
*Agur eta bai, beti arte*
*Begiak busti, samina nausi*
*Sentimena ximurturik*
*Zure hutsuna beteko duenik*
*ez daukagu ta besterik.*

Orga kuadrilla.
Arrasaten, 2022ko irailaren 16an.

ESKER ONA



**Jose Maria Jaureguialzo Alcelay**

2022ko irailaren 7an hil zen, 93 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi.
Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Oñatin, 2022ko irailaren 16an.

OROIGARRIA



**Arrate Martinez Iñurrategi**

2022ko irailaren 14an hil zen, 56 urte zituela.

*Bidaia abiatu duzu, Arrate.*
*Zoazen lekuan itxaron gaitzazu.*
*Laster arte bat.*
*Maite zaitugu.*

Zure lagunak.
Bergaran-Sajan, 2022ko irailaren 16an.

OROIGARRIA



**Arrate Martinez Iñurrategi**

2022ko irailaren 14an hil zen, 56 urte zituela.

*Rosa rosae*
*bihotz more*
*Sajazarrako mahastietara joan zara*
*sekulabelarrak landatzera*
*in aeternum...*

IPINTZA

Zure Ipintzako familia.
Bergaran, 2022ko irailaren 16an.

## GUARDIAKO FARMAZIAK

**ARRASATE** *EGUNEZ*

Egubakoitza, 16 FERNANDEZ: Musakola 11 / 943 79 22 26
Zapatua, 17 IRIZAR: Erguin 11 / 943 79 12 39
Domeka, 18 SANCHEZ: Euskal Herria plazaz 15 / 943 79 09 74
Astelehena, 19 ESPAÑOL: Araba etorbidea 14 / 943 79 18 65
Martitzena, 20 RUIZ: Nafarroa etorbidea 1 / 943 79 14 09
Eguaztena, 21 ETXEBERRIA: Zarugalde 38 / 943 77 16 30
Eguena, 22 AZKOAGA: Ferrerias 1 / 943 79 15 15

**BERGARA** *EGUNEZ*

Egubakoitza, 16 ZABALA: Barrenkalea 25 / 943 76 16 87
Zapatua, 17 URRITIKOETXEA: Oxirondo 4 / 943 76 11 74
Domeka, 18 URRITIKOETXEA: Oxirondo 4 / 943 76 11 74
Astelehena, 19 ZABALA: Barrenkalea 25 / 943 76 16 87
Martitzena, 20 OIARBIDE: San Antonio 5 / 943 76 11 05
Eguaztena, 21 ESTELLA: Matxiategi 5 / 943 76 19 63
Eguena, 22 MOZOS: Iparragirre 2 7 943 76 12 15

**OÑATI** *EGUNEZ BAKARRIK*

Egubakoitza, 16 IGARTUA: Kale Zaharra 1 / 943 78 01 22
Zapatua, 17 IGARTUA: Kale Zaharra 1 / 943 78 01 22
Domeka, 18 IGARTUA: Kale Zaharra 1 / 943 78 01 22
Astelehena, 19 GARATE: Kale Barria 42 / 943 78 05 58
Martitzena, 20 GARATE: Kale Barria 42 / 943 78 05 58
Eguaztena, 21 JULDAIN: Kale Barria 6 / 943 78 11 28
Eguena, 22 JULDAIN: Kale Barria 6 / 943 78 11 28

**ARRASATE** *GAUEZ EGUNERO*
*(22:00etatik 09:00etara)*

2022 bukatu arte: JUNCAY: Iturriotz 17 / 943 79 79 99

**BERGARA** *GAUEZ EGUNERO*
*(22:00etatik 09:00etara)*

2022 osoan: URRITIKOETXEA: Orixondo plaza 4 / 943 76 11 74

**Gipuzkoako farmazien egutegia eskura izateko:**
*COF Gipuzkoa* aplikazioa deskargatu Google Play eta App Store dendetan.

URTEURRENA



**Maria Luisa Villar Narbaiza**

2021eko abuztuaren 14an hil zen, 91 urte zituela.

Urteurreneko meza domekan izango da, irailaren 18an, 12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokian.

—

*Beti izango zara gure oroimen eta bihotzetan.*

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.
Bergaran, 2022ko irailaren 16an.

URTEURRENA



**Maria Lourdes Cobos Zubia**

2021eko irailaren 15ean hil zen, 72 urte zituela.

Eskerrik asko azken urte honetan gurekin egon zareten guztioi.

Bergaran, 2022ko irailaren 16an.

## HILDAKOAK

**Jose Maria Jaureguialzo Alcelay.** Oñatin, irailaren 7an. 93 urte.

**Esteban Arana Mendikute.** Arrasaten, irailaren 8an. 78 urte.

**Alberto Sandoval Alonso.** Aretxabaletan, hilaren 10ean. 87 urte.

**Justi Diosdado Encinas.** Arrasaten, irailaren 12an. 70 urte.

**Maria Molina Moya.** Arrasaten, irailaren 12an. 77 urte.

**Edurne Osinaga Zulueta.** Bergaran, irailaren 12an. 96 urte.

**Miren Arantzazu Bedia Arregi.** Arrasaten, hilaren 13an. 65 urte.

**Ignacio Etxebarria Jauregi.** Oñatin, irailaren 13an. 73 urte.

**Arrate Martinez Iñurrategi.** Bergaran, irailaren 14an. 56 urte.

**Pablo Garrido San Jose.** Arrasaten, irailaren 15ean. 67 urte.

BABESLEA

Oroilore

Maitasunez bizi,
maitasunez agurtu



*Gure artean agurtutako guztiei euren bidea aurkitzen lagundu diegu, orain arte bezala, eta guztiek izango dute agur berezia Oroiloren.*

*Gure eskerrik beroenak gugan izan duzuen konfiantzagatik eta maitasunagatik.*

**Ion, Mario, Iban eta Maribi**

*Tel.: 617 44 21 55 • BERGARA • ANTZUOLA*
*Moyua OÑATI • Tel.: 943 71 66 37*

## BERRI-ZAKUA






**Asto-jan jendetsua**
Ia 160 lagun elkartu ziren aurreko zapatuan Aretxabaletako Mitarte kalean, asto-janaren aitzakiapean. Hirugarrenez egindako ospakizunak jai giroan murgildu zuen herria. Igor Oruesagastiren gidaritzapean Elosuko Bega baserrian hazitako hiru astakumeren okela prestatu zuten.





**San Martin azokako sarituak**
Ibarreko ekoizleek hainbat sari lortu zituzten Bergaran: gazta onena Lekarozen bizi den Irati Usandizaga oñatiarrarena izan zen; hirugarren barazki-postu onena, Mari Karmen Etxeberria bergararrarena; bigarren fruta postu-onena, Jose Lonbide aretxabaletarrarena; herritarren saria Ane Gorosabelek irabazi zuen.

**Ospakizunetan**
Bi urteko etenaren ostean, gogotsu ospatu zituzten Arantzazuko Ama Birjinaren festak hango Oñatiko Arantzazuko auzotarrek. Patata-tortilla lehiaketa, mendi bizikleta ibilaldia, dantzaldia eta auzo-bazkaria egin zituzten. Azken horretan 80 bat auzotar egon ziren kontu kontari.





**Gelmakoak jaietan**
Auzoko saguzarraren aitzakian batu ziren Arrasateko Gelmako auzotarrak festara. Herri kirolak, txalaparta ikastaroa, *Go!azen!* karaokea, puzgarriak, txaranga... egon ziren auzoan egubakoitzetik domekara. Zapatu eguerdian mahaiaren bueltan eseri ziren, menu goxoa dastatzeko.

**Kurtzebarri Eguna**
Ohi bezala, iraileko bigarren domekan ospatu da Kurtzebarri Eguna, Aretxabaletako Murrukixo mendizale elkartearen eskutik. Mendi ibilaldirako aparteko eguraldia izan arren, beste urte batzuetan baino jende gutxiago elkartu zen tontorrean. Mokadutxoa eta edatekoa eskaini zuten han.





**Eskuterrak, bistara**
Vespa eta Lambretta marketako 70 bat eskuter klasiko egon ziren ikusgai Arrasateko Herriko Plazan aurreko zapatuan. Burrunba hotsak entzuteko kalejira egin zuten eguerdian. Mondraueko Dragoiak Scooter Taldeko antolatzaileak pozik azaldu ziren Mondrallyren hamargarrenak eman zuenarekin. Hurrengo urtekoa begiz jota dute dagoeneko.





**Ines eta Jose Antonio**
Ines Franco eta Jose Antonio Agirrezabal bergararrak 1972ko irailaren 16an ezkondu ziren, Bergarako Santa Marina elizan, eta aurten urrezko ezteiak beteko dituzte. Ospakizuna zapatuan egingo dute familia osoaren konpainiarekin. "Zorionak, bikote! Besarkada estu eta musu bana, familia osoaren partetik; bereziki, Enekoren, Oihanen eta Mirenen partetik".

**Ihesi**
Eskoriatzako *San Pedro txikiak* ospatu zituzten aurreko asteburuan. Auzotar guztiek izan zuten zertaz gozatu, baina, bereziki, gaztetxoenek aprobetxatu zituzten festak. Trebeenak, txorimaloen aurretik korrika egiteko. Era berean, auzoko adinekoei aitortza egin zieten, eta, haien ordezkari moduan, txupinazoa bota zuen Angela Fernandez *Angelita*-k.

## ZORION AGURRAK



BERGARA
**Aner Sanchez Agirre**
Irailaren 22an, urte bat. Zorionak, Aner! Ondo pasatu zure urtebetetze eguna. Patxo handi-handi bat hainbeste maitte zaitugun guztion partetik.



OÑATI
**Enara Garcia Calzada**
Irailaren 21ean, 10 urte. Zorionak, sorgintxo! Elegante pasatu! 10 muxu eta besarkada erraldoiak zuretako. Ane, Hegoi, aitatxo, amatxo eta familixa osua.



BERGARA
**Alaitz Azula Padilla**
Irailaren 19an, 5 urte. Zorionak, printzesa! Primeran pasatu zure egunean. Muxu pila bat etxeko danon partetik.



BERGARA
**Malen eta Inhar Aramendi Olasolo**
Irailaren 19an, 4 urte. Zorionak, bikote! Primerako eguna pasatu. Patxo eta besarkada handi bat etxeko denen partetik!



OÑATI
**Ane Arregui Unamuno**
Irailaren 18an. Ze ondo, Ane, 7 urte! Zorionak! Oso ondo pasatu zure eguna, polita, eta muxu handi bat etxeko danon partetik.



BERGARA
**Izaro Loiola Lopez**
Irailaren 18an. Zorionak! Zortzi urte gure artian! Egun zoragarrixa opa dotzugu, batez be, etxeko txiki bixak! Muxu bat! Aitatxo, amatxo, Izar eta Irati.



ANTZUOLA
**Ankara Sandia Sanchez**
Irailaren 18an, 5 urte. Zorionak, 'kutxuflet'! Disfrutatu topera zure eguna eta jarraitu zoriontsu izaten. Asko maite zaitugu. Muxu erraldoi bat!



ARRASATE
**Uxue Guridi Egaña**
Irailaren 18an, 4 urte. Zorionak, maitia!



BERGARA
**Ega Zabala Pozo**
Irailaren 18an, 7 urte. Zorionak, politx hori! Jada 7 urte! Ondo-ondo pasatu. Danon partetik, eta batez be Ikerrena.



OÑATI
**Malen Salazar Guridi**
Irailaren 18an, 15 urte. Malen maitte, zorionak bihotzez, etxeko danen partetik, gure printzesa!



BERGARA
**Maialen Esteban Laskurain**
Irailaren 17an, 9 urte. Zorionak, printzesa! Egun zoriontsua pasatu eta patxo handi bat, aititaren, amatxoren eta aitatxoren partetik.



BERGARA
**Julen Bolibar Sanchez**
Irailaren 17an, 10 urte. Zorionak, Julen! Ondo-ondo pasatu zure egunean. Muxu erraldoi bat, maite zaitugun danon partetik.



OÑATI
**Oxel Arregi Camino**
Irailaren 16an, 8 urte. Zorionak, Oxel! Ondo pasatu zure eguna. Patxo potolo bat gure partetik.



ARETXABALETA
**Urko Arkauz Vitoriano**
Irailaren 15ean, 6 urte. Zorionak eta patxo handi bat danon partetik. Ze azkar zabitzen nausitzen, txapeldun!



BERGARA
**Haizea Iturrospe Arrondo**
Irailaren 14an, 11 urte. Zorionak, Haizea! Ondo ospatu zure eguna. Muxu handi bat danon partetik.



ARETXABALETA
**Nikole Atxa Urrutia**
Irailaren 14an, 6 urte. Zorionak, Nikole! Disfrutatu zure egunian. Pilia maitxe zaittugu! Besarkadatxo bat!



BERGARA
**Itziar Ibarra Udabe**
Irailaren 13an, urtebetetzea. Zorionak, amama Itziar! Besarkada estu bat etxeko guztien, eta batez ere, zure hiru biloba, Agate, Inar eta Kermanen partetik! Orain arte bezain umoretsu eta indartsu jarraitu! Bihotzez maite zaitugu!

**ZORIONTZEKO HIRU BIDE**
- Goiena.eus-en erabiltzailea sortu eta *https://goiena.eus/zorionagurrak* helbidean sartu.
- Mezua bidali *zorionagurrak@goiena.eus* helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.
- Zatoz Goienara batera edo deitu 943 25 05 05 telefonora.



OÑATI
**Maritxu Larrañaga Eguren**
Irailaren 12an, 81 urte. Zorionak, ama, amama, bihotzez! Asko maite zaitugu!



ARRASATE
**Urtzi Ginart Velez de Mendizabal**
Irailaren 12an, 8 urte. Zorionak, laztana! Egun ederra pasatu eta jarraitu zoriontsu hazten!



OÑATI
**Mattin Sarriegi Derteano**
Irailaren 8an, 8 urte. Zorionak Mattin, 8 urtetzar! Muxu pilla bat etxeko danon partetik eta merezi dozun moduan ospatuko dogu!



ESKORIATZA
**June Aguirre Gandarias**
Irailaren 17an, 10 urte. Zorionak, June ! Ederto pasatu zure urtebetetze egunean. Patxo pila bat etxekoen partetik! Segi zaren bezalakoa izaten.

# AGENDA

**EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENEKO EGUERDIA BAINO LEHEN.** Tel.: 943 25 05 05 / kultura@goiena.eus

## EGUBAKOITZA 16

**BERGARA Sanmartinak**
09:00etan, sokamuturra; 11:00etan, diana txistulariekin; 11:30ean, musika bandaren kalejira; 12:30ean, errekortadore eskola; 12:30ean, musika bandaren kontzertua; 18:30ean, haurren danborrada; 19:30ean, mojito festa; 20:00etan, Nhil, Golden Blend, Lizartxo eta DJ Xaxau; eta, 22:00etan, zezensuzkoa.
*Bergaran.*

**OÑATI Arantzazura irteera, erretiratuendako**
Hamarretakoa, Arrikrutzera bisita eta Aitzabal auzo-etxean bazkaria, Lagun Lekuren eskutik.
*San Lorentzoko autobus geltokian, 10:30ean.*

**ARETXABALETA Kidam magoarekin saioa eta erakustaldia**
15:00etan, tailerra 7-10 urte bitartekoendako eta 16:15ean, 10 urtetik gorakoendako; eta, 19:00etan, emanaldia –sarrera, hiru euro–.
*Arkupen.*

**OÑATI Odol ateratzea**
Oporren osteko lehena. Aurrez hartu behar da ordua, 943-00 78 84 telefonoan.
*Enpresagintzan, 16:30ean.*

**ESKORIATZA Bizikleta ginkana eta 'pool party'-a**
Mugikortasun Astearen baitan, 12-16 urte artekoendako.
*Gaztelekuan eta kiroldegian, 17:00etan.*

**ARAMAIO La Movida taldea**
80ko hamarkadako eta 90eko hamarkadako kantuak joko dituzte.
*Sastiñan, 19:00etan.*

**OÑATI San Martin auzoko jaiak**
18:58an, jaiei hasiera emateko etxafuego jaurtiketa; 19:07an, txorimaloak, musika eskolako musikariekin; 19:13an, pintxo-potea; eta, 22:04an, kontzertuak Unidad Alavesa, Larru Beltzak eta Penny Fleck taldeekin.
*San Martinen.*

**OÑATI 'Plazaz plaza' pilota txapelketa**
Iantzi-Orbegozo/Barrocal-Mendiburu partidua.
*Plazako frontoian, 19:00etan.*

**ESKORIATZA Liher taldea**
Errekan Gora ekimenaren baitan.
*Fernando Eskoriatza plazan, 22:30ean.*

## ZAPATUA 17

**OÑATI Oñatiko mendi martxa**
VII.a egingo dute.
*Foruen plazan, 09:00etan.*

**BERGARA Sanmartinak**
09:00etan, sokamuturra; 12:00etan, *Culinary Center* kale antzerkia; 13:00etan, marianito festa eta oliba-hezur jaurtiketa; 14:30ean, bazkaria eta bingo musikatua; 17:00etan, errekortadore eskola; 18:30ean, Bergarako Erraldoi Konpartsaren kalejira; 18:30ean, karro-poteoa; 20:00etan, bikote nagusiendako 34. dantza askatu txapelketa; eta, 23:00etan, Kilimak, Virgin Mari eta DJ Hirukiak.
*Bergaran.*

**ELGETA Baserritarren azoka**
Garaiko eta bertako produktuak.
*Mendizaleen plazan,10:00etan.*

**OÑATI Oñati saria txirrindulari proba**
Amateur mailakoendako 101 kilometroko proba, Udana, Aztiria eta Atagoiti igota.
*Unibertsitate etorbidean, 10:00etan.*

**OÑATI 'Ilunpeko altxorrak' bisita gidatua**
*Ezkutuko altxorrak*-en iraileko egitarauaren baitan, euskaraz. Izenak: *infoturismo@debagoiena.eus* edo 943-79 64 63.
*Arrikrutzen, 10:00etan.*

**ELGETA 'Donejakue bideko Elgetako baselizak' bisita gidatua**
*Ezkutuko altxorrak*-en iraileko egitarauaren baitan. Izenak: *infoturismo@debagoiena.eus* edo 943-79 64 63.
*Madalena ospitalean, 10:00etan.*

**ELGETA 25. Intxortara igoera**
Izen-ematea, 10:20an. Hiru kategoria: 12 urtera artekoak, 12-16 urte bitartekoak eta 16 urtetik gorakoak.
*Mendizaleen plazan, 11:00etan.*

**OÑATI 'XVI. mendeko erretaulak' bisita gidatua**
*Ezkutuko altxorrak*-en iraileko egitarauaren baitan. Izenak: *infoturismo@debagoiena.eus* edo 943-79 64 63.
*Turismo Bulegoan, 11:00etan.*

**BERGARA 'Bergara monumentala' bisita gidatua**
*Ezkutuko altxorrak*-en iraileko egitarauaren baitan, gazteleraz. Izenak: *infoturismo@debagoiena.eus* edo 943-79 64 63.
*Laboratoriumen, 11:00etan.*

**ARRASATE 'San Juan Bataiatzailea: eliza gotikoa' bisita gidatua**
*Ezkutuko altxorrak*-en iraileko egitarauaren baitan. 11:00etan euskaraz eta 12:15ean gazteleraz. Izenak: *infoturismo@debagoiena.eus* edo 943-79 64 63.
*Herriko Plazan.*

**OÑATI San Martin auzoko jaiak**
11:00etan, *txikitrail;* 12:00etan, Oñatzekoen erakustaldia; 12:30ean, herri kirolak; 14:30ean, auzo bazkaria; 16:00etan, mus txapelketa eta ipuin kontalaria; 17:00etan, tatuaje tailerra; 18:30ean, txorimaloak eta garagardo azoka; eta, 19:00etan, Deiedra eta Mentertz taldeen kontzertuak.
*San Martinen.*

**ARRASATE Aurrera Bolie Eguna**
11:0etan, bermut politikoa, Sortuko, LABeko eta Ernaiko kideekin; 11:30ean, jolasgunea Biteri plazan; 14:30ean, bazkaria; 16:30ean, bazkaloste akustikoa: Iraitz Agirre eta Garazi Barrena, Des-kontrol, Perlata, Izadi eta Kontralde; 18:30ean, *Kantuen kantuak*, Joseba Sarrionandiarekin eta Ines Osinagarekin; eta, 22:30ean, Delirium Tremens, Etxepe eta Gora Etorri taldeak, gaztetxean. Sarrerak, bost euro
*Arrasaten.*

**ARETXABALETA 'La casa de Otalora en el siglo XVI' liburuaren aurkezpena**
Iñaki Urreta Leturiondo aretxabaletarrak aurkeztuko du.
*Arkupen, 12:00etan.*

**ESKORIATZA Anari**
Errekan Gora ekimenaren baitan.
*Fernando Eskoriatza plazan, 13:00etan.*

**BERGARA Korda Rota taldea**
Punk-and-roll doinuak, Gorlako kantinan. Eguraldi txarra bada, Elosuko frontoian.
*Gorlako kantinan, 18:30ean.*

**ARETXABALETA David Blanco ilusionistaren emanaldia**
Magia Astearen baitan.
*Herriko Plazan, 18:30ean.*

**OÑATI 'Martin Zalakain' dantza ikuskizuna**
Juan Antonio Urbeltzek zuzenduta, Argia dantzari taldearen ikuskizuna.
*Zubikoan, 19:00etan.*

**ESKORIATZA Kimbombo Brass Band**
Errekan Gora ekimenaren baitan.
*Eskoriatzan, 19:30ean.*

**ARRASATE 'Hazia' musikala**
Jose Maria Arizmendiarrietaren bizitzaren eta obraren eta orainaldirako eta etorkizunerako baliozko irakaspenen laburpena egiten duen lana.
*Amaia antzokian, 20:00etan.*

**ESKORIATZA Neomak**
Errekan Gora ekimenaren baitan.
*Fernando Eskoriatza plazan, 22:30ean.*

## DOMEKA 18

**ELGETA Mendi irteera Maizara**
Kantsatzeke mendi taldearen eskutik.
*Mendizaleen plazan, 08:00etan.*

**BERGARA Sanmartinak**
09:00etan, aire zabaleko 47. Simon Arrietan pintura lehiaketa; eta, 18:30ean, Afrikako musika eta dantza ikuskizuna.
*Bergaran.*

**OÑATI 50. Haur Dantzarien Eguna**
09:00etan, goiz-eresia; 10:15ean, dantzariei ongietorria; 11:45ean, alkate txikiaren agurra; 12:00etan, dantzan kalerik kale; 13:30ean, haurren banaketa; 17:00etan, Etxaluzetik kalejira; 17:15ean, alardea; eta 18:30ean, buruhandiak eta erraldoiak.
*Oñatin.*

**OÑATI 'Ilunpeko altxorrak' bisita gidatua**
*Ezkutuko altxorrak*-en iraileko egitarauaren baitan, euskaraz. Izenak: *infoturismo@debagoiena.eus* edo 943-79 64 63.
*Arrikrutzen, 10:00etan.*

**ARRASATE Elizkizuna San Andres parrokian**
Eraberritze lanen osteko lehen meza emango dute. Aurrerantzean, bi elizkizun egongo dira: zapatuan 19:00etan eta domekatan 10:00etan.
*San Andres parrokian, 10:00etan.*

**ARRASATE Besaide: Oroitzapen Eguna**
10:30ean, txistulariak eta txalaparta: 11:00etan, oroimen ekitaldi zibila; 11:30ean, presidentearen berbak; eta 12:00etan, dantzariak eta txistulariak.
*Besaiden.*

**ESKORIATZA Erromintxelak taldea**
Errekan Gora ekimenaren baitan.
*Gernika plazan, 13:00etan.*

**ARRASATE 'Hazia' musikala**
Jose Maria Arizmendiarrietaren bizitzaren eta obraren eta orainaldirako eta etorkizunerako baliozko irakaspenen laburpena.
*Amaia antzokian, 19:00etan.*

**ARAMAIO 'Apaiz gartzela' dokumentala**
Santa Kruz abadearen gainekoa.
*Kultura etxean, 19:00etan.*

**ESKORIATZA The Riff Truckers taldea**
Errekan Gora ekimenaren baitan.
*Fernando Eskoriatza plazan, 19:30ean.*



NEOMAK

**ESKORIATZA Neomak taldea**
*Ilargi berriak* lanak geldialdia egingo du Errekan Gora jaialdian. Neomak taldeak etenik barik pasa du uda, eta etenik barik jarraituko du udazkenean. Trikiti doinuak protagonista izango dira. Debalde da.
*Bihar, zapatua, Fernando Eskoriatza plazan, 22:30ean.*

## ASTELEHENA 19

**OÑATI Pentsiodunen elkarretaratzea**
Pentsio duinak eskatzeko.
*Foruen plazan, 12:00etan.*

**ARRASATE Pentsiodunen elkarretaratzea**
Pentsio duinak eskatzeko.
*Herriko Plazan, 12:00etan.*

**ANTZUOLA Pentsiodunen elkarretaratzea**
Pentsio duinak eskatzeko.
*Herriko Plazan, 12:00etan.*

**BERGARA Pentsiodunen elkarretaratzea**
Pentsio duinak eskatzeko.
*San Martin plazan, 12:00etan.*

**ELGETA Podologoa erretiratuendako**
Txanda hartzeko: 669 99 81 65 zenbakia (Maite Elkoro).
*Kultura etxean, 15:00etan.*

**OÑATI 'Elkano eta artxiboak' berbaldia**
Elkanori buruz hainbat artxibotan topatutako informazioari buruzkoak azalduko dituzte. Besteak beste, Simancasko artxiboan.
*Pake Lekun, 17:30ean.*

**OÑATI Nagusien danborradako entsegua**
Nagusien danborradako entsegua. Entsegu orokorra, hilaren 26an.
*Eltzian, 20:00etan.*

## MARTITZENA 20

**ARAMAIO 'Ihesaldiaren 150. urteurrena' erakusketa**
Santa Kruz abadearen inguruko erakusketa ikusgai. Gaur da azken eguna, 18:00etatik 19:30era.
*Sastiñan.*

**OÑATI Haurren danborradako entsegu orokorra**
Parte hartuko duten haur guztiek joan beharko dute, eta larruzko gerrikoa eraman.
*Eltzian, 18:30ean.*

**ARETXABALETA Beinke-Loramendi dantza entsegua**
San Migel jaietara begira jartzeko entsegua. Ez dago aurrez izena eman beharrik.
*Kurtzebarriko kantxan, 19:00etan.*

## EGUAZTENA 21

**ELGETA Erretiratuen irteera Uxuera**
Xalbadorpe elkarteak antolatuta.
*Mendizaleen plazatik, 08:30ean.*

**ARRASATE Plazako dantza tradizionalak: ikastaroa**
Urriaren 3tik aurrera. Izenak, AEDn.
*AEDn.*

**BERGARA 'Ongi etorri rallya'**
LHko 3. eta 4. mailetako neska-mutikoendako, Aidau haurren zerbitzuaren eskutik.
*Oxirondo azokan, 17:30ean.*

**OÑATI Nagusien danborradako entsegua**
Nagusien danborradako entsegua. Entsegu orokorra, hilaren 26an.
*Eltzian, 20:00etan.*

## EGUENA 22

**OÑATI 'Oñati ezagutzen' ibilaldia**
Probintziako Artxibo Historikora joango dira bisitan, erretiratuak.
*Probintziako Artxibo Historikoan, 11:00etan.*

**OÑATI Bingo-joko berezia**
Opariekin.
*Pake Lekun, 17:00etan.*

**BERGARA 'Gaitasun handiko haurrak' hitzaldia**
Amaia Agirianok egingo du berba.
*Seminarixoan, 18:00etan.*

**OÑATI Haurren danborradako entsegu orokorra**
Haur guztiek joan beharko dute, eta larruzko gerrikoa eraman.
*Eltzian, 18:30ean.*

**ARETXABALETA Beinke-Loramendi dantza entsegua**
Bigarren entsegua.
*Kurtzebarriko kantxan, 19:00etan.*

**ESKORIATZA 'Ostegun bidaiariak'**
Leire Zurutuza Uribetxeberriak Madagaskarrera egindako bidaia kontatuko du.
*Zaldibarren, 19:00etan.*

## ZINEMA

### OÑATI

KULTURA ETXEA

**El test**
Egubakoitza eta zapatua: 22:00.
Domeka: 19:30, 22:00.
Astelehena: 19:30.

### EIBAR

COLISEO

**La vida padre**
Zapatua eta domeka: 17:00.

**After**
Zapatua: 19:45, 22:30.
Domeka: 20:00.
Astelehena: 20:30.

**El test**
Zapatua: 17:00, 19.45, 22.30.
Domeka: 17:00, 20:00.
Astelehena: 20:30.

ANTZOKIA

**La vida padre**
Zapatua: 19:45, 22:30.
Domeka: 20:00.
Astelehena: 20:30.

### GASTEIZ

GORBEIA

**Minions**
Domeka: 12:00.

**Padre no hay más que uno**
Egubakoitza: 17:30, 19:40.
Zapatua: 17:30, 19:40, 21:50.
Domeka: 12:00, 17:30, 19:40.
Astelehenetik eguenera: 17:30.

**Liga de supermascotas**
Egubakoitza: 21:30.
Zapatua: 17:10.
Domeka: 12:00, 17:10.

**Bullet train**
Egubakoitza: 21.30.
Zapatua: 21:05.
Domeka: 18:55.
Astelehenetik eguenera: 19:50.

**Voy a pasarmelo bien**
Egubakoitza eta zapatua: 17:10, 19:20, 21:30.
Domeka: 12:00, 17:10, 19:20.
Astelehenetik eguenera: 17:30.

**Nop**
Egubakoitza: 21.50.

**42 segundos**
Egubakoitza: 22:30.

**Tadeo Jones 3**
Egubakoitza: 16:35, 17:15, 18:35, 20:35.
Zapatua: 16:40, 17.15, 18.40, 20:35, 22.30.
Domeka: 12:00, 16.40, 17.15, 18:40.
Astelehenetik eguenera: 17:30, 20:00.

**El test**
Egubakoitza eta zapatua: 19:15, 21:30.
Domeka: 19:15.
Astelehenetik eguenera: 20:00.

**La huerfana**
Egubakoitza: 19:40, 21:50.
Zapatua: 19:30, 22:00.
Domeka: 12:00, 19:30.
Astelehenetik eguenera: 20:00.

**Viaje al paraíso**
Egubakoitza: 17:00, 19:15, 21.40.
Zapatua: 16:45, 18:55, 21:50.
Domeka: 12:00, 16.45, 20:35.
Astelehenetik eguenera: 17:30.

**La vida padre**
Egubakoitza: 16:30, 17:30, 18:30, 19.35, 20:30, 22:30.
Zapatua: 16:30, 17:30, 18:30, 19:40, 20:30, 22:30.
Domeka: 12:00, 16:30, 17:30, 18:30, 19:40, 20:30.
Astelehenetik eguenera: 17:30, 19:30.

**La invitacion**
Egubakoitza: 17:30, 19:45, 22:00.
Zapatua: 17:30, 19:50, 22:00.
Domeka: 12:00, 17:30, 19:50.
Astelehenetik eguenera: 17:30, 20:00.

FLORIDA

**Minions**
Zapatua eta domeka: 12:00.

**Liga de supermascotas**
Zapatua eta domeka: 12:00.

**Un heroe samurai**
Zapatua eta domeka: 12:00.

## KRITIKA

**El test** ★★★★★

**Zuz.:** Dani de la Orden. **Herr.:** Espainia (2022). **Aktoreak:** Alberto San Juan, Miren Ibarguren, Blanca Suarez. **Iraupena:** 105 minutu.

# Diruaren hotsa

**ANTONIO ZABALA**

*El test,* filma izan baino lehenago, Jordi Vallejok idatzitako antzerki-obra arrakastatsua izan zen. Vallejok berak zinemarako gidoia idatzi du, Dani de la Ordenek antzerkia pelikula bihur zezan. Istorioaren abiapuntua nahiko maltzurra da: ekonomikoki larri dagoen bikote bat gaztealdian lagun min izandako lagun dirudun baten etxera doa. Lagunak proposamen pozoitsu bat egiten die: zer nahiago duzue, orain 100.000 euro jaso ala hemendik hamar urtera miloi bat euro? Bikoteak eztabaidatu egin dezake, baina aukeratu behar duena emakumea da. Proposamenak, diruaren hotsak, zalantzan jarriko du hirukotearen printzipioak, sentimenduak eta euren arteko adiskidetasuna.

Sortzen den saltsak eta iskanbilak momentu dibertigarriak eragiten ditu, baina filma ez du norabide finkorik. Egoerak gehiegi luzatzen dira, batzuetan dirudi istorioak ez duela aurrera egiten. Etxetik kanpoko eszenek ez dute grazia handirik. Pertsonaien bat arketipikoegia da, gero sendotasun dramatikoa emateko. Bigarren zatian, psikologoaren agerpenarekin, intentsitatea eta egoerak larritu egiten dira, eta pertsonaiek ezkutuko sentimenduak, asmoak eta trapu zikinak eguzkitara ateratzen bukatzen dute. Bukaerarako martxa hartzen badu ere, beharrezkoa ez den epilogoak maltzurkeria kentzen dio De la Ordenen proposamenari.

PEFC ziurtagiria
Produktu hau kontrolatutako iturrietako materialez egina dago, birziklatua da eta Baso Kudeaketa Iraunkorraren ziurtagiria dauka
www.pefc.es

Zu hemen zaude.
goiena

AZKEN BERBA



ANE ZUAZUBISKAR

## Metafora

Hiru ahuakate-landare ditut etxean. Ahuakatea jandakoan hezurra kendu, hezurra lehortu, paper busti artean hezurra ernatu zedin itxaron, uretan sustraiak bota zitzan zaindu, eta loreontzira pasa.

Izugarri harro erakusten ditut hiru landareak. Kaktusak itotzen zaizkion norbaitentzat ez dago txarto. Loreontziz aldatu behar izan ditut bi, handitu egin direlako. Hirugarrena ere bide berean da, eta beste bi uretara pasata ditut. Kontrakoa espero zenutenentzat, ez, ez da ironia.

Oso pozik nago. Batez ere, ez nukeelako nire alde apustu egingo. Udako beroei ere eutsi diete, pentsa. Ahizpa kokoteraino dago. Uste dut bromatan esaten didala, eta bere izena jarri diot landareetako bati. Espero dut bromatan esan izana. Loreak ez zaizkio gustatzen, niri bai, baina uste dut landareekikoa hobeto daramala.

Hosto handiak dituzte, ez dute lehor itxurarik, eta ur asko eskatu arren, ez zaizkit ito. Hemen, normalean, metafora bat jarriko nuke, esaldi sinpatikoren bat, edo halako zerbait. Baina gauza ederra da ahuakate-hezur batek zaintzeko besteko landarea eman dizulako poztea.

GOIENA OKM GIDA

# "Haur-eskoletan ingelesa landu beharko litzateke"

**AINHOA GONZALEZ** GLOBAL STUDIES AKADEMIA

Irakasle izatea haren lehen aukera ez bazen ere, dagoeneko 17 urte daramatza lan horretan; egindako lana ikasleentzat lagungarria dela ikusteak asetzen duela dio

**Idoia Aranbarri Arzuaga** BERGARA

Dagoeneko 17 urte inguru daramatza eskolak ematen. Gurasoen etxean hasi zen, baina, gaur egun, akademia dauka Bergarako Lizaria kalean. Hizkuntzei dagokienez, gehienak ingelesa ikastera etortzen badira ere, eskariaren arabera beste hizkuntzaren bat ere ikas daiteke. Gainera, edozein ikasgairen eskola-laguntza ere eskaintzen diete gazteei.

**Nolatan ingeleseko irakasle?**

Ingeles Filologia ikasi nuen, eta ohikoena irakasle lanetan aritzea da. Hala ere, ez zen nire lehen aukera; itzulpengintzak arreta handiagoa pizten zidan. Hainbat akademiatan lanean aritu ostean, ikusi nuen irakaskuntza gustatzen zitzaidala; eta urte batzuen ondoren, nire kontura hastea erabaki nuen.

**Zein da ikasleen profila?**

4 urtekoei ere eman dizkiet eskolak. Horren txikiak izanda, pandemia tarteko, bertan behera geratu ziren. Bestela, LH1-etik aurrerako ikasleak etorri ohi dira. Dena den, helduak eta erretiratuak ere animatzen dira. Askoren lehentasuna titulua lortzea da, baina adinaren arabera aldatu egiten da helburua: bidaiatzeko, familia-kide ingelesekin komunikatzeko, zaletasunengatik...



Ainhoa Gonzalez, Bergaran duen Global Studies akademian. I.A.A.

### Ikasteko metodologia aproposik?

"Nire iritziz, ezin da ikasi hizkuntza bat ahozkotasunarekin bakarrik. Hizkuntza bat menperatzeak denbora eta gaitasun asko eskatzen du. Oso garrantzitsua da hitz egitea, baina gramatikarik eta hiztegirik ez baduzu, ez da nahikoa. Entzumena eta irakurmena oso garrantzitsuak dira. Gaur egun, erraztasun eta baliabide ugari daude. Ahalik eta gehien ingelesez entzun eta ikus-entzunezkoak ikusten badituzu, beti laguntzen du".

**Ikus-entzunezkoak itzulita ikusten ditugu. Zer deritzozu?**

Dugun ezaugarririk negatiboena da. Fonetikoki oso gaizki hitz egin eta ahoskatzen dugu. Hori guztia, ez ditugulako filmak eta telesailak jatorrizko bertsioan ikusten. Hemen itzuli gabe kontsumituko bagenitu, hizkuntza barneratzeko era natiboagoa izango litzateke.

**Geroz eta lehenago hasten dira haurrak hizkuntzak ikasten.**

Eurentzat hobeto. Haur-eskoletan ingeles irakasleek egon beharko lukete. Fonetikan eta hiztegian asko hobetuko lukete. Badakit, ordea, zaila dela.

**Bergarako txokorik gustukoena?**

San Lorenzo eta inguruak. Hemen hazi naiz, eta hemen jarraitzen dut; lanean ere bertan ari naiz. Auzoa handitu egin da, eta denetik daukagu.

**Zertan gara ezberdin euskaldunak eta ingelesak?**

Ez dut hainbesteko alderik ikusten. Izaera antzekoa daukagu; agian, eurak bereziagoak dira. Egia da sentitzen dutela ez dutela adierazten. Estatuko jendearekin joan nintzen ingelesa ikastera Ingalaterrara, eta horiekin antzeman nituen desberdintasun gehiago.

**Sanmartinetan zer egingo duzu?**

Gogotsu nago, bi urtean ez baititugu ospatu. Jardueretan parte hartuko dudala ziur. 6 urteko semea daukat, eta harekin aterako naiz.

Goiena OKm Gidaren eskaintza osoa

goiena Okm gida

